



irakasleen liburutegia

FREINET-TEKNIKAK LILITEGIAN

**ICEM batzordearen laguntzarekin
Madeleine Porquet-ek prestatua**

AURKIBIDEA

Lilitegiak eta Freinet-Teknikak	7
Heziketa-giroa Lilitegian	12
Haurraren hazkundearen eragileak	20
Andereñoa	25
Irakur-idazketaren hastapenak	29
Karkuluaren hastapena	40
Hizkuntza eta oharketa	52
Erakaslearen betekizuna	61
Apainketaren teknikak	69
Imajinagintza eta Eltzegintza	77
Tapizgintza	79
Haurren artea	83
Haurra olerkari	87
Elkarrekiko haur-arte mota batzuri buruz	95
Antzerki-jokoak	107
Berezko jinasia	110
SAIAKETA BATZUEN BERRI	115
Lilitegia eta Eskola berria (Hélène Bernard-ek)	116
Nivolas-Vermelle-ko Lilitegia (Isère)	121
Saint Martin d'Estreaux-ko Lilitegia (Loire)	125
Kaletar Lilitegi bat (Brest)	132
Kaletar Lilitegiko handien taldea	138
Neska-mutil koskorren talde bat (5/6 urte)	143
Ikas-ibilaldiak (Brest-en 5/6 urtetakoentzako)	151
Hiztegi	159

Lilitegiak eta Freinet-Teknikak

Sarritan jaurti izan zait ondoko galdera hau: hastapenetan lehenengo mailako eskolentzako asmatuak, bali ote dute Freinet-Teknikak lilitegietan? Baiezkoan, zer laguntza eman dizaiekete eskolaldiaren aurreko adinetan dauden haurrei eta hauen andereñoiei?

Ohar bat lehen-lehenik: Freinet-erakaspideen IZPIRITUA, eta mendeetan barrena erakasle haundiek utzi diguten joera nagusien ERAGILE izan zena, berbera dira; eta beti ere argituko ditu erakaskintzaren urratsak:

- helburuen eta lanabes egokien bilaketa etengabea;
- haurrari eta haurrei buruz, arreta osoa eta sakona; baita haurren beharrei, interesei, hazkunde-legeei, eta jokabide aztertzaila eta sortzailei buruz arreta beti ernea;

- eskolatzaillearen aldetik, jokaera iratzarria eta argitsua, elkarrekiko konfiantza-giroa sortzen jakiteko; eta horretan, beraz, berez eta batere bortxatu gabe elkarrizketa sortzeko haurren eta gauzen artean, erakaslearen eta haurren artean, haurren beren artean ere bai azkenik.

Bestetik, OSO EGOERA BEREZIA DU LILITEGIAK. Eskola-aurreko ikasgu denez, ez da denentzako nahi-ta-
ezkoa; gidari dituen legeak oso xinpleak dira. Eta 1914-
1918 gudu ondoko egunetatik gaur arteko haren zabal-
kudearen kondairarengatik; bihotza handi, eta adime-
na erne eta zabala zuten emakumeek sortua eta zuzen-
dua izan delako; eta andere horiek, azkenekorik, beren
garaiko pedagogilari eta psikologilaririk argituenak gi-
dari harturik zeduzkatelako (Dewey, Decroly, Claparède,
Mme. Montessori, Froebel, Pestalozzi, Ferrière);
lilitegiak berez jaio dira biziari buruz zabal-zabalik. Eta
berenez daramate, lehen aldi batez, haurtxoen behar
materialak, sendimenduzkoak, fisiologikoak eta sentso-
ri-mogitzaileak betetzera; eta, hurrengo urrats batetan,
haurrek dituzten beharrak (azaltzeko, sortzeko, mintza-
tzeko eta bilatzeko) bete ahal izatera.

Non aurkituko Freinet-erakaskintzarentzako saio-orua
edo alor hoberik, eskola-aurre diren lilitegiak baino?
Programa hertsirik gabeak, haurtxoaren biziari buruz
irekiak, eta haseratik haurtxoaren segurantz-behar ezin
sakonagoen zerbitzari eta hornitzaile, zer egokiagorik?
Erakaspideak oro «berezkoak» izan nahi dutelarik; ale-
gia, 2 urtetarik 6 urtetarako hazkundean, eta hazkunde
horren «agerraldietan», finkatuak, zer hoberik Freinet-
erakaspideak saiatzeko?

Haur ttikientzako andereñoek, haurraren hazkunde-aldi harrigarri hori (2 urteetatik 6 urteetarako epe horretan haurra pasatzen bait da kinkili-konkolo ibiltzetik, bere indarrak neurtzera eta xarma seguruaz jokatzer) bertatik segitzen eta «bizitzen» dutelako, andereñoek nabaitzen dute bizikienik beharbada ikasteko, beren burua lantzeko, eta kulturaren eta psiko-pedagogiaren indar biziekin harreman hestutan egoteko beharra.

Andereñoen emakume-senak, hurrekiko maitasunak, biziari buruzko zabalera-giroa piztutzen dute haiengan. Berritasun bila joan nahirik, hurrekin batera eta hurrentzako abiatzen dira artearen, olerkiaren eta musikaren lurraldean barrena. Hortik aurrera, eta Elise Freinet-en ondotik *haurren artearen* eskualdera sartuz gero, *berotasunean* eta *harriduran* ere jarraitzen dituzte beren eskoletan, eta beren haurtxoen behatz errebesek eta trebetasunik gabeek moldaturik, sortzen eta mamitzen ari den arte horren jaiotza, zalantzak eta hazkundera.

Freinet-erakaskintza haurraren ezaguera senazkoan eta pratikoan finkaturik dago goitik behera; eta haurrak azaltzeko eta sortzeko duen behar oldezkoa hartzen du oinarritzat. Freinet-en pedagogia, horretara, haur ttikien eskolatzailleen nahiaren arabera moldatua dago.

Beste alde batetik, Freinet-pedagogiak *elkar-laguntza* du oinarri: elkar-laguntza haurren artean, elkar-laguntza erakaslearen eta haurren artean, elkar-laguntza erakasleen artean, elkar-laguntza gurasoen eta erakasleen artean. Freinet-erakaspideak, beraz, lilitegiaren beste betekizun funtsezko bat betetzen du: honen gizar-te-helburua, alegia, honen betebeharrak soziala.

Adibide gisa, puntu bakar bat gogoraziko dut hemen: eskolako erakasleek eta ama-familiakoek elkarri ematen dioten laguntza, haurtxoen sendimenduzko, fisiologiazko eta adimenezko beharren ezaguera zorrotzago eta argiago eginez. Lekuko izan nahi nuke hemen eskolaren alde, haurtxoa gizarte-giroan sarrerazten eta egokitzen ematen duen laguntzarengatik; eskolako giroa horren urrun eta desberdina bait zaio haurrari, ordurartean ezagutu duen familia-giro hartatik.

Aldakuntza hau, oso nagia eta zaila da. Haurrak bi urte duelarik, gizartetan txikia du arras, eta amarekin lotua dago, edo gehienez edo noizean behin bakarrik hauzoko haurren batekin. Bospasei urte duen haurrak, alderantziz, gizartetan zabala du, eta harremanen edo elkar-hizketaren bidez ager daiteke. Freinet-Tekniken zimentarri diren eskolarteko idazkitza eta trukaketa izan daitezke laguntzaile bikaina helburu horri buruz.

Eskolarteko trukaketak, bi lilitegiren artean egiten delarik, irakurri eta idatzi-beharraren arrazoinak eta balio agerrerez, haurrak senditzen duen mintzatu-beharrari (guztiz berezkoa haseran) ematen dio erantzuna, baita haurrak bere barnea azaltzeko eta berririk aurkitzeko dituen behar sakonei. Haurren eta erakasleen arteko *harremanak* errazten ditu era berean, urrungo idazleei eman behar zaizkien erantzunak denen artean bilatu behar bait dira. Urrutiko adiskideari bere burua ongi azaldu beharrez, ingurumariari buruzko arreta erretzen du haurraren.

Elkar-hizketa giroa sortzen du, azkenekorik, haurren

Heziketa-giroa Lilitegian

Lehen mailako eskolan bezala, lilitegietan Freinet-Teknikak erabiltzeak ondoko hau du ezinbestezko oinarritzat: heziketa-giroa sortu behar da, ahal denik eta aberatsena eta ugariena, eta haurtxoen saioak libro uzteko modukoa; sortzen hasi berriak diren nortasun ahulek, inoiz hazi eta azkartuko badira, behar dituzten segurtasunean, konfiantzan eta askatasunean oratu behar dute. Badago liferentzia bat halere: haurra lilitegira abiatzen delarik, lehenengo aldiz uzten du alde batera famelia-giroa (giro segurtatzailea, beraz); eta giro ez-ezagun batetan barrena abiatzen da. Ikas-lekuak zabalago izan, haurrak ugariago, eta erakasleak lanaren nekagarriak akituago, eta orduantxe ere giroa bildurgarriago eta kezkatzaileago.

Honetaraz gero, xehetasun batzuk emango ditugu: eskola-aurreko adinetan dauden 1.500.000 haurretatik (lilitegietan eta herriko eskola zabaletan ibilietatik)

2/3 (bi heren) ari dira kaletar lilitegietan; eta heren bat bakarrik baserritar lilitegietan. Izadi giroa, anitz frogabideren eta azterketaren eragile, eta oreka-iturri eta aberaspide, baserria hustu ala gero eta maizago hondatzen du kale-giro artifizialak; eta giro honetan, askotan, hizkuntzaren aberaskuntza goiztarrak izkutatu egiten du esperentzi bizituen eta gertakari dastatuen urria.

Are gehiago, 2 edo 3 ikas-taldetako lilitegiak bukatuz doaz hiri nagusietan; eta horiei gaur 5, 7, 8, are 10 ikas-taldetako «eskola handiak» nagusitzen zaizkie. Aldakuntza hau oso azkarra da, eta haur ikasleen ugalketaren ondorioa da: industriazko probintzia batzutan, 50 haurretatik gorakoa da lilitegietako gorabehera; alegia, legeak zilegi ematen duenetik at. Egoera berri hau dela-ta, erakasleak aldatu egin behar izaten dute beren heziketa-giroa, haurren behar aldagabeen arabera dena moldatuz.

Gero eta gehiagotan, 2 urtetatik 6 urtetarako tartea betetzen du lilitegiak. Hastapenean, beraz, haurra etorri berria denean, nitasunaren kontzientzia zabaldu berria du, eta psikologiaren mailan ozta sortu da. Lehenengo aldiz utziak ditu bazterrean famelia-giroa, gurasoak, etxeko gauzak, eta bere-berea izan duen mundu hura. Eskolaldiaren buruko, berriz, ezagunak dituzke haurrak bere kideak, inguruko mundua; eta azaltzeko eta sortzeko bere ahalmenak hoziturik.

Biziaro ezin aberatsagoa, beraz. Urte horietan barena agertzen dira haur-nortasunak, eta dohainak eta izakerak somatzen. Orduantxe izan daiteke ere, haurraren biguna eta etorkorra direla-ta, errazena eta kaltegarriena ere bai eskolako inguramendua; baina, era

berean, ezin errazagoa izaten da biziari buruzko zabal-
kundera. Inun baino hobeki azter daitezke hemen haur-
gogoaren ihespideak, inun baino bertagotik jarrai saia-
kuntzaren hildoa, inun baino hobeki konpreni giroaren
eta pertsonaren arteko harremanak. Hementxe lagun
daiteke, eta bultza, gizakumea gorago joatera eragiten
duen oldea; hementxe haurra hazten, nagusi bihurtzen,
lagunarte batetan sartzen, eta bere burua neurtzen
ikasten.

Bortxarik gabe eta gogorkeriarik gabe, lagunarteko
bizierari dagozkion bertuteak eta alde onak lagun iza-
nik, haur bakoitzak saiorik gehienak egin ditzake lili-
tegian; eta saio horiek, elkertasunean eginak eta ugal-
duak izan direnez, baliorik gorena lortzen dute. Lilite-
giak helburu bat du gidari: ikasle bakoitzarengan kon-
tzientzia-esnaera lortzea. Eskolaldia bukatuta, bere ahal-
men zentzu-mogitzaileak ezagutu behar ditu haurrak,
bere azalmenak eta mintzamenak neurtzen jakin, eta
bere lehenengo adimen-urratsak ulertu.

Adin horretako haurraren behar nagusia bete behar
du heziketa giroak aurren-aurrenik: *segurantzi-beharra*.
Behin bederen ikusi behar da eskola-sarrera bat, mal-
koak xukatu eta oihuak geldiarazi, behar horren larria
uler ahal izateko. Orduan konpreni daiteke haurtxoak
bere amangandik eta bere etxetik lehenengo aldiz be-
rezi denean jasaten duen txokea. Bapatean familia-gi-
roa eta amaren laguntza galtzen ditu.

Hemendik aurrera ingurune honek mugatuko ditu
bere nahikundeak, «beste» hurrekin jokatu beharko
du (baina halaz ere bere burua ukatu gabe): haur ttikia
galduta egongo da zarata hartan, galduta hainbeste la-

gunen artean, galduta zabalegi gertatzen zaizkion leku heietan.

Ez dut hemen aipatuko amatasunezko jokabidearen beharra, ttikiekiko jaiera berez agertu ohi bait da andereño guziengan. Baina ikastalde batzuk dituzten eskolei nagokielarik, beste puntu bat gogoraziko dut: sarreren eta irteeren taxutu-beharra, baita jolasaldiena. Ikas-gelalara zuzenean sartzea, txikientzako jolasaldiak berezita ematea, ikastaldeak elkarren ondotik errondan patoria eta joko-aretora irtetea. Horrela talde bakoitzak ahalik eta ongienik gozatu eta uxtiatuko ditu lorategia eta joko-landa. Nola edo hala, gertakari itsusi bat behar da baztertu: ehun haur (edo gehiago ere askotan!) korrika eta elkar bultzaka gertatzea, denak gorri eta izerditan, joko-areto batetan pilaturik eta helbururik gabe asperturik. Honetara gauzak, bestela, segida ezaguna da: laisterka hasi, ondokoa bultzatu, eta garrasiari norgehiagokan eman. Puntu hau kontutan hartu behar dute erakasle artatsu guziek.

Beste alde batetik, lotura lortu behar da ahalik eta sarrienik amaren eta andereñoaren artean. Zer hobetik haurra giro berrian egokitzen laguntzeko? Hain zuzen ere, hauxe da Freinet-erakaspidearen ezagugarrietatik bat: fameliaren eta eskolaren artean, elkar-hizketa eta elkar-laguntza bilatzea.

Elkar-laguntza honek haurren ezaguera hobetzen du b: alderdian, eta erabili behar diren heziketa bideak argiagotzen.

Haurren sendimenduen gorabeherak hobeki ulertzen laguntzen du; eta, zenbait aldiz, haurra inarrosten duen trajeria izkutuak aurkitzen. Hona hemen adibide bat:


Anaia txiki baten jaiotzak Nadine-engan (3 urte t'erdi) sortu duen bekaizkeri-kinka gaiztoa argitzen eta gaitzen lagundu du eskolak, honetan aurkitu duen laguntza eta zabaltasuna merio.

Nadine-ren kondairen bitartez, honen oldezko marrazki eta solasen bidez, haurren eraso-nahiaren gakoak somatu du erakasleak, baita gurasoek eta erakasleak berak antzeman zuten gibelamendu eta uzkurtasuna. Gurasoekin hitzegin du andereñoak argi-eta-garbi. Gero ardura handia erakutsi du jaio-berriarekiko, eta ikastaldeko guztiei kutsatu die. Andereñoak honela jokatu, harrotasuna eta maitagunea piztu ditu Nadine-engan anaia txiki ahul harenganako, pitin bat bilduegi eta lotuegi jarri duen muttikoarekiko. Anaiatxoak sehaskan marratuz eta margotuz, eta dena kondatuz, askatu egin da Nadine bere bekaizkeriatik.

Amak eskolan sartzera utziz, haurren bizi-giro berria ezagutaraziz, noizpait bizigune bat erakutsiz, haurrak eskolatzen ez-ezik haurrak berak segurtatzen ere lagunduko ditugu.

Ikastalde bakoitza, bestalde, bere hogeita-hamar bat haurrak barne, azkar bihur daiteke segurtagi bat baita haurarentzako ere. Baldintza bat behar da bete: haurren askatasunari eustea, eta bigarren behar nagusi bati erantzun egokia eman: *ekintzaren beharra*.

Heziketaren mailan jartzen delako, eskolak haurra lagun dezake behar hori betetzerakoan, haren gorputzak jabetzen, haren mogimenduak ezkontzen eta egokitzen, haren hizkuntza osatzen eta lagunartetzen, haren nor-tasuna finkatzen.



Liburutegian.

Hau guzia sendimen bero baten bitartez, bost urte t'erdia sei urte inguru horretan ezari-ezarian, besteen ulertzapenean, harremanean eta elkar-hizketan mami-tzen delarik.

Bi urtetako haurtxoaren ibilera zalantzakor eta ol-dezkoa abiaburu, sei urtetako haur bat lortu: bere burua zaintzeko gauza, nahimenezko ekintza bururaino erama-teko gai, oroimenez jantzia, aztertzeko eta bildumatze-ko dohainez hornitua: horra hor lilitegiaren ekarria. Ez ahal da hori, Kergomard anderearekin ederki esateko, «bizitzen erakatea»?

Hiru urtetako haurtxoa dela, sei urtetako haurra de-la, biak beren buruaren eta munduaren bila abiatu-rik, Freinet-ek bezalaxe uste dugu guk ere edozer baino le-henago bilatu behar direla *norberaren esperentzia, ekin-tza pertsonala eta haztamuzko frogabidea*. Hauen bidez mamitzen dira haurraren ahalmenak, eta eratzen eta agertzen haren nortasuna. Gauzen aurkikundea pratika-ren bidez obratzen da, ekintzaren bidez alegia; eta bere pertzepzioak eraikitzen dituen haurrak, bere burua erai-kitzen du denbora berean.

Baina guk haurra gizarte-izaki bilakatzea nahi dugu, eta horregatik gogoz onartzen *talde-ariketak* eta *elkarre-kiko ekintza*.

«Geure ttipien inguruan moldatzen dugun bizikera-ren bitartez, bi helburu lortzen ditugu batera: bateko, haien hazkundea segurtatzen dugu, bai adimenaz bai sendimenaz; eta besteko, *gizarte-egokiera* lortzen, eta hau askatasunean eta alaitasunean obratua» (H. Sour-gen).

Bospasei urtetakoen artean bereziki, elkar-langintza

horien bidez aurkitzen dira besteak. Elkarrekin lanegindako memento horiek, *eragile* eta *elkar-laguntza* bihurtzen dira orduan, izpiritu motelen akuilu, eta adimenen eta bihotzen abiaburu.

Ez dezagun ahantz, halere, geuk sortzen dugun heziketa-giroak baldintzen duela haurren ekintza-mota. Haurrek hautatuko duten ekintza-mota (gero hezibide bihurtua) geronen eskuetan dago; *aukera* horren erantzukizuna guk daramagu. Biharko gizonak diren horientzako, Gaston Berger-ek gomendatzen zuena jakin beharra dago: «bilaketa-giroan sartu behar da. Zertan datza hau? Urruti ikustean, zabal ikustean, arrisku hartzen jakitean; eta, batez ere, gizonarengan pentsatzean».

Ez inundik ere kulturaren eta teknikaren mailan, probetxu emankor soilaren bila, mundu hertsian bizi den gizona; baizik-eta bere fidantzia sormenean eta oldean jartzen gauza den gizona: bere buruaz ongi jabe, eta tokatu zaion munduaz ere benetan jabetua den gizona.

Ibiltzen erakatsi nahi lukean irudiaren aurrean H. Michaux olerkariak bezala, guk honela diogu: «Ez da erraza harentzako, ez enetzako: tarte zabal batek beretzen gaitu. Axola duena hau da: lehen urratsa aproposa izatea. Dena dago lehenengo mementoko urrats horretan. Irudiarentzako, badakit, dena da lehenengo pausuaren araberakoa. Badakit jakin, ederki dakit hain zuzen; eta horretatixek heldu da ene ezinegona».

Lehenengo urrats horretan lagungarri gertatzen jakingo ahal dugu? *Ingurune aberats eta joritzaille hori* moldatzen jakingo ahal dugu? Bizinari ausarki zabaldua; eta frogaera guztiak egiteko *abegi oneko* eta *segurantzgi-giroan* oratua?

Bizi diren giroan, egunero ziplo ikasi eta ikasten dutena kontutan hartuko ahal dugu?

Haien elkar-hizketak, haien bozak, haien marrazki ugariak oinarritzat harturik, jakingo ahal dugu horretatik abiatzen?

Elkarrizketa zabaltzen eta hasten jakingo ahal dugu? Haurren pentsamenduen eta gureen artean, heziketa eta erakaskintza-bide bakarra den lotura segaila baliatzen jakingo ahal dugu?

Gaurko munduan egoten jakingo ahal dugu, haien jakin-minari eta oldeari, jokatzeko eta handitzeko beharri, bizidunen eta gauzen munduarekiko dakarten begikotasunari eragiten? Jakingo ahal dugu haien oldezko ikaspen-mordo nahasian taxuketa bat egiten, eta bizi-tzeko boza gordetzen? Jakingo ahal dugu berek beren burua moldatzen laguntzen? Jakingo ahal dugu haurren galdetu beharra azkartzen, eta munduari so galdezka paratzen direlarik, edo beren buruz bir-sortzen, egokiro erantzuten?

«Nagusi bilakatzea —idatzi du ikertzaille nagusi den Bandet andereak— lilitagian hasten da. Gizona eta haurra, egia eta ametsa, gaurkoa eta iragana, oldezkoa eta nahizkoa horra hor elkarren ondoan gertatzen direlako, erakaspide oso bat. Horrela lortzen du ttipiak nagusia menderatzea; baina, alderantziz ere, nagusiak gidaturik eta eutsirik».

Horixe da Freinet-erakaspidearen mamia bera. *Oldezko agermena, haurren arteko harremanak eta truketak* eta *eskolatzailearen eta haurren arteko elkarrizketa* ekintza-bide nagusia eta bakarra izatea.

Haurren hazkundearen eragileak

Ekintza hori bigarren haurtzaroan barrena burutuko da; eta urte-mordoska hau arreta handiz hausnartua dute psikologilari, eskolatzaile, psikiatra eta osagile anitzek; eta denek erakutsi dituzte batera horren garrantzia eta batasuna.

Horiei esker ikasi dugu gorputz-hazkundearen eta adimen-zabalkundearen arteko lotkia edo soka. Orain badakigu kirio-sistemak gobernatzen duela zabalkundea, kirio-sistema zaildu eta korapilotu ala, eta zelulak elkargandik berezten diren neurrian, agertzen direla adimenaren ahalmenak. Hots, hazkunde-aldi hau luzea da, eta kirio-firuen milenizazioa ez da nagusi-haroraino bukatzen. Besterik ere badakigu gaur; ez dugula geure eskuetan indarririk batto ere kirio-sistemaren zohidura istant batez, are egun batez ere, aurreratzeko edo azkartzeko; eta hori dela-ta, izpirituaren indarra.

Eta, hori horrela, pairatsuago bihurtu gara. patxara-tsuago, Izadi-legean onartzetik gertuago, haurren «sentikor-aldiak» ezagutzeko erneago; ezen horien jokabideek, joerek, eta interesek erakusten bait dute argiro, bolara horretan indar harrigarriak badituztela ekintza-modu berritarako. Aisa irits daiteke horien barneraino kinuen, hitzen, marrazkien, margotzaren, moldagintzaren eta dantzaren bidez; eta joera badute idazkitzari buruz, baita hizkuntzari buruz ere; eta geroxeago azterketari eta karkuluari buruz.

Azter ezazue 2 urtetako haurtxo baten jokabidea. Oraindik ere zalantzakorra da: keinuak desegoki eta moldakaitz ditu. Ikus zazue lilitegiko beste haur bat: bapatean, eta zergatik ez dakigularik, gelditu egiten da, eta atzera bihurtzen: eguzki-errainu batek, istil batek, harri koxkor batek, geldiarazi egin dute.

Askotan erreparatzen ditut haurrak eskolarako bidean: beren amen begipean ez daudenean, itxura ezin serioagotan, ezpaloi-ertzetik beretik joaten saiatzen dira. Beste askotan jostaleku hondartsuetan daudelarik nagokie so. Lehengo egunean, esate baterako, ohol bat eskuetan hartu zuen hura begiratu nuen. Ohola hondarretan sartu eta zutik tinkarazten saiatzen zen; ezin, ordea, eta oholaz gaineko hondar-azala kentzen hasi zen. Tarte lauki bat sortu zuen horrela; eta beste haur bat handik egokiturik, esan zuen: «Horra hor garaje bat». Bernard, horretara, garajea zulatzen hasi da, gero garajeko ataria, gero bide bat, bihurguneak eta guzti.

Ohola kotxe bihurtu da, beste eskutxok zapaldu duten garajea, harri-hobi; geroago, bete egin da hau; eta hondar bustia, azkenik, behatzetan manaiaturik eta mol-

daturik, lukainka bilakatu da, eta merkatari-jokoarentzako aitzekia.

Arte horretan, lorez mugatutako bide-ertzean aurrera zijoan neskabila txiki bat, eta loreok laztantzen zituen; eta Rousseau gogoratu zait:

«Gure eskuak, gure oinak, gure begiak: horra hor filosofiarene lehendabiziko erakasleak».

Berriz ere gauza berberaz ohartzen nintzen: alegia, lehenengo haurtzaroan eragile sentsori-mugitzaileak direla nagusi gudan, gizarte eta sendimen-ondorioak ekarri; eta Wallon-en ideiarene egia ulertu dut berriro: «ekintzak sortzen du pentsaera».

Halaz ere badakigu adimenarene hazkundea eta sendimenarene elkarri datxizkola; eta eskolak, bertako txiki guzien zerbitzutan, konfiantza, adiskidetasun- eta askatasun-giroa sortu behar duela, bizi-oldarra eta sormena lagunduz.

Lilitegian haur-bizitzarene aldi berezi bikain bat dugu geure gain. Hiru urte duelarik, lehenengo krisialdia da, eta haurra bere nortasunaz jabetzen da; eta zazpi duelarik, hirugarren haurtzaroan sartzen da. Tarte horretan haurrak aldakuntza handia jasaten du. Ezari-ezarian pentsakera nahasi taxugabe batetik, pentsakera analitiko taxutzaile batera igarotzen da; pertzepzio sinkretiko batetik, pertzepzio sintetiko batera; eta sendimen laxo ego-zale berekoi batetik, animismoz kutsatutako sendikera bizi batera, doinu, kera, eta aberastasunen emale.

Lau/sei urte duen haurra, nahiz ikermena eta adi-

mena erabiltzen jakin, ez da guztiz askatu menderaturik zedukan sendimenetik eta honen aztarnetatik. «*Begiratu egiten du, bilatu eta ohartu egiten du, baina ikerketa hori josia dago irudiz eta barne-zauskadaz; ideia-elkar-ketak egiten ditu, bai, baina horiek zauskada batetik irudipen batera jauzi egiten, hitz batetik zarrara batera, hitzetik oroitzapenera, eta gero honetatik berriz ere hitz batera; haurraren ekintzak bidea galtzen du bildurren, itxaropenen eta burutazio iheskorren arabera*». «*Bere izakiaren elemendu guzien nahasketa osoan eta muga-gabetasun guztizkoan datza haren aberastasuna: barne-bizitza eragiten duten indarrak oro ezin berezirik agertzen bait dira harengan. Eta bizi-oldar horretatik abiatu beharra dago. Haur ttikiaren oldea hazi beharra dago, eta bere gisara hedatzera utzi; eta geroko gizonaren pentsa-gai eta izakera-oihal bihurtuko da*». (H. Sourgen).

Sendimenaren nagusitasun honek bere buruaren eta fameliaren ezagupideak zabaltzen ditu praktikaren eta sendimenaren mailan. Horretxek emango digu gero haurra ezagutzeko gakoa (ahalik eta bereziena kaso bakoitzean) eta horrela jokatzuz gure jarraipidea honela muga daiteke:

— *haur bakoitzarengan dagoena baliatu behar da, eta honetarako banan-banan ezagutu behar dira haurrak, denen barne-hedadura neurtzen ikasiz;*

— *harentzako bizia moldatuz, maila guztietan frogabide eta ekinbide anitz prestatuz, bilaketak idarokiz, haurraren aukerak oro hedatzen eta zabaltzen saiatu behar da, haur bakoitzaren jokabide pertsonala zuzenduz batetik, baina baita, bestetik, denon gizartekuntza bultzatuz;*

— denengan piztu behar dira, azkenik, piskanaka eta estropozorik gabe, *lanegiteko ohitura, ekintza ordenatuaren nahia, zehaztasunaren eta taxuaren gogo*a, hauek izango bait zaizkio laguntza bikain geroko eskolan. Freinet-en hitz ederrak gogoratuz, beraz, «*lanaren heziketa*» jalgi-arazi behar da, denengandik nekea baztertzeko, eta saiaketa bakoitzean bururaino joaten laguntzeko. Norberaren *zohidura* edo heldutasuna bultzatuko dugu horrela, baita *gizarte-egokikuntza* ere. Lilitegietan maiz agertu ohi diren bi muturretako tentazioak baztertu behar dira. Alde batetik, haurkeriaren joera, alegia, haurrek ahal duten mailan baino beherago atxikitzea; eta, bestetik, *sobera bortxatzea*, erakatsi-nahiak eta haurren gurasoen ezin-egonak eraginik. Egiatzko lizifrina-gíroa jarri behar dugu nagusi eta, Montessori-ren xederuntz joanez, «*oldezko lana hedarazi behar da, haur-nortasuna taxutzen eta mugarik gabeko hedabidea eskaintzen gauza den lan-mota hori hain zuzen*».

Andereñoa

Erakutsi dugun jokabide horrek, geure burura biltzera behartzen gaitu, eta ondoko hau gogotan hartzera: geu garela, heziketa-giroan, sortu behar den adar nagusia eta aparta.

Jakina, haurren maitasuna eta lanbidearekiko amodioa ez zaizkigu ziplo, behingoz, betirako lilittegira edo eskolara sartzen garen une berean ematen. Egonarri luzea behar dugu horretarako.

Poliki-poliki umotu behar da gugan. Eta umo dadin hau guzia behar da: haurra hezteko eta eskolatzeko desira, noski; baina baita haurtzaroarekiko errespetua, eta biziari buruzko umiltasuna eta liluramena batez ere, Decroly, Maria Montessori, Ferrière eta Freinet-en ekarriaren balioaren gakoa.

Eguneroko esperentzian sortutako ezaguera du ho-

rrek habe nagusitzat: diren bezala ikusi behar dira haurrak, haren oldezko joerekin, familia- eta gizarte-giroak kutsatu dien nortasun-motarekin. Haurren konfiantza irabazi behar da, eta haien eta gure artean *segurantzia eta elkartasun giroa* lortu behar da, egunen batez beren buruz jabe daitezen laguntzeko. Oso piskanaka ezagu dezakegu, hain zuzen, bakoitzaren ondoan egonez, eta ez tarrapataka, noraino den bizia ugaria eta desberdina, noraino diren anitzak nork bere buruaren eta munduaren kontzientzia hartzera daramaten bideak, noraino *behar den haur bakoitzaren abiada errespetatu*. Halaz ere, eta hauxe zailena, eragin egin behar zaie barneko oldeak mami daitezen; eta materiaren eragozpenak gaindituz, behar bezala joka eta egin dezaten.

Piskanaka-piskanaka erreparatuko dugu denek daramatela beren golkoan *familia-eredu* edo amets berezi bana. Jean Marc-ek, esate baterako, izutia denez, xamurki begiratzen ditu neskak, seme bakarra izanaz sufritzen duelako; Jean Marc-ek, hain zuzen, «arreatxo bat» nahi zukean eta! Jean Luc-ek, berriz, harroxko eta bildurgarri, ama bigunegi batek hazia, adiskidetasun gogor baten beharra du; eta gaisorik dagoelarik «Jojo lagunarekin» egiten du amets.

Horrela ikasiko dugu, era berean, Martine-ren giltzarria. Aspaldisko honetan zoko batetan paratzen da pentsakor, eta gure ingurutik itzul-inguru bitxi batzuk egiten; zeren-eta anaiatxo bat izan-berri bait du, eta honek amaren maitagunea, lehenago beretzako osoki bildurik, orain kendu egin bait dio.

Bernard ikusiko dugu, mekanikak liluraturik; baina makila bat hartu, eta jolas-lekuko hondarrean behin eta

berriz hiru zaldi eder marratzen ari, gero eta hobeki emanak; eta bere karneteko orrietan beretan gero eta xehetasunez eta norkiz beteagoak.

André-ren marrazki-ingurraztia begiratzuz jakingo dugu, era berean, jadanik telebista-zale amorratua dela André; eta gaur bertan osoki miresten duela Thierry La Fronde, eta hau, bai jazkeran bai keinuetan xehetasun harrigarritz horniturik orrialde bakoitzean ageri dela.

Jaiotza hunkigarriak ezagutuko ditugu. Claude-z orozten naiz orain, hain luzaroan txirotasunean eta isiltasunean zeharo bildua, eta bat-batean, neguko arratsalde batez, margo batekin nigana etorriarik deslotua eta jaregina. Irudi hartan zuhaitz orrigabeak ageri ziren, more eta ilun; baina tarte batetan bazegoen, argi eta bozkario izpi gisa, tatxa argitsu bat. Denok batera begiratu dugu margo hau, eta denok miretsi. Eta denok ahobatez esan: «Claude-ren zuhaitzak dira denetan ederrinak». Eta Claudek irribarre egin du. Eta handik aurrera, egunetik egunera, konfiantza hartu du, segurantzia irabazi; eta, halako batez, bere kabuz eta inoren laguntzarik gabe, bere gutun-kideari idatzi dio. Beste batean, bestalde, buztina moldatzen zuelarik, Mozart txistu egiten harrapatu dut.

Horrelako Claude-ak denok ezagutuko ditugu geure erakastaroan, baita Elisabeth-ak ere. Hau poloniar nekazarien alaba zen: beti mozkorrak, ez ziren berak haurrez ezertarako oroitzen, ezpada lusagarrezko, azazko edo hezurrezko salda bat prestatzerakoan, edo-ta... familia-alokazioak koberatzeko! Elisabeth eta honen ahizpak beti zikin eta narratx iritsi ohi ziren eskolara, eta ozta-ozta zekiten hitzegiten.

Egun guzian barrena Elisabeth higitu egiten zen bere aulkian, mahaina botatzen zuen, pintatzen ari zen paper-orria zulatzen, eta margokiz bere eskolakideak zikintzen. Besteek bultzatu egiten zuten, edo bazterrean uzten. Egonarri, samurtasun eta eskola gaitzak behar izan ditugu haur hura biltzeko eta guganatzeko. Hamaika saio egin dugu alferrik. Gero piztu da esperantza. Azkenean Elisabeth-ek bere etxean atxeman du bere burua, eta bere ametsak margotzen hasi da: amak margotu ditu erruz: batzuk soineko loresurekin, beste batzuk txapel bitxirekin; beste batzutan zuhaitzak margotu ditu, zeruan zut; eta bestetan, azkenik, txori koloretzuak, hegoak zabalik. Trebeago bihurtu dira haurra-
ren keinuak, eta hizketa argiago. Eskola-lanekiko gogo-
goa ere orduantxe agertu da: inprimatzen, idazten eta
kondatzen hasi da Elisabeth. Eten gabe mogitzeari, aulki
batetan bakarrik egoteari, edo aterpeko xoko hartan
gelditzeari utzi dio. Gainerako neskatilak bezalako
bihurtu da; sortzeko, asmatzeko, jostatzeko, dantza-egi-
teko eta farregiteko beti zorutzen. Besterik ere ikasi-
ko dugu: alegia, haurrak aurrera joko badu, *garaitza-
pen-kutsua* behar duela; baina ez gutxiago *egiazko era-
gile* izatea. Haurra sentikorrago dagoenean; hau da,
ekintzan hasten denean (marragintzan, idazketan, ira-
kurketan edo karkuluan) apalki uste genuen baino as-
koz ere aurrerago eraman dezake.

Irakur-idazketaren hastapenak

Zugandik urruti dagoen eta maite duzun pertsona baten berri izan-nahia nola izan daitekean irakurketaren eta idazketaren eragile, ederki azaldu du alemaniar erakasle batek:

«Pierre-ren aita bidaian joan da; eta Pierre amarekin buruz buru jostatzen da jangelan. Bapatean lapitz bat hartu, eta zamau-ertz batetan zirrimaratzen hasi da. Korrika hara ama, eta errita egin dio, erasiatu. «Baina Amatxo —esan du Pierrek— aitari idazten ari nintzaion». Nola nahi lukean haren berri izan!».

«Idatzitako gauzen aldeko» gogoia, bestetik, gure munduko inguruneak berak piztutzen die: kartel, alunzio, kaseta, panel eta abar. Bospasei urtekoen taldeetan, elkarren berri izateko gogoia eta jakin-mina baliatzen ditugu, eta gure txikiak oldezko izkribuen eta es-

kolarteko gutunen bidez abiatzen dira irakurtzen eta idazten.

Lehenago sortzen da, bestalde, idazteko gogoia irakurtzekoa baino; eta gutuneri-nahiak eta hazteko gogoak dakarte hura. Hizketa mintzatutik hizketa idatzira igarotzea, hau kopia hutsa den artean bederen, aisa egin ohi da.

Nekezago eta luzeago izan ohi da *irakur-idazketa-ren gakoaren ulertzea*. Lilitegietan ez da hau gure sailtako baten fruitua baizik, baina *berezko irakurpideak* dakar ederkienik.

Berek «kondatu» dituzten bizi-pasadizuei, oharrei eta sendimenduei dagozkien izkribuak irakurtzen dituzte haurrek. Kopiatu egiten dituzte, inprimatu eta, goiz edo berant, berek aurkitzen dute halako batez beren buruz, itxurari eta soinuari dagokienez dauden berdintasunak, hitz desberdinetan dauden letrak eta silabak.

Banako aldagaitz horiek idoro ondoren, aurkikunde horretaz baliatzen dira hitz berriak somatzeko eta moldatzeko.

Abiaburuan izkribua oso laburra da (batzutan zenbait hitz bakan), eta beti orokorra, dena baterakoa; eta analisisa eta sintesia, azterketa eta osaketa beraz, esaldi osoari buruz egiten dira, hitzak banan-banan irakurriz eta idatziz, hitzetan dena zatituz. *Haseratik, beraz, esaldiaren analisisa eta sintesia egiten dira*, hitzak bilatuz, hitzen letrak gero; eta, idazterakoan, letra hauek banan-banan hartuz eta inprimakinean taxutuz.

Honi buruz ere, egonarria behar dugu izan geure

haurrak adimen-umotasuna baino azkarrago ez joanez. Batzuk besteak baino bizkorrago dira, eta oso fite aurkitzen dituzte hitzen arteko antzak: «To! Aita eta Aitor berdin hasten dira!». Kontutan har ditzagun ohar horiek, jakina; baina itxaron dezagun haur-talde oso batek, nork bere buruz, egin dezan. Talde hau, noski, oso al-dakorra da urteen arabera.

Horrela jokatzuz, taldearen aintzindari brinkoka eta jauzika ari direnak lagunduko eta bizkortuko ditugu: somatu dituzten soinuak aurkitzen gauza izango dira, hitz bakar batzuk beren gutun-kideei bidaltzen, eta geroxeago benetako «istorioak» azaltzen.

Ez ditugu, halere, saileko gainerakoak abiada horretantxe joatera behartuko; nork bere abiadurari eutsi behar bait dio, eta ez besterenari: bataren aurkikundeak ez dio besteari ezertarako balio. Freinet-ek asmatu zuen berezko irakurpidearen jatortasuna eta balioa, hain zuzen, horretantxe dautza: haurraren bizieran oinarri harturik, nori bere abiadan joateko aukera eskeintzen diola, eta andereñoak bizkortzen dituela denak, gutun-gaiak bilatuz, bilaketak lagunduz, eta kaso bakoitzaren arabera egingizunak prestatuz.

Ez gara abiatzen, beraz, nagusiek asmatutako irakurpide batetik behera letrak eta soinuak urrats-sail hestu baten bidez ezagutzera; baizik-eta *haurren beren bizia* oinarritzat hartuz goazela aurrera: goizeko elkarrizketak, edo ziplo datozen gogoetak eta margo bati buruzko solasak, hartzen ditugu mintza-gai.

«Pasadizua» andereñoak idazten du arbelean: horra hor berezko igarobidea hizketa mintzatutik hizketa idatzirakoan.

Hurrek orduan irakurri, kopiatu, apaindu eta inprimatu egiten dute. Horretarako izkribu-lerro hainbat haur-talde eratzen da. Lerro bakoitzak, horretara, moldiztegiako 24 edo 36 gorputzen lodiera kontutan hartzen baldin badugu, hitz bakar batzuk dituzte. Esate baterako:

Atzo

ene anaiak

arrantxo bat

bota du

itsasora:

eta antxeta batek

irentsi du. (Michèle)

Ariketa hau talde aldakorrek egiten dute; baina izkribuaren azterketarakoan, talde berberak bil daitezke berriro beren hartan; eta haurraren karneteian idatzi ondoren egin daiteke, edo eguneko beste memento batetan.

Karkulu bizia egiteko era eman dezake: zenbat lerro dagoen, zenbat hitz lerro bakoitzean, zenbat hutsune, eta abar. Andereñoak kontrolatuko du lerro bakoitza, eta gero hurrek jarriko dituzte zein here lekuan prentsan mahainaren gainean.

Lerroarteak ezartzen dira orduan, hurrek egindako apaingarriak linoan segidan (apaingarririk baldin badago), eta orduan tiratu egiten da.

Tirada arratsaldean egiten da eskuarki, esku-lanetarako orduan hain zuzen: haur batek tindatu egiten du beste batek orriak prentsan ezartzen, hirugarren eta



Matematika-lanean.

laugarren batek orriak lehortzen pausatzen paper normal baten gainean.

Biharamunean bildu egiten dira orriok lehortegi liburutik; eta nork berea hartzen (irakurri ondoren, bere bizi-liburuan taxutu-beharrekoa), eta gainerakoak gutunkideei igortzen. Hirugarren pardedel bat inprima daiteke, eta hau hitzen ebaketan eta kolaketan erabil. Kasu honetan etxera eraman-araz daiteke izkribua: haurrak bir-irakur dezake han, baita eskolan egin duena gurasoei erakuts.

Izkribu baten hitz horietzek baliatuz, bestalde, beste istorio batzuk molda ditzakete haurrek. Honi buruz, «egiazko ez diren pasadizuen» berri eman digu Belpenon andereak, eta gertakari mamitsu hau ezagutarazten. Hona hemen, dio, neskatala batek ustekabean kondatu didana: «Fernand-ek bere bizikletatxo gorria hausi du»; eta erantsi: «baina ez da egia, bizikleta hori berdea da-ta».

Izkribu edo esaldiaren atalketa eta osaketa ez dira, izan, berezko irakurpidearen aukera bat baizik (ikus BEM: *Berezko irakurpidea*, 8-9; eta *Irakurketa inprimakinaren bidez*, 7).

Beste gauza bat egin daiteke orri horietaz: hilero bilduma bat egin, *ikastaldearen aldizkaria* osatu, eta trukean beste eskolatara bidali.

Aldizkari hau adiskidetasunezko lotkia bat da elkar-gandik urrun dauden haurren artean. Burutazioak ekar ditzake, aurrera jotzeko zalantzatan dauden eskolak bultzatza, hasten direnentzako beharrezko txinparta gerta.

Arretaz egindako izkribuak oro bilduko ditu aldizkariak, linoz edo limografoz apaindurik, eta edertua izango da. Eguna, kasetaren zenbakia, eskolaren eta herriaren izenak, agertuko dira bertan; baita ohar hau ere: Freinet-Teknikak,... baimena; Zuzendaria...

Kideengandik errezebitutako kasetak taxutuak izango dira, eta begiratu edo irakurri nahi dituzkean haurren eskuarrean jarriak.

Eskola kidearekiko *inprimakien trukea* egin daiteke astean testo bat edo bi bidalduz. Inprimaki hauek banan aztertzen dira haseran, eta taldetan gero, haurrei nori berea etxerako emanaz, edo-ta kideen bizi-liburua osatzekotan karpeta batetara bilduak.

Gauza agiria da oihartzun handiagoak lortzen dituztela eskolan izkribu batzuek beste batzuek baino. Gorago aipatu dugun horrek, esate baterako, Brest-eko ikastalde batek Paris-ko bati bidalia, jakin-min harrigarria piztu zuen paristarrengan; hauek ez bait dituzte antxetak ezagutzen, ez nola elikatzen diren. Galdeak ekarri ditu, beraz, eta bizimodu berri harekiko jakiteko gogo bizia.

Beste alde batetik, *eskuz idatzitako gutunak* ere trukatu ohi dira, idazketarekiko gogoaren eragile.

Oraindik ere moldakaitzak diren haurrekiko, andereñoak haurraren esanera kopiatuko du, eta alderantziz ere haurrak ahalik eta ongienik andereñoarena. «Anaia txiki bat eta panpin bat ditut», «ene aita arrantzara doa», eta abar. Horra hor benetako eragile: badago horietan sendimenezko ahalegin bizia, haurrak bere burua eman nahi du aditzera.

Ikastaroan barrena, edo amaian batzutan, haur batzuek jakiten dute buruz ikasitako hitzen bidez beren buruz idazten, testoetan aurkitutakoak baliatuz, edo baita silaba eta letra ezagunezko hitzak osatuz.

Ez dut inolaz ere *marrazkien, albunen eta elkar-gutunen trukea* ahaztuko: ikastalde bakoitzaren biziak eragindako erantzunak bait dituzte; ezta *pardelen trukea* ere: bertako frutu, gozoki, haurren foto, etxetik ekarritako nolanahiko altxor, opari, haurrek berek prestatutako gauza, klasean egindako ebaketa, panpin, mo-zorro, eta abar.

Zer erasten du trukaera honek irakur-idazketaren eraginari dagokionez? Hona hemen gure lankidea den Clémentine Berteloot-ek diona:

«Kanpoaldeko bizi-arnasa da, eta uhin borobiletan barrena hedatzen da haurrarengandik at, fameliatik at, eskolatik at, hauzunetik at, hiritik beretik at ere...

Andereñoak kidekuntza hastekotan elkar-aditu duten mementotik beretik, ikastaldea ere aurkeztu behar zaizkio elkarri:

ikasleen aurkezpena: andereño bakoitzak ondoko xehetasun-zerrenda bidaliko dio besteari: haurraren izen-deitura, adina, famelia-giroa, osasuna, interes nagusiak eta aukerak. Helburua hauxe da horretan: etsigarri gerta daitekean elkarketa eragaberik ez egitea.

Batak edo besteak orduan *bidalketa-abiada* proposatzen du:

— asteen 2 edo 3 izkribu inprimaturik (batzuek bakar bat nahiago);

- denen artean egindako elkar-gutun bat;
- hamabostean behin, eman dezagun, gutun pertsonalak;
- hilean behin, gonbarazio baterako, parded bat eta eskola-egunkaria. Horra hor eskuarki hartu ohi den habaila; eta magnetofono bat duten zoriontsuei gagozkielarik, hamabostean behin 10 minutuzko banda baten trukea».

Azkeneko truke-mota honek harreman hestuagoa sortzen du haurren artean:

«Egun on, Didier; Daniel nauk» dion adiskidearen abotsa Didier-ek entzun duelarik, hura bozkarioa! Nolako lotsa, ordea, kaja beretik egunen batez abots hasarrea jalgitzen delarik: «Badakik? Maizago idazten ez badidak, ez diat besterik ezer bidaliko»; edo-ta: «saia hadi hobeki idazten, bestela beste idazkide bat hartuko diat».

Haurrak elkarri aurkeztu ondoren, galderak egingo dira, banazka edo taldeka:

- Ene aita mia-gizona duk. Eta hirea zer?
- Enea arrantzalea duk.
- Enea lantegira zia.

Eta horra hor bizizko zubiak tarteen handiaz bestalde eraikiak:

- Zer da mia-gizona?
- Zer da arrantzalea?
- Ikatzezko sutondorik baduzue?
- Nun egiten dute lo aita arrantzaleek?

— Zuhaitzik baduzue? Eta lorerik?

— Zer da mia-munoa? Zer da arrain-ontzia?

Gutunez eta albunez erantzunez, haurrak beren bizigiroaz, beren hauzuneaz, beren aitaren bizimoduaz, besteen bizimoduaz, eta abar, ohartzen dira... eta usaiako mundutik antzik ez duen beste mundu bat somatzen.

Orduan miaren liburura osatzen da, itsasoaren liburua... Gurasoek pozik hartzen dute parte, eta bi lan-munduren arteko lotura bihurtzen da haurra. Nolako bihotz-zarrazta anaikorra miako aita batek argitara ekarritako «harri-koxkor loratua»ren trukerakoan; eta nolakoa ere, itzuletara, itsaso betean aita arrantzaleak ontzira bildutako txirla bixia hartzerakoan! Zenbat kondagarri pardelak pisatzean, postatzean, Eguberriko arbola edergailuz betetzean; txapelak, mozorroak, herrialdeko gozokiak, Iparreko gaufreak, bretoin «crêpe» delakoak, Provenza-ko belarritxoak, eta abar, bidaltzerakoan»...

Eskolarteko kidekuntza honek, batzutan, koroatzat *haurren beren trukea* izan dezake: ikastaldeak elkar-gandik hurbil direnean, baina gizaro desberdinetakoak direlarik (kaleko eskola bat eta mendiko bat, eman dezagun) idazkitzaz sortutako bihotz-katea sendotu egiten da, eta emankor egiten.

Beste etsenplu bat bi ikastalde handiren artean: bata Brest-en (J. Rosmorduc), bestea Paris-en (F. Pouliquen).

Paristar hurrek uxok hazten zituzten beren esko

lan; eta brestar haurrei azaldu diete errutea, txitaldia eta usakumeen jaiotza. Halako batez Brest-eko andereñoa Paris-a etorri zenean, paristar haurrek usakumea eskeini diote Bretaña-ko kideei. Brestarren poza! Berehala laketu zen han txoritxo, eta famelian bezala bizi zen klasean! Izen bat jarri zitzaion: Perlatxo. Arretaz elikatu; eta egunero batek edo bestek entsalada hosto bat, bihia, sagarrak, eta abar, ekartzen. Christian-ek kantuak asmatu zituan harentzako, eta kideak jakinaren gainean daude usakumeen biziaz eta gora beherez: «lumak ditu gero eta handiago», «mokoan lore bat paseatzen da», «mainatu egiten da», «ikasgelako landareak mokokatzen ditu».

Paristarrek beren aldetik galderak egiten dituzte, hazkurritarako aholkuak ematen, kaiolaren tamainaz xehetasunak ematen, eta abar.

Halako batez, neskabila batek lagun bat ekarri dio Perlatxori: nolako poza paristarren artean lagun bat badauela jakitean! Paris-ek indargarri batzuk bidali ditu usoak errun dezan (eta honek, halere, ez bide du nahi!).

Bakantzen ondoren, azkenik, lokarri bihurtzen da etorri-berrien eta lehenagokoen artean; eta lehenengo mailako eskolara igaro direnak, bertara datoz osoa ikusterat.

Eskolarteko idazkitzak, bestalde, karkulu bizia erabiltzeko aukera eman ohi du mahiz: usakumearen hazkundera, esate baterako, ondo-ondotik jarraitu dute paristar haurrek brestarrek bidalitako berriei esker:

— Otsailaren 8 — gure usakumea jai.

— Otsailaren 15 — baditu lumak.

— Otsailaren 18 — kabiatic irten da.

Hazkunde azkar honek *gonbarazioak* piztutzen ditu, anai-arrebak askoz ere polikiago hazten ari bait dira: «Hara! Jean François baino aguroago hazten da beraz usakumea!» Jean François horrek zazpi hilabete du, ibili ez dabil oraindik, eta ez daki bere buruz ohetik ir-teten. Eten gabe behar du bere amaren laguntza.

«Ene ahizpatxoa —dio Marie Noëlek— esku emanda hasi da ibiltzen. Urtebetea du orain».

Eta Hélène-k: «Didier-ek 15 hilabete du, eta bada-ki bere buruz ibiltzen». 7 hilabete, urtebete, 15 hilabe-te: adin bakoitzari hazkunde-maila bat dagokio; eta haurrak, beren ikusiak alderatuz, fenomenoaz jabetzen dira. Urrun gaude hemen zenbaketa mekanikotik, bu-ruz birresandako lumero-lerrokada amaigabeetatik (as-kotan, zoritxarrez, gurasoek harro-harro entzunak).

Bizi-ikusuntu honen bidez aztertu ditugu, era be-rean, *karkuluaren hastapenak*.

Karkuluaren hastapena

Eguneroko geure oharrek erakasten digutenez, batetik haurraren biologi-umodura; eta bestetik bera bizi den izadi-, famelia-, eta gizarte-giroak, dituen kezkek eta jokoek, oldezko eta eragindako oharrek, bere lanek eta sorkariek, zenbakiaren kontzientzia pratiko bat izatera daramate.

Bere gorputzak berak ere aniztasunaren ideia idarokitzen dio haurrari, paretasunarena, simetriarena. Bere mogidek, eta gauza hil eta biziak harremanek, piskanaka piskanaka espazioaren ideia ematen diote. Egunaren eta gauaren segida ez ote da, funtsean, berrietasunaren eta periodo-ideiaren gakoa?

Haurtxoarengan ideia horiek nahi bezain nahasiak izanik ere, guztiz inguratzen eta bustitzen dute haren biziera osoa.

Sena batzuek, bestalde, bildumaren alde eta sorta-ketaren alde bultzatzen dute: jabego-senak, sorta-nahiak, berriztapen-amodioak, errepara-gogoak, taxu-beharrak. Haurraren, gizon arkaikoaren bezala, zenbatu behar gorria dago.

Halaz ere, herri arkaikoez bestaldera, gaurko haurra sinboloz eta sinuz jositako mundu batetan bizi da lehenengo haurtzarotik. Paretetan, kotxeen habaila-kananetan, erlojuetan, egutegietan, etxeetan eta dendetan, matematikazko sinuak dira ageri. Amarekin joaten da erosketak egitera, habaila-nahia piztutuz dioten kotxealdietara, zinemetara; eta parte hartzen du irrati eta telebista-saioretan. Nahiz honetan guzian oso maila apaleko informazioa bildu, goiztarregi, eta nortua baino haurraren izanari eta adimenari iratxekeiagoa, kontutan hartu behar dugu. Den bezala hartu behar da haurra; eta eskolatik at ere aitortu behar da, askotan erabiliak dituela haurrak zenbakiak, nahiz gehienetan zenbaki horien zenbatasunaz osoki jabeturik ez izan.

Badakigu lilittegiko haurrarentzat logika huts eta hontzeko arrazoinek ez dutela pisurik; eta alde aurretik ekintzan ezagutu behar dituela matematikazko ideiak, gero barnatuz joateko.

Bizpahiru urte duenez gerotik, horrela, *gauzez baliatzeko* gauza da edo gauza-mordoez. Geroxeago, gauzak *taxutzeko eta banatzeko* gauza izango da. Hondarra, ura, inguratzen duten beste gauza anitz erabiliz, piskanaka ordenua eta arrimua ezartzen ditu oinarri zindetan, eta lotkiak eta sokak aurkitzen: zenbatasunaren eta zenbakien aurkikundearen lehenengo urratsa da, erabilketaren aurrekoa.

Geroago *gauzak erabiltzen* ikasiko du, eta aurkikunde honekin batera agertuko zaio zenbakiaren ideia. Baina beti ere bizituak eta abiatutako ekintzak izango dira ezagutzaren oinarriak. Zeren-eta bai logikan bai matematiketan, jokaerazkoak dira oinarriak eta saiaketaren frutua.

Bizi-esperentziaren arabera hazten du haurrak bere adimen-egitura; eta adimen-, egia-, eta matematika-egituren arteko dialektika ez litzake behin ere eten behar. Ordenadoreetan bezala, *egiak mugatzen eta behartzen ditu problemak berak, eta adimen-abiaburuak geure esperentziarik arruntenean behar ditugu finkatu*. Abiaburu horiek ideien lotura eta matematikaren arrazoinbidea finkatu behar dituzte: egoeren kontzientzia hartu behar da, egoerez jabetu behar da, eta hauen parte diren banakoak eta loturak ulertu, dena aztertuz, problema askatzeko egin behar dena agertuz; eta biziera-egoera horiek haurrek berek asmatzetik bertago, eta interesgarriagoak dira.

Ikastalde handi bateko haurrek, esate baterako, ki-deek bidalitako errekaliz poto keta ikusita, ikasgelako alasa batetan jaki-denda bat prestatzea erabaki zuten; eta, horri buruz, berek eta andereñoak ekarritako kaja mordo bat taxutu zuten; eta salgaiak ez zituzten ekaia-
ren edo izanaren arabera banatu, salgai horien prezioen arabera baizik (diruaren gorabeherak interesgarriago zaizkie, hitz batez). Areago bide horretatik; zeren-eta salgai baten txanponen bidez sal-neurria zehazki ezin jakitera, ez bait zuten hura taxutzen.

Haur normalak oro, beraz, badu munduaren ulerkera berezi bat, eta hau ikaspide gerta dakioke.

Hona hemen Freinet-ek diona:

«Haurrari matematika sistemakiro ez azaltzera, ideiarik ere izango ez duela esatea ez da egia. Lehenengo haurtzarotik beretik karkulatzten du haurrak; begi-zitzaz baina herrenkadan gauzak, pisuak eta handierak haur batek alde ratzen dituelarik, karkulatu egiten du; eta gauza bera harri koxkor bat urrutirago edo bertago jaurtitzen duelarik, frutuak biltzen, edo suila bat urez betetzen. Sinetsi egin behar da inork ez duela zenbatzen, pisatzen edo neuritzen ikasiko, haurraren orde. Haurrak berak ikasi behar du, eta ezin dezake saiakuntzaz eta ariketaz baizik egin».

Berezko eraginaz gain, beraz, hemen dugu heziketa berri guzien ideia nagusi bat: haurrak, hazi ala, badiuela bere buruan bere langaiak eta tresnak erabiltzeko eta zeharo ulertzeko dohainak; baina baldintza bat betez gero bakarrik: ikas-giroan saiaketa anitz egin badezake, eta saiaketa horien azterketa beti bere buruz, eta kanpotik inork horretara behartu gabe, egin ahal izatea.

Uste dugun baino gehiago dira saiaketa horiek: horretaz jabetzeko aski da gure ttikiak begiratzen eta aditzen jakitea. Berriz ere, Clémentine Bertéloot-en etsenplu batzuk ekarriko ditut honera:

«Didier-ek, hiru urte, oraintxe izan du anaiatxo bat. Eta goizean hau kondatu du: «Dominique txikia da, txiki-txikia. Haren burua oso txikia da, oso oso, honen tamainakoa» (ukabil hetsia hurbilduz). Hantxe kabituko litzake itxuraz; badirudi espazio-

-neurri hartaz benetan jabetu nahi lukeala. Gero, orri batetan, bere ama, aita eta anaia marratzen ditu, eta hau erasten: «Begira honera: hau guzia gara orain» (ez du «lau»rik esan). Eta ekiten: «Orain bigarren ohe bat izango dut». Andereñoak: «Zergatik bigarren bat?» Didier-ek: «Enea anaia-rentzako da, eta nik orain beste bat izango dut... Bi dira, beraz». Eta erasten: «Ikastaldean bagara 2 Didier, 2 Eric, 2 Brigitte».

«Bi» zenbakia, horretara, mamitu egin da; bizieran barrena bizitu diren elementoak mamitzen diren bezala.

Hélène-k, 3 urte, hau dio: «Ene amonak txitak ditu». Eta zaharrago den Béatrice ahizpak, 4 urte, honela errepikatzen: «etorri baino lehenago ikusi ditugu». Hélène-k berriz: «Bai. Asko dago! Bete-bete!».

Andereñoak: «Horrenbesteraino? Zenbat?». Eta Béatricek: «Hau haina». Eta behatzak erakusten ditu, eta eskuari so neurtzen saiatzen; gero bere bost behatzak bildu, eta esan: «Hauetxek hainbat!». Andereñoak: «Bost, hortaz».

Thérèse kondatzen ari: «Neure etxen baditut nik 5 katakume eta katu handi bat». Andereñoak: «Bost katakume!». Thérèse-k: «Bai». Eta bere behatzak banatu ondoren, gelditu, eskua begiratu, eta honela dio: «Hau-xe guzia, bai, esku osoa, eta horrez gain handi bat».

Lehendabiziko elurtearekin, gertakari gaitza. Haurrak zoraturik: «Andereño! Erruz dago! Ez da?».

— Gure patioan, honeraino zegoen (txonkatilaraino).

— Gure lorategiko zoko batetan, honeraino (eta be-
laun koskorra erakusten).

Txonkatilaren eta belaunaren arabera neurtzen du-
te elurketa; puxtarrien jokoan, behatza da neurria, edo
eskua. Gure miagizonek ez ahal dute bada esaten: haz-
-beteko egur bat, edo bi behatzetakoa; eta luzerak
neurtu nahi dituen langileak berebat: istape edo urrats
bat, bi istape, hiru istape.

Osagilearen ikustamena itxaron beharko, eta hau-
rren neurketa aski izango da metroaren eroaldia nagu-
si dakien.

Azkeneko elurtekoan beti, nork bere elur-bola eka-
rri dute ikas-gelara:

— Dany-rena da handiena.

Eta nik galde:

— Zein da astunena?

— Dany-rena.

— Nola jakin ordea astunena dela?

— Pisatuz.

Balantza-azpiletan ezarri dituzte bi bolak Sylvie-k
eta Dany-k. Dany-rena behera, astunena beraz. Sylvie-
-rena arinagoa da. Astunago, arinago: ideia lortua da.

Andereñoak: Pisa zak orain, Dany.

Sylviek bere bola kendu azpilatik, Danyk berea utzi,
eta pisuen bidez orekatzen saiatzen da. Ez zaio axola-

rik, beraz, pisua ikastea, *orekan* biak uztea baizik; eta hori lortzeko ez du dudarik egiten bere bolaren alderdian pisuak erasteko. Azkenik horra hor bi azpilak balantzaz: «Berdinak dira orain, andereño!». Ohartua naitenez, beraz, oreka lortzeko lehendabiziko jokaera ez da pisua kenduz beherean dagoen azpila jasotzea, baizik-eta jatsi behar duen azpilan zama handitzea... Aldi batez, oreka zenbatasunetik eta pisutasunetik at lortzen da, eta helburua nola edo hala berdintzea da. Geroko aldian, pisuak ageri dira, baina hauen arteko berdintasuna ez zaie ageri. Luzaroan oreka-nahi harrigarri bitxian kokatuko dira, pisu-berdintasunaren ideia bururatu gabe. Baina Daniel-ek halako batez, 5 urte eta 3 hilabete, 100 gramotako pisu batek 50 gr. bi berdintzen dituela aurkitu du».

Hona hemen Clémentinek kondatua duen beste gertakari bat:

«Michel-ek 23 kotxe ditu, eta badaki Panhard-ak, laisterketakoak, 2 CV-ak, eta abar, zenbatzen. Eskolara eraman ditu:

—Konda ditzagun. —Eta Jacky-k:

—Handiak eta txikiak zenbatuko ditugu: 6 txiki, eta pardel handi batetan, handi batzuk, zenbatu beharrekoak hain zuzen.

—Hamarna —dio Michelek—. Hona 10; eta hemen beste 7, egiten bait du 17.

—Eta denak batera? —Maryvonek galde. Denak harriturik.

— Hamarna bil ditzagun —dio Michelek—. Guztira hamarreko bi, eta beste 3 (Inprimeri-orriak 5-na zenbatzen ohitu dira haurrak, eta gero 10-na). Gero Michel-ek: «badira laisterketako berebilak, badira 4 CV-ak, Panhard-ak. Tira, beraz. Jar ditzagun elkarrekin marka berekoak: bost laisterketako, bi Panhard, 4 CV bat, 203 bat, 404 bat, Berliet bat, eta abar.

Mordo bakoitzean kotxe-ketari dagokion lumeroa idatzi dute kartoitxo batetan.

Gero horra hor Jacky koloreen arabera taxutu nahian: 6 urdin, 4 berde, 4 gorri, 3 hori, 1 arre, 1 gorrika.

Eta Sylvie-k oharrarazten: «Berdeak eta gorriak pa-rean. Gauza bera horiak eta laranjak».

Eta horrek galdera hau egitera eraman nau:

— Auto-keta berbera dagoen kolorea, zein? Zein koloretan gehienik? Zeinetan gutxienik?

Ariketaren ondoan, nor bere gisa azaldu du gehienik harritu duena: ebaketaz, tintaz, boligrafoz, igel-tsoz.

Batzuek marken arabera bildu dituzte, beste batzuek koloreen arabera.

Batzuek txikiak, beste batzuek handiak, eta beti ere lumero bat markatuz.

Gainerako arazoetan bezala, *pratika-heziketa* bultza

dezakegu, haurren beharrak eta interesak ekintzaren eragileztat erabiliz.

Gure hurrekin bizitzen baldin badakigu, eta begi berriz begiratzen; beti ere ernai, kopeta-zabal eta jakin-min baldin bagaude, berehala konturatuko gara denean bila dezakeala matematika-jokabideak bere iturria:

- *jokoak*: eraikiera, kantu, hondarretan edo uretan;
- *dantzak*: binaka, hirunaka, errondan, herrenkadan jartzekoak;
- *zenbaketak*: aritmetikan ugari;
- *ritmikan*: gorputza errimotara egokitu beharra;
- *sorkuntza mota guziak*: marrazkitza, margotza, ebaketa, moldakuntza.

Denetan aurkitzen ditugu aldaketa-erritmoak, itxuren eta koloreen oreka eta balantza; esku-lan bati buruzko prestaera (berintza, oihalgintza, gauzen moldaera: ontzi, panpin, marioneta, txori). Horretan guztian badago matematika-gintza. Berina eutsi behar da, oihalpuskak finkatu, ontziaren haga nagusia atxiki, panpinen balantza bilatu, txoriaren hegoak tamainan egin, marionetak eskuarrean jarri.

- *etxeko lana*: taxuketa da, eta ordenuaren ideia hozi-arazten du;
- *baratzako lanak eta gela-barnekoak*: landatzeak, ereintzak, landareen hazkundearen arreta, landareen goratasunen alderaketa;
- *eguneroko oharketak* topatutako gauza-mordotan: haurren beren gorputzak aurrenik, fameliak gero,



Esku-lanean.

bizilekuak eta gelak, etxeak eta estaiak, ikastaldeak eta gainerakoak: neskak eta mutilak, eman dezagun, bertan daudenak eta ez daudenak. Jolastokia eta zuhaitzak, eskolako gelak. Jane Rosmorduc-en hurrei, esate baterako, eskolako plano bat egiteko eskatu zaie; bestela, amak beti karrajoetan barrena galdurik, beren haurren bila aurrerakoan ibil ez zitezen.

Haurrek berek aurkitu eta aukeratutako neurri baten arabera hartu ziren izariak oro (karrajoak, ikas-gelak). Hauek batetik bestera kurritzeko urratsak zenbatuz, hauxe erreparatu zuten haurrek aurrenik: berdinak zirela. Geroago beste hau: lehenengo hiruak elkarren segidan zeudela, eta beste biak karrajoaz bestaldera. Orri-puska berdinen bidez iduritu zituzten, eta zeini bere marka jarri: handiena, erdikoena, txikiena. Lekurik aski ez zuten ordea jolas-gela planoaren muturrean ezartzeko; eta orduan burutazio bat izan zuten: berriz dena hasi, paper-puska txikiagoak hautatu, eta horrela ederki burutu zuten beren lana, horretarako zentzua ez besterik erabiliz, eta, nolana ere, beren bizieratik ateko ezelako neurririk hartu gabe.

Ikas-ibilaldi batez, era berean, enparantzan jarri-berria zen ur-xirripa berriari so gertatu ziren, eta denen miresgarria izan zen hura. Udaletxeko arduradunari ura «zeruraino» jaso zezan eskatu zioten. Zenbat ur dago urmalean? Ito ote daiteke bertan? Langileak emandako barnea (50 cm) eskolan norberaren gainean «aurkitu» zuten, horretarako oihalezko metroak baliatuz: Jacques-ek, horretara, iztarretaraino zeukakean, Michèle-k hanketaraino, baina andereñoak belaun-koskorraino bakarrik.

Kideentzako bidalketak, egutegiaren taxuketa, ego-

leen eta lekorekoen zenbaketa, taldetan edo denak batera bildurik, irakur-gaien inprimaketa: horra hor eguneroko karkulu-bide batzuk.

Baita urtemugak berak gerta daitezke taxuketa-iturri: jateko tresnen jarrera, kandelen prestaera (baita hatsaz estaltzea!), dena gerta daiteke karkulu-bide; eta problema egiazko ere bai: kandelen erosketa, pastelaren gertaera (eta honetarako behar diren pisaketak).

Utzi egin behar dira haurrak, halere, problema horiek, edo aurkez dakizkiekeanak, beren buruz garbitzera eta askatzera, egoeraren azterketa bultzatuz, eta erabilitako azterpideak libro utziz. Esate baterako: gaur gure taldeko hiru haurrek sei urteak betetzen dituzte.

Urtemuga-kari, gozokiak prestatuko ditugu eta kandelak erosiko. Zenbat gozoki prestatu beharko? Eta, zenbat kandela?

Hiru haurroi dagozkien hiru gozokiak neurtzen erraza izan da.

Kandelaketa, berriz, zailago gertatzen, baina karkulabideak ulertzekotan aberatsago eta argitsuago.

Eskuzko eta somazko ekintzaren bidez askatuko dute haurrek problema hori:

Kandela-keta karkulatzeko, batzuek marratu egingo dute (beste batzuek ebakiko). Paul-en pastelarentzako 6 kandelak, gero Marie-rentzako 6-ak, eta gero François-entzako 6-ak. Kondua orduan hiru eratara egin daiteke:

- zenbaketaz: aritmetikaren zenbakiez zenbatuz;
- behatzen arabera: $6+6+6$ eta $5+5+5+3$ gauza bera dira: edo $10+5+3$;
- 6-tako hiru pilo eratuz, biderketa-bidea aurkituko dugu.

Haur bakoitzak bere buruz eta modura askatuko du problema; eta erabilitako karkulabideak eta ondorioak alderatuz, beste gertaeratan erabil ahal izango dituzten bideak ikusiko dituzte denek.

Hizkuntza eta oharketa

Beste bi eginkizun nagusi dira lilitegian haurren ohiko elkarrizketa eta oharketa.

Hizkuntzaren bidez sartzen da haurra nagusien gizartean. Gizadiaren ezagugarria bera da hain zuzen agerpide eta mintzabide funtsezko hau. Lilitegian da goelarik, berariazko ariketarik gabe onduko du tresna nagusi hori: *elkarrekin bizitzeagatik beragatik, andereñoarekin eta adin bereko haurrekin ibiltzeagatik*, haurra bizi dugun giroarengatik beragatik, badu etengabe hizkuntza osatzeko eragilerik.

Hona hemen gure jarraipidea eta gure eginbeharra: nolana hiko joko eta lanetan, haurra hitzez bere burua aditzera eta azaltzera eraman; baina baita haren oharrak eta oroitzapenak gogoraztea, eta egungo eta aspaldiko bihotz-zirrararak; haren lanak (marrazki, margo, moldaki) solastatzea eta burutazioak markatzea; haur

bakoitzak bere txanda izan dezan, edo denentzako jakingarri dena ohartarazten elkarrizketak moldatzea; taldearen gogoia piztu, eta erantzunak jaio-araztea; haurren hitz bizisko zakarren bildur ez izatea, hitz bortitzak sendimenduen emagarria bait dira; beti lagun-
du eta bizkortzea, eta beti ere adigarri guziekiko zabaltasuna erakustea; ez inoiz ere, presakeriaz edo konfiantzarik ezaz, erantzunik edo galdera eragaberik eman.

Horrela, andereñoak haurren pasadizuetan kondaira, oharketa, interespidea, eztabaida-iturria, eta bilatu-nahia iratzartzen baldin badaki, haurrek parte hartzen duten benetako elkarrizketak lortuko ditu.

Hona hemen, etsenplutzat, haur haundien sail batean, Anne-Françoise-ren aita itsasoratzean entzun zen elkarrizketa:

* * *

Anne-Françoise-ren aita itsas-ontziko ofiziala da. eta honen partidak, beren giroko izaki eta gauzekiko haurrek duten onginahi berezko eta beroa eragile, urruntzearen kontzientzia piztu du ikastalde honetako haurrengan, eta ibilbide berriak badaudela erakutsi:

— Nola iritsiko zaizkio Anne Françoise-ri aitaren gutunak?

— Antxetek ekarriko dituzte beren hegoetan?

— Eta, uretara eror badaitez, busti egingo dira, eta irakur ezinak jarriko.

— Uraren azpitik joango ote dira beharbada?

— Bai zera! Karramarroak eta arrainak jango lituzkete!

- Nik badakit nola: Anne-Françoise-ren aita itsas-ondoko eskaileraraino etorriko da, eta an postariei emango.
- Haren ontzia, ordea, ez dago kaian, itsaso-betean baiziki!
- Hortaz, beste ontzi batek joan beharko du Anne-Françoise-ren aitaren ontziraino, han gutunak hartu eta Brest-eraino ekartzeko.
- Bai horixe! Clémenceau hegazkin-ontziak! Hegazkinez aguroago etorriko dira gutunak!

Elkarrizketa horietan barrena aisa oso lortuko du gu hizkuntzaren akatsak zuzentzea, gaizki erabilitako hitzak zuzenki zehaztutzea, hitz ez-ezagunen bidez (edo gutxi gora-behera ezagunen bidez) haurren hiztegia ugaltzea, olerkiak erastea, kantuz eta pasadizuz hornitzea, biziera-gai horiek, hitz batez, aberastea, trinkotzea eta zabaltzea, eta horrela gure haurren hizkuntza findu eta haztea.

O. Salvat-ek emango digu eskolarteko trukaeraren bidez lortutako ariketa aurreraxeago.

* * *

Ahozko agertzapen horretan jaiotako jokoak, ederki osa, aberats eta zehatz dezakete hizkuntzaren ikaspen hori, oldezko agermenaren mugatzaile bait dira; eta hau oso inportantea da irakurtzeko eta karkulatze-ko ikastaldietan.

Hizkuntzak bihurtzen duen denbora-taxuketa hori, *«denboraren mementoen kontzientzia hori, iraunaren isuriarena —dio Malrieu Apezpikuak— zibilizazioen*

arabera aldatzen da, eta sinetsi ezinezko aberaspena ekar dezake. Sorkundea ere bada (eta ez iraute hutsa): kausaz gain, ondorio ere bada batera».

Gure biziera modernoak, azkar, aldakor, egunean mila herbestetzaren ekarle, haurren denbora-kontzientzia hori lortzen laguntzen du.

Guk lagundu egin dezakegu.

Alde batetik, denbora-oharketari buruzko ariketen bidez, egutegia oinarri; eta, bestetik, haurraren inguruko munduaren azterketaren bidez, eta bere inguruan isurtzen den biziaren kontzientziaren bidez. Hau horrela memento batetik bestera aldatzen da. Beti bezala haurrarendandik abiatzen gara, eta hau aurkitzen dugu: bizi den inguramenduaz, logikaz eta adimen-bidez baino, bere buruz, eta oharmen eta sendimen bidez hartzen duela kontzientzia. Beraren eta gauzen artean lortzen den ongi-nahiaren eta adiskidantzaren bitartez konaturatzen da ondoko munduaz.

Begi onez hartuko dugun oldezko oharketa horretatik abiatuko gara, hortaz, nahiz hori mugatua edo garrantzigabea izan: ikas-gelan barrena zomorro bat hegaz, buruen gaintetik argi izpi bat, andereñoak edo haurrek ekarritako abereak, lorategiko altzoetan aurkitutako marraskiloak, sorta bat egitekotan bildu dituzuen loreak, izadiko gertakarien azterketa: haizea, hodeiak, ekaitza, elurra... Bestetan ondoko gauzak edo izaki-multzooak baliatuz, oharketa luzeago eta sakonagoak hartuko ditugu oinarri: lorategia eta honen loreak, kaia, kallea, etxeko abereak, kanpoan eta barruan bizi diren txoriak, gurasoen lanbidea, kideen lanak eta bizimodua, eta hauen ingurunea (ikus O. Salvat-en azalpena), etxe-

ko solasak; eta , beti ere, goizero haurrak heltzean dakazkiten biziera-gaiak eta hauen mamia den oharketa. Egunerero ariketak eta lanak, haietatik abiatu-rik, eta geronek prestatu dukegun giro egokian, mamituko dira.

«Gure biziera-gaiak —dio C. Berteloot-ek— biziarekin batera doaz... Miako neure txikiekin, leizazulo zikineko erpinean, lore zuriez zoratu naiz. Belardiko usain karmina hatsartuz, udaberria aditu dut. Mia-munoko mazelak nabartzen zituen ezul-belar iharrez poztu naiz, eta zakartegian bertan beren burua erakusten duten biolak gozatu ditut. Hurrekin eta hurren bidez, miaren xarma ulertu dut.

— Andereño: bart ene ama bildurrak egon da, aita berandu etxera zelako. Orduz kanpo lanegin zuen.

— Harri batek ene aita zauritu du, eta gaur eritegian dago.

— Mia-munotik behera lerratzen diren harri-koxkorek nardatu egiten naute.

— Andereño: ene aita silikosiak hartua da.

— Nolako mauka atzo! Tarta jan dugu!

* * *

Horra hor haurra bere pozekin eta penekin, bizi den giroak sakonki markaturik. Desordenu bat haurraren gan sortu gabe ezin daiteke bazter giro hori. Gure ariketak horrela, eguneroko abiadari eta biziari egokituko zaizkio.

Udazkena batzutan sartu da gugana: hiru larrosa gorri ederren bidez; eta hurrek gogoz betetsi dute horien ederraren ederra...

Batere bortxatu gabe, horrela, Lorca-ren Larrosa-ren olerkiez jabetuko dira, beroietan larrosaren edertasuna bait da olerki-gaia; eta askoz beranduago arte ez dute esaldi bitxi honen edo haren mamia galdetuko.

Goizean jaio, eta egun zoro baten ondoan arratsean hila den «bere larrosa»ren kondaira azalduko digu Marie Paule-k.

Eta larrosaren kondaira dantzatuko da.

Musika aukeratu, eta nork bere gisara dantzegin-go du.

Larrosaren kondaira denen kondaira bihurtuko da, eta albur bat osatuko da haren bidez.

Geroago, azaroko ekaitzak heldu direlarik, orri ihar-tuen eskaintza egingo da egunero:

«Goibelen, lokatzen eta hotzen hilabetea,
lanoen hilabetea;
hilabete itun eta malenkoniatsua,
unaduraren eta higuinarena».

Gutartean, miagileen jaia den Santa Barbarak zabal-tzen du miaren gaia; alegia, gizonen lanbidea. Eta gero, urte-bukaera aldean, Eguberri heldu, eta dakazkien itxa-ropenak; eta Urtarrila, erregeekin eta opariekin; otsai-la, kruspetekin eta mozorroekin; eta martxoa gero, eta dagozkion udaberri-zantzu izkutuak... Orduantxe datoz Izadiaren hausnarketak, landareen eta alimaleen bizi-egertzearen ikertzapena; eta, bukatzeko, udarako itxa-feroa.

* * *

Ezer harrigarririk banaketa horretan?

— Ezta deusik ere itxuraz!

— Tradiziozko ikasguetan egiten ez zenik ezertxo ere —esan dukete batzuek.

— Halaxe da itxuraz: horretan ez dago bizieraren isuri isilaz besterik deus.

Eskola Modernoan, ordea, bere horretan atxikitzen dugu bizi hori; zabaltzen, hedatzen eta laguntzen dugu; eta beharra gertatzekotan zauriak zaintzen. Gurean, esate baterako, Bazko aurretixek hain zuzen, udaberriaren zantzua edonun senti zelarik, Louison eta Thomas-en aitak hil dira.

Istant batez dena gelditu da. Haurren begirada argitsuan hesturaren itzala agertu da. Urrundu egin behar izan da; haurrak hartaz mintzatzeko lagunduz, eta horrela hesi hartatik jareginez. Eta bakoitzak gogoeta egin du isilik ...miaz, miagilearen bizimoduaz eta arriskuez... joana zen udaberria, eta biziaren gaia piztu.

Udazkenaren gaia era klasikoan azaltzen da gaur ere: orbela, hosto iharrak, soro-lanak. Gure leihotik laborantzako lurraldeak ikusten ditugu, eta erremolatxak zamatutako gurdiak eten gabe igarotzen dira. Ezin hauei ez-ikusia egitea.

Arte horretan, postariak lehenengo truke-pardela ekarri du; eta honetan Rodanoa, ontziak eta arrantza aipatzen dira.

Horra hor ariketen zabalera! Zer egingo? Haurrak

denari atxikitzen zaizkio; eta jaidura bat aipatzea ahaztu dut: har, armiarma, kusku eta zokozorriekiko duen jakin-mina. Nola gintezke gertakari batzuekiko sor izan, eta bakar batez ardura! Hautatu beharrez, beraz, hona zer dugun:

- *ontziak*: kideei egin dakizkiekean galderak, jasoko diren erantzunak, eta denaren bildumak.
- *Rodanoa*: BT delakoa azaltzen hasi natzaie.
- *Arrantza*: Arrantzaleen semeek xehetasunak bilduko dituzte beren aitengandik;
- *harrak eta armiarmak*, eta abar: xoko batetan ezarri ditugu, eta egunero begiratzen eta ikertzen, udazkeneko bizierara edozein gertakari xumek gakazkiela.

Horrela gertatzen dira urtezaroen ariketak: urte-sasoinak berak dirauen artean eguneroko oharketaren ondorio gisa; gure biziaren azken funtsa bezalaxe, egia aitortzeko, tarteka gertaera apal batek edo menturatxo batek zatitua eta ebakia; denak garrantzigabeak, funsgabeak, jakina, baina beharrezkoak, zeren-eta hauek gabe, gaueko erlojuaren tik-tak delakoa gelditzean bezalaxe, oreka eta barne-bakea galtzen bait dugu, loegileak ustekabeko isiltasunean galdu ohi duen legez.

* * *

Ba ahal dago gure ikastaldeetan ariketari dagokion elkar-lanik?

Noski. Badaude antzerki-jokoak, alburak, eskolako kaseta, elkarrekiko bilaketa, gutunentzako dato-bilketa, eta abar.

Hauetan guztietan nork bere partea du, eta lanari elkarte-balio handia erantsiz.

Baina ikasleek eta andereñoak elkar-laguntza burutzen duten lan guziaz gain, lan pertsonalak ere bada dira, nork bere gisan eginak, eta hauetan ez dago nagusien inolako nahasterik, ez eskolakideen laguntzarik: oldezo sorkundearen lore dira, frutu urrezkoren emale den haurraren barne izkutuan galanki hozituak.

Ez dezagun sekula galeraz eta traba olde hori, ezta asmorik onenak eraginik ere. Joka beza haurrak lasai bizi-gaitzat hautatu duen bere bidetik. Ez dezagun bor-txa, prestatzen lagundu ez duen ariketa baten barrena.

C. Berteloot anderea.

Erakaslearen betekizuna

Haurraren hazi-beharrari dagokion heziketa funtzional hau bultzatzeko, andereñoaren laguntza behar da, beti zuhur baina erne. Beti harrera ona egiten duen begitartea behar da, aukeratzen dakien bitartekoa, igotzen laguntzen duen eskua, gidatzen duen izpiritua; ezen haurrak igaro behar bait du aditutako horretatik asmatutakora, eta alderantziz ere asmatutakotik egiazkora eta obratzera. Igaro-behar horretan lagundu behar dugu etengabe, analisitik sintesira eta sintesitik analisisa gertatzen den aldaera etengabea errespetatuz. Era berean, haur bakoitzak bere ahalmenak eta dohainak neur ahal izango dituen giro aberats lagungarria sortzen jakin behar da. Lehen-lehenik *ahalmen fisikoak*: jolas-lekuak prestatu behar dira, dantza-saioak, errondak eta antzerkiak;

haurraren sormena bigarrenik: gure ttikien esku-lanak; bereziki, heziketa-laguntzaile aparta gertatzen di-

ra: marrazkien eta margokien prestaera, gauzakien sortzea, tapizeria, berineria, eta abar.

Langintza hori guztia ez da inundik ere behatzen mogimenduen eskolatzaille hutsa. Adimena ere hezten du, munduaren ezaguera eta *nortasunaren bai espina* ematen ditu-ta. Haurraren sormen-adar guztiak jaregiten edo libratzen ditu, baita azalmenak oro, eta horrekin batera haren dohainen neurria ematen dio, gainerako saiaketa moldagabe guztietan bezala. Bi urte duten haurtxoek, horrela, ezelako laguntzarik gabe, fameliaren kondaira egiten dute lehenengo aldiz, beren buruen aurkikundea eta beren dohainen neurria. Aski dugu horretarako giro egoki oparoa sortzen jakitea.

Asmatu egin beharko dira, eta *etendurarik gabe erabiltzeko eran moldatu*, nolana hiko ekintzarentzako lekutxo apropos bat. Hasteko, berezko ekaiak baliatuz: lurra, ura, hondarra, hirurak aurkibide ezagun eta norberaren bai espina-iturri: «gure iaiotasunaren eta indarren izana bera» ematen digutelako (Bachelard).

Lurra: burruka-ekaia aurrenik, baina baita nork bere burua agertzeko bidea ere (moldagintzan).

Hondarra: hastapenean behatzen artetik itzurtzen; baina piskanaka ontzi desberdinak bete, eta hustu behar direnez geroztik neurriaren eta alderaketaren idarokitzaille.

Ura: zauskada hozkirrien poz beteen ekarle, bai; baina baita neurriaren saiaketena. Koloreztaturik eta margoki bihurturik zentzumen-atseginen tresna bilaka daiteke, eta gero azalpide.

Berezko ekai horiei, hauek erantsiko dizkiegu:

— *eraikikuntzarentzako zur-pusketak*: Etxeak, gara-jeak, dorreak, ontziak, eraikitzeo pusketak. Oihal ba-ten gainean pilaturik, haurrak eserita erabiliko ditu, edo zutik, edo belaueniko bestela. Panpinen gelan: honetan oheak egin eta desegin egingo ditu, soinekoak taxutu eta txukundu, eta jostailu erabilgarrien bidez etxeak giroaren antzeko bat sortuko. Aita eta ama idurituko dira aisa, baita horien *lanak* ere: azanarioak karrakatu, mahaina jarri, urtemugak ospatu, baxera egin, mahain-zapiak edo zamauak garbitu eta lisatu. Haur koskorren artean, zoko hau brikola-leku bihurtuko da. Honetan, eta edozein gauza edo hondakin oinarritzat harturik (egur-puska, soka, iltze, atrile, zapi, burdin-hari, eta abar) hurrek jostailu harrigarriak prestatuko dituzte: ontzi, ama-panpin, txori, trein, hegazkin, eta beste; de-nak xarmangarri eta sortzeko ahalmen gaitzaren le-kuko;

— *arbelak eta igeltsoak*, zirrimarrak eta tamaina handiko marrazkiak egiteko;

— *arte-igeltsoak, Crayocolor-ak eta margotza*: lehen-dabiziko zirriborroak piskanaka marrazki eta margoki bihurtuko dira;

— *kolorezko paperak*, ebaki eta kolatzeko.

Haurrak koloreekin beren buruz jostatzerantz utziko di-tugu (mordo ugari bat emanaz, eta libro) hastapenetik itxura berezien bilaketara behartu gabe.

Koloreen aukeraketan bertan ageri da norberaren nortasuna. Alferrik da pintzelak edo igeltsoak nola har-

tu behar diren erakastea: beren buruz ikasiko dute haurrek saiakuntzaren bidez. Zetak, itxurak eta marrak rola gerta, eta nori bere emana eskatuz lagunduko dugu haurraren nortasuna.

Haurrak hurbildik ikertzea; taxuketa asmatu eta idarokitzea, erakastea, bultzatzea eta onar-araztea: horra gure betekizuna. Haurtxo ttipia sail honetan, handienek eta aurreratuenek erakartzen dituzte gainerakoak. Horrengatik 2/4 urtetarako haurrak daduzkaten taldeak hobeak izaten dira eskuarki 2/3 urtekoak daduzkatenak baino.

Egiten ari diren betebeharretan haurrek benetan eta gogoz parte hartzea da funtsezkoena, baita andereñoak haur bakoitzaren bizitzan parte hartzea ere.


Haur koskorrentzako eta handientzako, berriz, ekaiak espresabide edo agerpide bat dira batez ere, eta ez zaie haurrei *teknikarik* ematen, beharra nabaitzen badute baino: alegia, monotipoaren, zinkaren, tapizgintzaren eta beringintzaren teknikak. Hauetako anitz, bestalde, haurrek berek *atxeman* ditzakete beren buruz.

* * *

Hona hemen, «L'Eduteur» delakotik bildua, Cl. Berteloot-ek zertara biltzen dituen orrialde gutxitan agermen-teknika batzuk:

edozer baino lehenago ikus dezagun —dio harek— leku-zabalera handirik gabe haur askorekin erabil daitezkean teknika errazak:

a) *zurezko lapitz bigunak*: eskuartean dituzketzun paperetan marrazki ugarien oinarri;



Irakurketa-lanean.

b) *koloretako lapitzak edo arkatzak*: maiz linogra-
bakién oinarri, margokietan atze-giro landuen presta-
tzaile;

d) Canson-Ingres paperen gainean erabiltzen diren
basezpelezko ikatz artetsuak (paper-margotu, eta abar).
Iraunkorrago egiteko, lapitz-zorro batetan sarturik era-
biliko ditugu, horrela hauts edo artezi ez daitezén. As-
kotan, mota honetako marrazkiak dira beranduago aipa-
tuko ditudan soka-lanen oinarria.

e) *Caran d'Ache* kolore-lapitzak. Kolore-pastelek
ere, galestitxoago dena dela, oso ondorio onak eman
ohi dituzte.

f) *Artezko igeltsoek*, Canson eta Ingres papere-
tan erabili beharrak, kolaki bat behar izaten dute. Bon-
bilako kolakiak oso galestiak dira. Ilearentzako laka-lu-
rringailu edo baporizadore bat eros dezakezu, berriz
bete daitekean horietakoa; eta kolaki litro bat eros,
edo erdi bat, edo laurden bat; eta merkeago eta hobe
gertatzen da.

Margobide horiek guziak erabiltzeko, hurrek gale-
raz ezin zaitzaketen zoko bat baliatuko duzu, paperak
han ezarriz.

Erakats zaiezu hurrei, ahaztu gabe, artezko igel-
tsoa eta basezpelezko ikatza nola erabili behar diren,
besoa eta mauka marraren gainetik pasa gabe; eta le-
kua ugari dagoelarik, hobe da paperak zutik daudela-
rik lanegitea.

g) *Tinta ezabagaitzetan bustitako feldro-muturrak*.

Oso maite dituzte hurrek. Grafismoa soil gelditzen da, gero erantsiko diren koloreak, edergarri berri, itozten ez dituelarik.

Akatsak: haur asko duten ikastaldeetan berehalak higitzen dira. «Flo-Master» estiloak, tinta-potoak eta mitxak barne, 35 F balio ditu, eta kolore hainbat behar dira. Hobe da halere, ene ustez, urtean bat erostea, eta Txina-tintaz osatzea gainerakoa, honek azkenean merkeago jotzen duelako. Gauza bat gogoraziko dizut bide-nabar: *nylon* gainean erabilitako mitxek, lepo-zapien eta lanparen apaingarri gisa balio dezaketela. Hauen salerak zure diru-kutxa azkartuko du, eta «baliagarri» diren gauzak emango.

h) *Txinako tinta*

— lodiera desberdinetako «Trérid» lumak;

— pintzelak;

— aldeka ebakitako makilak;

— Bristol edo Canson;

— nekez iraul eta isur daitezkean botilatxotan, Txinako tinta;

— marra-lodiera liferentetan lor daiteke grafismoa lumaren bidez (marrazkiok, bestalde, zink-gaineko grabaketaren oinarri gisa balia daitezke). Gauza bera aldekatutako makilak.

— marrantetan erabil dezakezu ere mitxa, eta haurrak erruz koloreztuko du txina-tintaz bere marrakia. Couché-paperetan ari bazara lanean, «glacé» delakoan, barniz-kutsu ederra lortuko duzu. Paper arruntetan, paper bastotan alegia, hauek txina-tinta xurgatzen duelako, labado-plegu polita lortuko duzu...

Horretan, dena dela, erabil zazu haurren asmame-
na: ausarki nahasiko dituzte teknikak, eta harritzen
ere gaituzten ondorio harrigarriak lortuko;

i) *Paperen eta oihalen kolaketa eta ebaketa.*

Ondoko hau behar duzu:

— *mutur borobiletako goraizeak*, baina ebakitzeko
baliokoak: goraizeen erabilera zaila da, eta ongi
ebakitzen ez badute, eskutxoak aguro nardatzen
dira;

— *mota guztietako paperak*: kartelak, paper margo-
tuak, hastapenetan batez ere oihal feldro-aireak
hobe (alegia, oihal bigunaren eta paperaren ar-
tekoak);

— *kola*: presta zazu Mohican-kola pota handi bate-
tan, eta bete bitza egunero horren arta duenak
horretarako ontzitxoak: bi lagunentzako bat gu-
txienez, hau da, sei lagunentzako talde batentzako
hiru pota;

— *kola-pintzelak*: liburu-dendetan 0,15 F-na;

— *artile, raphia eta lasto-puskak*. Hauen bidez ile-
-xerloak, kalparrak eta bigoteak moldatuko dira.
Ekai hauek kolatzeko, erabil zazu «Texticroche»
delakoa, edo Limpidol-kola (tuboak 1,75 F).

Sar zazu hau guzia kaja handi batetan; eta aski
izango duzu egunero kaja hori eramatea, eta lantegi
hori zu gabe ere «ibili»ko da.

Gauza bat esaten ahaztu zait: alegia, zure kolake-
ten eta ebaketen euskarria edo moldagaia bera. Ko-
lorezko paperak, paper margotuak, kartel-paperak, kar-

toiak, eritegietako radio-fotografiako radio-paper balio-gabeak (gaizki ateraiak, eman dezagun). Bila zazu, eta aurkitu egingo duzu.

Ekintza horietarako guztietarako, ez duzu tresneria handirik behar, ezta leku zabalegirik ere.

Azter dezagun orain zabalera handiago eta tresneria osoago behar dituztenak.

Apainketaren teknikak

Albunen apainketari buruz balio dutenez mintzatu-ko natzaizu —bidenabar Txina-tinta eta mitxak gogoratu— *eskola-kasetan apainketari buruzko*ez. Hau da:

- linograbaketa,
- zuretan zulatuz lor daitekean grabaketa,
- zinkeko grabaketa,
- monotipoak.

Linograbaketa

Ekaiak: lineoa, lerrozko marrentzako eta zenbait gainaldetan zulatzeko gubiak, zura.

Txikiei gagozkienez —bospasei urte— hauxe da lana: zauritu gabe lineoa zulatzea. Gubiaren «saiets»etik

babestuta erabili behar da eskua: bestela harek, zultzen ari den linoan ez aski banaturik, lerratu egin daiteke, eta zauri.

Xede horretan, zurezko txaratila bat moldatu behar duzu, mahainean tinkaturik. Linoa gainaldean iltzatu, eta haurrak esku bataz gubiari heltzen dio eta besteaz txaratilari. Honela haren eskua gerizatua dago. Lana aldagabea da, eta adin horretako hurrek ongi iristen dute helburua.

Errazena hau da: lehenago haurrak lapitzaz markatu duen marrazkia, orain gubiaren bidez marrazki zuri bat lortuko duzu (ikus Florilège du journal scolaire, 16-18 orr.).

Marrazki-gaia bere hondotik edo atze-girotik gailendurik lortu nahi baldin baduzu (txori bat eman dezagun) ez zazu zeure denbora gainaldea zulatuz gal: ebaiki zazu goraizez irudiaren forma, eta egin itzazu gu-biaz txoriaren barneko xehetasunak. Zapailurik ez dutenei dagokie jokabide hau (seilu-tanpoiaren sistema).

Txori hori zurean kolatzen duzu orduan, eta seilutani-poi gisa erabil dezakezu, horrela zenbait kolore aisa lortuz.

Goraizeaz zulatutako zuhaitzean, esate baterako, aurrenik bakarrik «tanpoiturik», erraza izango da segidan beste koloretako txoriak erastea: gorri edo hori, eman dezagun.

Linoa haundiagoa baldin bada, 13,5 x 21 cm. zabalera, eta bizpahiru cm. lodi, ahal duzun bezala ma-

hainari lotua onena. Zeure limografoa edozein lekutan tinkatzen balioko dizuten galgak gomendatzen dizkizut, hauen bidez mahainetan iltzatu behar ez izatea lortuko duzulako.

Horra hor, beraz, zure linoa mahainean tinko. Orain tinkatu egiten duzu, eta xabal-xabal hedatzen duzu zeure orria (13,5 x 21). Erraza benetan! Moldeari egokitzten zaio zure orria, zapi garbi batez igurzten, eta kito.

Tanpoien sistema da ttikientzako egokiena bi koloretako tirada egiteko.

Halaz ere, irudi-gaiak ez baditu bere parteak aisa idarokitzen, zeure marrazkia arindu beharrez hustu egin beharko duzu.

Zur zulatuan grabaketa

Oso artetsua, eta linograbaketaren teknika-lerro berberetan finkatua, zur zulatuaren grabaketaz lortzen da.

Ekaia: kontraplakatua, zerra, CEL hari-ebakailua, Limpidol-kola edo zurarentzako kola bat.

Liferentzia bakar bat: marrazkia ez da linoan bezala zulatzen: hemen lerroak eta hondoak ebakiz lortzen dira; eta ezinezkoak dira, beraz, marrazki zailak. Baina kolpe batez lortutako lerro ederrek oso egokiro lortzen dute hondoan oreka. Haurrek ezin dezakete teknika hau erabil; baina haurraren lanen edergarri gerta daiteke: kasetazalean, eman dezagun, edo egitarau edo gomitata-txartel batetan. Nik dakita?

Limografoa

Eskola-kasetan erabilgarri, limografoa duzu beti ego-ki. Honen xehetasun guztiak aurki ditzakezu tresna sal- duarekin etorri ohi den txostenean.

Zink gaineko grabaketa

Zinka behar duzu, jakina (estaltzaileen hondakinak), garrazkin *muriatikoa* (drogerietan salgai); eta *barniz beltza* (sutontzi-hodiak beztutzeko erabili ohi den ber-bera erabili izan dut nik), oholak aurregitik barnizatzen ez diren ber (alegia, egun bat edo bi aurretik, aski iza- ten).

- lehendabizikorik, zeure zinka lizaar edo paper-la- tzez garbi zazu osoki, leun eta diztirante utzi arte;
- barniza zazu orduan dena beltzez;
- gutxienez lau orduz lehortzera utzi ondoren, haurrari emaiozu; eta honek puntta batez bere marrazkia zula beza (segurta zazu, dena dela, zu- latu duena, eta behar izatekotan pasa zazu puntta hori zerorrek ere);
- azpil-ondo batetan prestatua dukezun garrazkin eta urezko nahasketan, murgil zazu orduan zeu- re xafla;
- irakiten hasi da: garrazkinaren bizitasunaren ara- bera, laburkiago ala luzaroago uztazu irakitera (saioak egin beharko dituzu, eta aurkituak apun- tatu);
- Grabaketa lortu duzularik, atera zazu zeure xafla, iturrian pasa, eta barniza jauts-eraztekotan, garbi zazu gasolinaz edo petrolioz;

- Itsats ezazu zeure zinka zuzenean zuraren gainean: honen moldea ezkonduko du zehatz eta segituan. Molde hau geometrikoa ez bada, alde zurretik kola zazu zeure zink-xafla lino-puska batetan, eta hau orduan bere horretan egur baten gainean (zapailuan aisago doitu eta ajustatu ahal izateko); eta horrela zinka gorago gertaturik, aisago tinkatzen da;
- tinta zazu segidan, eta linoarekin bezala joka.

Oihal gaineko margoketa

Ekaia: salgai dauden margokiak, gesalkinaz erabili beharrekoak; pintzel malgu bat, eta oihal puskak (kretona, popelina eta nylonaren antzekoak hobe): lep-zapi, lanpara, zorro, eta beti ere garbigarri eta iraunkor direnak; nylonezkoak, diot, xanpion.

Estali behar den alderdia zabala denean (kortinak, errezelak, *CEL margokiak, super-medium delakoaren laguntzarekin*, merkatuko margokiek baino hobeki estaltzen du. Haurrak bere irudi-gaia presto dadukalarik (paperetako marrazki edo margoa), bere marrazkizunaren lerroak ematen ditu larri-larrian; baina ez du sekula hurbildik jarraitzen bere marrazkia. Berehala daki bere oihal puska handian barrena asmatzen, eta kolpe batez lortzen asmakari harrigarririk.

Beste teknika baten laguntzarekin (tanpoi eta linoa) iduri-gai bat berrizta daiteke, eta horrela oihal estapatuen plegua eman.

Monotipoak

Oso maitatua da teknika hau, neke handirik gabe eder ematen duelako nunbait.

- Ekaia: — berinezko xaflak;
— inprimeriko tintak, edo
— oliotarako margokia;
— lehorkia;
— liho-olio edo gasolina;
— honetara edo hartara aldekatutako makilak;
— inprimaldi baten ondoren xaflan gelditzen den tinta-apurra.

Lehenengo erabilkera erraza

Pasa zazu berinezko xafla baten gainetik martimuilobat. Ondoren hau egin dezakezu:

a) Orri zuri bat ezarri hartan, zapi edo martimuilogarbi batez hura ongi zapaldu, eta orri horretan marrazki bat lapitzez eman. Ken zazu horretan, eta arinki beztutako atze-giro batetan, eta honen kolore berean baina azkarkiago, lerroa agertuko da nabarmen (ikus honi buruzko lan berezia, «Art Infantin», 13, 24-25 orr.).

b) *Berinezko xaflaren beste erabilkera bat.*

Zotz batez haurrak bere marrazkia egiten du xaflan; ongi zapaldu behar du lerro-gunetik tinta aienarazteko.

Segidan orri zuri bat jar zazu xaflaren gainean, eta orduan lerro zuri bat lortuko duzu, hondoa edo atze-

-giroa ilunago delarik; eta honen arte-kutsua ez da batiere mespretxagarria. Hortik aurrera libro, eta haurrek egingo dute egitekoa.

Kolore-tatxak erants ditzakezu, bai zapi batez kolorea tarteka ken. Zeru berde oso batetan, eman dezagun, eguzkia marra dezakezu, edo neskatilla bat. Askik duzu hauen barnealdea hustutzea, eta marratu duzun eguzkiaren edo gonaren partea beste kolore batez pintzelaz prestatzea.

Edo-ta, bestela, pintzelaz beste koloretako tatxak erants. Baina honetarako tresneria apur bat behar duzu.

Barne txikiko ontzi gisakoetan (txirla handitan, gradaletan) presta zazu intxaurkada bat tinta kolore liferentetan, gasolina apur batetan gesalduaz, edo olio-margoki intxaurkada bat liho-oliotan eta lehorki tanto batetan gesalduta.

Kasu honi: ez sobera gesal, bestela, inprimetzera koan, tinta edo margokia hedatu egingo da paperean barrena, eta zure marrazkia kito.

Couché-paperean ari bazara lanean, «paper glacé» delakoan, zotza baliatuz konpon dezakezu arazoa, eta marrazkia garbi geldituz.

Canson-paperean gauza bera. Baina paper arruntean, frutua txit da desberdina, eta zure margokiak edo tintak loditasun egokia izan behar du.

Tresneria hau dutelarik (alegia, tinta edo olio-margokiak) haurrek beste modu batetara jokatzen dute;

beren xafla margotzen dute, honen hondoa lantzen, marrazkia lerrotzen, orria pausatzen eta tiratzen.

Zergatik tintarik? Zergatik olio-margokirik? (hodi-takorik, alegia).

Baliteke olio-margokiaren eros-neurria galestiago izatea, baina honen bidezko lanak aberatsago eta doitsuago dira.

Ia beti, bestalde, hiru orri tira daitezke; azkena, ia koloregabea, bai, baina mitxa-ikutu batez ondua, eta dena-dela pastel-eran utzirik ere xarmangarri. Lanak horrela ezin hobeki balia daitezke.

Albun bat, esate baterako, teknika honen arabera edertzen baduzu, azkar bukatzen dela erreparatuko duzu, eta batera hiru ale lortzen dituzula: bat ikas-taldearentzako, beste bat kideentzako, eta beste bat zure esku gelditzen. Ez zazu ahantz haurren babesa: mantal biltzaileak, zapiak, lan-mahaina; eta, erabilaldi bakoitzaren ondoren, merkatuko zure pintzelak deterjente batetan murgilduta beti uztea.

Imajinagintza eta Eltzegintza

Lurra. — Hobe duzu zerorren eskualdean eskuratu! Garraio-gastuek askotan erruz goratzen bait dute eros-balioa.

Dena dela, gero egosiko bada, lur xehe-xehe fina eta ongi prestatua hautatu behar da.

Hobe da haurrari lur-mokor on bat ematea, eta haurrak berak molda ditzala jatorrizko formak, perlesiak jo eta preso uzten duten uso-moldagintzaren teknikak erakatea baino. Lur-xafla bat eman dakioke, bestela, honetan bere irudia marra dezan; edo uso-molde zenbait pausatuko ditu xaflaren gainean, eta erreliebe-apal bat aterako du. Alferrrik da teknika hauek erakatea: beren buruz aurkitzen dituzte haurrek. Irudi bat gotortzen edo zulatzen erakatsi behar zaie, poliki lehortzen, eta gainerako lurra zapi busti batetara biltzen. Hau erakats dakieke soilki.

Laberik gabe, eltzegintzaren itxura ingura daiteke hotz-eltzegintzarentzako barniza erabiliz. Egositako el-tzeetan ere erabil daiteke, baina kasu honetan apain-garri hutsa da.

Eltzegintza-laberik baldin badadukazu, zeure lanak egosi eta esmailatu ahal izango dituzu (CEL-ak hiru el-tze-labe jarri ditu zure aukeran. Honera idatz: CEL — BP 282, Cannes, AM).

Elte egosian pintzelaz *esmaila* hedatzean datza es-mailketa teknika erraz bat: bai koloretako esmailak (A) (ondoko salgu honetan erosgarri: Harschaw-Poulence Coiffe — BP 203, Limoges; edo Lhospied — Golfe Juan, AM):

a) tupikizko eta kobrezko osidoa (berde), kobal-tozkoa (urdin), manganesozkoa (beltz), burdinazkoa (gorri).

b) Osido horren gainean, esmail zuria, arrea edo urdinska.

Esmaila ezarri delarik, haurrak zotz landu batez edo poxpolo batez bere marrazkia lerrotzen du apaindu nahi den gainaldean; eta hori, egosaldia bukatuta, beltz, gorri, berde edo urdin agertuko da esmailezko hondoan ageri.

* * *

«Supplément Bibliothèque de Travail» (SBT) sor-tan, gidari pratiko bat aurkituko duzu: n.º 153, Cé-ra-mique et modelage. Honera eskatu otoi: CEL — BP 282, Cannes, A. M.

Tapizgintza

Badira teknika batzuk.

a) Alde batetik hau: haur-marrazki bat, bere horretan edo handiturik, edertu nahiz oihalean kopiitzea. Lerro batez mugatutako marrazkiak gainerakoak baino egokiago dira; zeren-eta marrazkiaren «puzzle»a andereñoak egiten duenez gero, haurrak parte hartzen bait du bere marrazkiaren galoi edo oihal-pusken ezarketan. Gauza da bera galoi horiek josten, batez ere kolore bereko haria erabiliz jostearen akatsa disimulatu egiten delako. «Art Infantin» delakoaren 11-12 zenb., 2 orr., ikus daiteke Caengo Haurretxe-ko oilarra.

b) Marrazkiaren araberako oihal-ebaketaren teknikak, gero haurrak berak puska horiek elkartzen dituela, beharbada etsi-araz dezake eta neka; eta, noski, zehorrek bukatu beharko diozu lana.

d) Hirugarren gertabidea hau da: hastapenetan aipatutako ebaketa-kolaketa-lekuan sortzen dena.

Emaizkiozu haurrari mota guztietako oihal-zapiak eta goraizeak; eta uztazu ekaiokin burrukan (sinetsita egon puntu honetaz gauza hunkigarriak konda zitzaizkezula Hortense Robic-ek). St. Etienne-ko Biltzarrean Didier-en tapizeria handia ikusi duenak, ezin ahantz dezake. Oroi zaitetz: juta latzezko oihal zabal bat, bi metro luze eta metro bat gutxienez zabal. Erdian gizonsko bat, aurpegia more eta arre, satineta inprimatuzko batez jantzia (haurrak berak eskuarki jantzi ohi duenaren antzekoa). Bazirudien munduko miseria guziak garraiatzen zituela berakin; eta inguru guzian, haurtzaroaren mirari, txori bat eta anitz lore, anitz, egonarriz ebakitako loretxo mordo gaitz bat, haurrak asmatutako udaberri zogarriko perlak antza.

Orduantxe ulertu nuen konfiantza eman behar zaiola haurrari, eta hau dela agerpide-teknikarik egiazoena.

Ene ikastaldeko Teresak bere alfonbra ederra egin duenean, finkatu egin da nigan uste hori.

«Tapiz bat egin nahi dut —zion— maisturu-mahaina bezain handia» (2 m.×1 m.).

Goiz osoan jarraiki zait ondotik. Ukatzeaz neka-neka eginik, amore eman behar izan nuen; eta arratsalderako harentzako ekaiak eta tresnak prestatu nituen.

Bildurrez josirik harentzako oinarria hautatzen zuela ikusi nuen, eta popelinak oihal oinarri horren gainean pausatzen. Urdin eta berde oriska batzuk kola-



Inprimatzen.

tzen hasi zenean, dar-dar ni. Beharbada ez nuen izango aski adorerik bere saioari ekin zizaion uzteko, baina, gauzak horretan, deitu egin ninduten eskolako berontziaren konpontzaileek.

Handik ordu erdi batera hara itzuli nintzen, eta tapiza amaituta zegoen: ez zen kolatzea besterik falta. Bazegoen hartan nardatzen ninduen zapi arre bat. Azpiz hiru aldiz aldatu nuen, baina hiruetan lehengoratu zuen Thérèsek; eta bere nahia argi-eta-garbi uzteko, hantxe eratziki zuen.

Azalpen hotz hauetan barrena tapiz baten jaio-uneei buruz mintzatu natzaizu; baina gutxi da zu jakinaren gainean jartzeko. *Teknika horiek oro ez dizute zuk espero duzuna emango, perlen hariketa edo beste joko baten gisa erabiltzen dituzun artean.*

Haur bakoitzak, aldiz, bere nortasunarentzako irtenbide bat (barnetik kanporakoa) antzeman behar du: trapa edo hesia altxa behar duzu; eta luzaroan bildutako bizi-uhin hori libratu.

«Bazter dezagun, otoi! —dio Freinet-ek— biziaren kontrako hilketa hori. Iraul dezagun geure jokabidea, eta utz dezagun panpin-erakasle izateko dugun joera; eta gizakume ausarten zaintzaile bilaka gaitezen».

(Psikologia sentikorraren saiakera)

Badago beste tapizgintza-mota bat, laister burutua; eta honetan datza:

Eman bekio haurrari hondo-oihal bat, behar den neurrian ebakia (fitxeroa estaltzeko kortinak egiteko

modukoa, eman dezagun); eta eman bekio ere artillezko-soka, edo raphia, edo kordela, edo-ta oihalean marrratu nahi duen «santua»rentzako zapiak.

Ez da beharrezkoa haurrari oihalean bere santu-gaia aldez aurretik marra-araztea. Bere etorriaren arabera pausatuko du kordela eta «sortuko», gero orratzez lotuko du, gero eratziki egingo du; edo, hobe, josiko.

Gauzen sorrera: egur-muturrez, kordelaz, zapiz, artilez, uhin-paperez, raphiaz, txintxetaz, iltzez, eta mailuz noski, 5-6 urtetako gure handiek poliki-poliki, eta argitasun eta edermen harrigarriaz ontziak, txoriak eta panpinak prestatu dituzte. Cl. Berteloot-enekoek «bottoinez, hariz, artilez, erloju-kozkaz, txirringa-katez, puxtarriz, txirlaz, artelazkiz, adaskaz, frutu idorrez, orbelez, eta kola gogorrez eta egur-puskaz, erreliebezko laukiak eraiki dituzte, ausardiaren aldetik gaurko margolariak berak txundituta uzteko; eta berritasunaren aldetik, nahiz ilunak izan, ezin gu lehengo lehenean uzteko modukoak».

Haurren artea

«Eskola-lantegi» horietan guztietan, agertzapena eta iduriketa, haurraren asmamena azkartzen duen bizitzagaiaren sakontzeak eutsirik eta funtsaturik, berez sortuko dira haren bihozkadetatik, eta beren biziaren araberak gauza guztiak bizi-arazteko haurrak dadukan dohain harrigarritik.

Bere iduriketak mamituz haurrak bere burua topatzen du, espazioa taxutzen, mundua aurkitzen, azaltzen eta barnatzen. Horrengatik ematen diogu geuk ere horren garrantzi handia gure artistarik ospatsuenek egiazko Artetzat hartua duten haurren arte horri.

Picassok berak bere zirto sonatuan: «Bost urtetan ditugu etorria eta jainua; gero iraun egiten dugu». Esaldi honek, ordea, haurren lanen aurrean senditzen dugun xamurtasun harriria zuzenesten du, ala gure maiseatzaileen alde laguntzen?

Ezin ote dugu ontzat eman, alderantziz, arte-gizonak beti ere eta bere bizieran guztian barrena nahimenak eutsitako ahalegin iraunkorrari esker bilatzen duela, eta «jabetzen den barne-aberaskuntzaren bitartez, hala-ko batez dena arrimu berriaren arabera taxutzen duela? Nahi horrek eusten die, hain zuzen, haren baitan giza-agermenari eta sormenari, haurraren oldez berezkoan hain gailen nabari.

Ez ote dugu aitortu behar, beraz, gizakume bakoi-tzarengan, eta artista jaio aurretik ere, badagoela funt-sean gizon estetikoa, munduan, espazioan eta denbo-ran murgildua? hiru hauen arabera bere buruaren gon-baraketan, eta bere sorkarietan bere patuaren berri hartzen ari; arte-gizona, hitz batez, gure haurtxoen lehendabiziko iduriketetan beretan nagusi eta aintzin-dari ageri bait litzan.

«Sortzapena —dio Matissek— ikuspenarekin dator. Ikustea bera sortzapena da. Artistak, lehenengo aldiz ikusiko balitu bezala begiratu behar ditu denak: alegia, ohiturak gugana dakarren desmoldea gabe; eta egune-ro aluntzioek, kasetek eta propagandak gugana sarre-ratzen duten irudi-mordoa zeharo bazterrera utzita».

Eta Matissek, egiazkoaren ikuspen kutsugabe honi buruz hartzaroan nagusi dela aitortuz, honela egiten dio: «Haurrak bagina bezala ikusi behar dugu bizi guz-tia; eta dohain honen galtzairak jatorrizko modutara (alegia, modu pertsonaletara) ezer agertzeko aukera bera kentzen digu».

Keinuaren, hitzaren, arkatzaren, pintzelaren eta ko-loreen bidez, haurrak bere barne-ikuskerara berezi hori kanporatzen du, egunero mundutik jasotzen duen bizi-

tasunean oratua. Ez du mundua gorputzeko begi soilez begiratzen; baina batera gorputzeko, bihotzeko eta ari-mako begiez. Haien betespenean osoki sarturik, gure hurrek ez dute beren bizia batetik, eta inguruko gauzen eta izakiena bestetik berezten.

Munduan paratzeko modu hori, funtsean dinamika huts, errealitate osoa biltzen du berriro, eta bizitzaz, berotasunez, mogimenduz eta xamurtasunez betetzen.

«Ezen sortzea —beti Matisse mintzo— geure barruan dadukaguna azaltzea bait da. Sortzapen-ahaleginak oro, egiazkoak direlarik, barnakuntza dira. Sendimena elikatu egin behar da, halere; eta kanpotik hartzen ditugun hazkurriez lortzen da hori. Arte-lana oparoa izan dedin, eta barne-dardara eta Izadiaren ekarriei dagokien edertasun ditzirante berbera izan ditzan, amodio handia behar da, egiarunzko ahalegin etengabea mamitzeko eta iraun-arazteko nahi-ta-ezkoa den maitasuna; eta edozer arte-lanen jaiotzan behar diren esku-zabaltasuna eta xinpletasuna.

Maitasun handi horri buruz, ordea, izakia bere buruz bestalderaino daraman bizitza-olde horri buruz, gure haur bakoitzak badaduka bere barruan, hain zuzen ere, iturri berbera, fresko, agortu-ezin, oparo, geroago bilduko, trabatuko eta zirtzilduko duten ertzei eta era-gozpenei buruz axolakabe eta nasai.

Haurraren arte-saiaketak eta egiazkoaren bilketa

Biziaz eta sortuaz batera, gure hurrek piskanaka-piskanaka aurkitzen dituzte beren agermena eta beren sormena. Pozik gertatzen dira eta, itxuraz bederen bortxarik gabe, helburuak barnean daraman oldeaz loturarik gabe jabetzen.

Hiru urtetako haur horrek, osoki kolorearen atseginari jalkia, zetaz eta marraz bete du orrialdea. Lehenengo begiradan badirudi ustekabean bezala heldu dela dena, aldez aurretikako lerroketarik gabe, karkulurik gabe. Izpirituak bere nahia mamitu baino lehenago ere, gcrputzaren berezko mogidak agintzen du. Baina andereñoak ia zertsu margotu duen galdetzen badu, haurrak, instant batez gogoeta egin ondoren, honela erantzungo du: «Ene ama da. Horra hor haren begiak, haren sudurra... Hara! Orain haren ahoa ari naiz egiten».

Egunetik egunera, zirriborrotatik arrakastatara eta saiotatik azalpenetara, barne-zirraraz elikatu den oldezkic oharketa haiek, piskanaka piskanaka hastapenetako nahaste-borrasterik irten, eta oso maiz eman ohi dituzte olerki-zituak, keinuzko, hitzezko edo itxurazko asmakariak. Hauek sendimen beroaren kanporaketa dira; eta sendimena, berebat, pentsamen taxutzailerak horretaratzen du, iduriketarako gai eginez.

«Andereño, gaur goizean lana eztaioihaletan agertu da. Ezkontzera zihoan».

«Andereño: so-egizu, haizea dagoelarik, orriek, erortzean, txoriarena egiten dute». Haurra errealitatean ari da sartzen, eta elkarrizketa etengabe horretan itxurajarioa dator, bere ahalmenen neurtzaile eta saiaketa-emale.

Haurraren sortzapen-bide hau marrazkian, kantuan, keinuan eta hizketan mamitzen da; eta poz sakona eta «arnasa hartzeko zorion nabarmena» ematen ditu. Hots, hauetan aurkitu uste zuen Bachelard-ek «olerkiaren molde ximple, berezko eta arkaikoa, arte-gurari eta metafisika-arrasto guztietatik at».

Haurra olerkari

Gure haurren olermena, nahiz landugabea izan, nagusien olermenaren ezpal berekoa da, eta indar berbera du. Esnatzeko eta idarokitzeko gaitasun berbera.

«Aleen, eskuen eta hitzen joko hori; pozezko sua irazekitzen da, eta bihotzak oro bero».

Sustrai sakon berbera, «sendimenaren bizi-egitura berebean» finkatua.

Kosmoa eta izakiak ikusteko modu berbera: bero, bizi, sentibera, anaikor; baita giza-kera goratzeko ere:

«Orriak bezala urreztatu diren neure eskuez
joan naiz,
eta goizean neure eskuoz
egun-on esan diot inori.
Eguerdian berak pausatu egiten dira,

eta eguzkitan jostatzen,
lurrean barrena dantzatzen den itzal beltza
[emanez:
baina arratsean galdu egiten ditut neure es-
[kuok
eta biharamun arte ez ditut berriz aurkitzen».

Dominiquek, 6 urte

Hitz-dinamika berbera, berba eta irudi jario berbera, hitz berriak asmatzeko behar berbera, hitzak harri-garriro ezkontzeko nahikunde berbera, metafora berriak asmatzeko, soinutasun berritan gozatzeko, eta zoragarrian murgiltzeko premia berbera:

«Neure igeltxoia jarri dut
berriz haren errekan,
igel bat kantari.
Itsasoan ari, bail!»

Eric-ek, 5 urte 7 hilabete

«Badoa zaldia laroinka
udaberriko gauean,
pozik doa lauhazka.
Berdea da osoki, eta begia zuri».

Claude-k, 5 urte, 3 hilabete

(Egindako marrazki bati buruzko solasa)

Freskotasun, umore eta fantesia berbera hitzen eta Irudien isurian, nahiz hauek batzutan gertaera xumek iciarokiak izan:

«Mariak badu oilar basati bat,
eta Jeanne-ren alorrera joan da.

Bide luzean barrena
bilatzen ari da Maria,
eta gero bide txigorrean.
Larrean oinutsik
pasean zihoan hura lasai.
korrika korrika zihoan,
ko, ko, ko, ko,
horra hor bera oilategira bihurtu.
Mariak haren lumak laztantzen ditu,
eta igandea itxaroten».

Joel-ek, 5 urte

(St. Cado, H. Robic-en ikastaldekoa)

Olerkiaren errealitatearen antzera, haurrena ere errealitate zabalago batetan sar daiteke: alegia, bizidunen mundukoan, eguneroko bizierakoan:

«Horra hor Cambrésis-ko treintxo.

Langileak daramazki

miara eta lantegira.

Txuk, txuk! Azkar, azkar!

Tira! Fitetzago!

Etxen dirurik ez.

Egunero markatu behar sartzean,

eta horrela asteak eta asteak,

udazkena, udaberria, negua, uda.

Azkar beti! Aurrera!

Etxen dirurik ez.

Egunero, egunero, egunero,

batzuk eguerdian joan ohi dira,

beste batzuk gauean,

eta egunero,

baita euria ari duenean,

baita elurra ari duenean,

baita kaskabarra denean ere,
egunero,
ostegunetan ere bai,
egunero,
zenbait aldiz baita igandean ere;
jo zazue, sirenok,
jira gurpilak,
karraskan gruak,
zarataka burdinak,
eta hi, ke hori, has hadi kurubilka,
arrasta hadi teilatu beltzetan,
eta zuek, hautsok,
hazkura eman zazue begi nekatuetan;
txistu egizue bai, sirenok,
tira, tira, aurrera!
Etxen dirurik ez».

(Escaudin-go lilitegian)

J. Martinoli-ren ikastaldean, 4/6 urte.

Olerkariak argi bereziaz argitzen du mundua: hain zuzen ere, bere barne-argitasunaz. Haren emanak hizkuntza izan nahi du, mezu, seinale, mugarri, kultura-bide; eta instant guztietan ekintzak, gogoetak eta ametsak, piztua eta akuilatua, kontzientziak haina in-kontzienteak sortua.

Haurraren, ordea, ez dago inolako bilaketarik. Haren sendikerak berak ezartzen du bapatean olerkarien munduaren muinean:

«Amak baietza eman dit:

marinela izango naiz.

Hobe marinela:

arrantza egin daiteke.

Bakar-bakarrik
ondoratzen ez den ontzi batetan
joango naiz itsasora,
Itsasandi Dantzarina
deritzake agian.
Marinela izan nahi dut.
Ontzibidea ezagutzen dut,
salbagailu bat,
itsasoko txapel bat,
eskalaproin pare bat,
xira hori bat
eta moto bat ere izango ditut.
Marinela izango naiz.
Oena da marinela.
Nork esan dit, ordea, horrelakorik?
Neronek dakit».

Bernard-ek, 5 urte.

St. Cado-ko Lilitegian.

H. Robic-en ikastaldean.

Haurren animismoak; alegia, bere iduriaren eta bere bizi-alaitasunaren habailaren arabera mundua moldatzeko haurren ahalmenak, gauza guztiak koloreztatzen ditu beren barneko bizia bezalaxe.

Alegiazkoaren eta egiazkoaren arteko mugak ezeztatuz, sormena emendatzen du erruz, honen bideak zabaltzen eta indar-ustea azkartzen.

Haurrari mundua irekitzean, animismoak geroni ere ikusarazten digu:

«Ene ahuntz hori,
ene aingeru hori,

ene mendi,
ene Eguberri-izai,
ene eguzki,
ene sorgin,
ene zuhaitz,
ene txoritxo,
ene idibihotz,
ene uxakume,
ene urrezko orri,
ene enara,
ene irribarre aratz,
ene urrezko koilare,
ene larretxori,
ene ihilora,
ene begi ditzitari,
ene krabelin hori:
Amatxo: maite zaitut».

*(Elkar-olerkia, Walincourt-eko
lilitegian, 4/6 urte).*

Olerki honen abiaburua mutil baten hitz lerro bat izan zen: andereñoa agurtzean hau esan zion goiz-has-tean: «Egun on, ene aingeru hori».

F.G. Lorca-rekin sinetsiko dugu, beraz, «guk uste baino ulertzenago duela haurrak. Erretolikak eta iduri-mien nahasleak sartzerik ez dadukaten olerki-munduan dago haurra. Gugandik urrun oso, sormen-fedea du haurrak osorik, eta adimen kondatzailearen hazirik ez da hara heldu. Errugabea da, eta hortaz zuhurra eta jakintsua.

Guk baino hobeki ezagutzen du olerki-gaiaren ekai ezin azalduzkoa».

Haurtzaroko lagun gisa geure burua aurkeztuz, nagusi garen aldetikako geure logikabidea uzten dugu alde batera, eta bete-betean sartzen haurraren sortzapenaren jokoan, liluramena azkartzeko eta laguntzeko hain zuzen; lilurarik gabe olerki-girorik ez bait dago. Biziak duen berezkoena jasoz, haurrak harreman xuxenagotan paratzen da kosmoari buruz, eta guk geuk ere begi berriez mundua ikusten saiatzen.

Olerkiak ematen digun askatasun-mezuari fidaturik, geure haurren bilaketari beti harrera onez eta begitar-te atseginez erantzuten saiatuko gara. Olerki-erritmoen iturburua den oparotasun horri eusten ahaleginduko gara, idorokundeak, esperentziak, saiaketak, zauskadak eta abar, denen artean paratuz eta partekatuz; eta honen bidez ideia bat finkatuko dugu haurrengan: *«bizi diren eta sortzen ari diren segurantzi-ustea»*.

Aisa uler dezakegu, horretara, olerkariari eta artistari bezala, haurrari ere olerki-lanak ez zaizkiola, Rilke-ren hitzez esateko, «sendimendu huts, saiakuntza, esperentzi eta bizi-gun baizik».

Saiakuntzak, eskuaren menturak ekaiari itxura aldatzen diotelarik, beraren gainaldean barrena ibilki; saiakuntzak ere hitzekin eta esaldiekin, era berean, izpirituaren taxumen eta adimen saiakuntza eta mentura gertatzen delarik.

Ze olerkigintza hau ez da joko huts eta eragabe, baina langintza oso eta benetako: haurraren ahalmen guztiek, sentensorialek, mogitzaileek edo irudimenezkoek ez-ezik, adimen eta sendimen ahalmenek, izpirituak eta bihotzak ere parte hartzen bait dute.

Horretaz sinetsita egoteko, aski da haurraren mo-
giden eta keinuen irmotasuna begiratzea: bai marra-
tzen ari denean, bai pintatzen, dantzegiten edo mode-
latzen ari. Betets bitez, lana bukatu artean, begitar-
tearen argitasuna eta arretaren handia; ikus nola anto-
latzen duen bere espazioa, nola konpontzen dituen be-
re hutseginak xehetasunen erasteaz, nola ezkontzen di-
tuen bere asmamena eta bere umorea, bere barne-ko-
lorea bera paperera eta buztinera bihurtuz.

Nork jar lezake zalantzan, eta zergatik, horren bero
hartutako eta aukeratutako lana, barnearen lekukotasun
fina gertatzea?

Bere barne-zirrarak azalduz, beroiek ez-ezik bere bu-
rua ere gainditzen du orduan haurrak, eta bozkarioan
beharrek eragindako betetasuna heltzen. *Gizon eta be-
re buruaren jabe* bihurtu ez-ezik, bere pertzepzioetan
barrena abiatu ez-ezik, bere liluretan, bere xamurtasu-
netan, bere penetan, bere ametsetan eta bere idoro-
kundeetan barrena joan ez-ezik, *besteei ere* so-egiteko
gauza bilakatzen da, besteen munduan sartzeko, eta el-
karrizketaz eta trukaeraz bere burua aberastutzeko.

Haurra, horrela, bere eginen bitartez osatzen da.
Horietan hautatuz, bere burua hautatzen du; hauetan
asmatuz, bere burua asmatzen du. Elkarrizketaren bi-
dez, bere burua gainditzen du; eta oreka, arrimu, giza-
-elkarketa, eta artea bera den munduaren gaindikun-
tzaren aldera jotzen.

Elkarrekiko haur-arte mota batzuri buruz

Azter ditzagun oraintxe haurren Arte honek har ditzakean elkar-molde batzuk: alburnak, antzerkiak eta dantzak.

ALBUNAK

Hona hemen bospasei urtetako haurren ikastaldean nola azaldu digun M. Belperron-ek alburnen jaiotza:

«Haurrekin batera alburnak egitea berekin azkarki bidez da. Nik neuk bederen zerbaitetan atseginik hartuko badut, parte izan behar dut ekintzan; eta atseginago zait alburn bat prestatzea, ikuskai, partida edo filma batetara joatea baino.

Alburnen sortzerakoan jaidura horixe ez bada, gogo-
giro horren antzekoa bederen behar da, eta horrela

okasioak baliatu eta haurren atsegina senditzeko. Berehala jakin behar da ohartzeko.

Oldezko agermenaren teknikan ohitua den ikastalde batetan, albutarako erak ez dira eskas; eta oharkabeen edo nagikiarengatik pasatzera utziko bazenitu, berehala gogoraziko lizukete haurrek.

Anitz albut egin daiteke: ikastaldearen irudia diren albutak, edo haurrenak (bai denak baterakoak, bai bantz-banako pertsonalak). Igaz albut keta gaitza egin dugu. Hona hemen izenpuru nagusiak: Ene arreatxoa, Haizea, Orbela, Bébert-en arrainak, Michel-en arrain gorriak, Dantza, Jean Pierre Balearetara, Urteberri osasun on, Philippe-ren astotxoa, Elurra, Ostera bat parkean barrena, Jocelyne-ren katuaren kondaira.

Albut batzuk luzeak dira, edo luze jotzen dute: «Ene Arreatxoa», esate baterako. Albut honetan haurtxo gorri-gorri horren gorabeherak markatzen dira, neskatila polit bihurtu arte. Beste batzuk, «Urteberri osasun on» delakoa, esate baterako, hasitako egun berean bukatzen da.

Igaz egindako bi albutnez mintzatuko naiz bereziki:

— Denen artekoa bata, «Urteberri osasun on».

— Pertsonala bestea, «Jocelyneren katuaren kondaira».

* * *



Esku lanak.

Urteberri on!

Urtatsez, haur guztiak etorri zitzaizkidan gauza bera esatera: «Urte Berri on, Andereño; eta osasun on».

— Urteberri on, bai, Urteberri on denoi! Baina zer adierazten du horrek? Zer da urtea? —erantzun nien irribarrez.

Batek ere ez zekien xuxenki erantzuten.

— Urteberria delako esaten da, eta opariak izaten direlako!

— Tira, tira. Pentsa dezagun piska bat. Zer da urtea?

Orduan behatzak agertu dira, eta hurrek esan duten guztia markatu dut. Besterik ezer inork erasterik ez zedukalarik, dena bir-irakurri dut, eta abots batzuk entzun:

— Hara! Bai album polita egin daitekeala.

— Nahi ahal duzue?

— Bai! Bai!

«Coloric»ak eta paper zuriko orriak banatu ditut. Hurrek badakite leku apur bat utzi behar didatela kon-daira idazteko; badadukate paper orritxo bat, eta nahi duten eran jartzen dute. Albuna berehala izan da edertua. Ez diet nik esan: «Hik hau-ta-hau-ta-hau egingo duk, eta hik beste hau». Nahi duten album-orrialdea egin dute hurrek. Nik berrogeitsu haur izaki, lau album izan

ditut: kondairarekin zer-ikusirik ez zuten orriak eta be-
teegi zeudenak, lehenengo eta azkeneko orri gisa era-
bili ditugu.

Josi egin ditugu, eta horra hor gure sortako al-
bun berri bat, gero orritzatuz eta irakurriz guretzako
atsegin-iturri.

Jocelyne-ren katuaren kondaira.

Hona hemen nola jaio zen asmoa. Goizean, irakur-
gaiari buruz haurrek beren pasadizua kondatzerakoan,
hau esan digu Jocelynek: «Gaur gauean kaiolako nere
txoritxo ja du katuak». Besterik ere jakin nahi izan
dute denek, eta orduan Jocelynek «Titi» katuaz hasi
zaigu mintzatzen, eta txoria nola ja duen zehatz azal-
tzen. Denok elkar harturik, albun bat horri buruz egi-
tea erabaki dugu. Jocelyneren ondoan nik xehetasun
guztiak idatzi ditut, baita esaldiak berak ere ahalbait
beren hartan. Eguerdian garbitara pasa, eta arratsal-
dean ikasgelan irakurri dut kondaira. Papera eta «Co-
loric» banatu; eta horra hor albunak, margoturik eta
anitz eratara ederturik.

M. Belperron

* * *

Grenoble-ko Andrès andereak, era berean, bospasei
urtetako neska-mutilen taldean albunen jaiotza azaldu
digu.

Dominique-ren katua.

«Halako larunbat batez, «Mon Logis»etik ikas-ostera bat egitera irten ginen arratsaldean. Progila-hauzoan, etxetxo eta loretegitxo osatua, asmo bat nik buruan: udazkeneko loretegiak udazkenean, eta beretan azkeneko loreak, erdi zimeldutako zuhamuskak...

Dominique-ren loretegi-hesiaz bestaldean, katutxo bat ari zen miauka: katu bitxia, tigreak bezala marra-tua, baina kolorezko tatxaz nabartua: tarteka beltz, arre eta horiska.

Astelehen goizean ibilaldi hau azaldu genien joan ez ziren eskolakideei. Albur bat burura zitzaidan.

Ez dugu funtsean Dominique-ren katuaz baizik hitz-egin. Dena markatu, eta katuaren xehetasunak kopia-tu ditut.

Marie Clairek: Tximu txiki baten antzeko burua du Dominique-ren katuak.

Vincent-ek: Ikatza bezain beltza zen.

Horretan, alburaren orri bakoitza somatzen dut.

Brigittek: Bazuen ere laranja-aiderik.

Andereñoak: Nolakoa?

Haur batek: Laranjaren antzekoa zen.

Beste batek: Eguzkiaren antzekoa.

— Bazegoen arrerik ere.

— Zelakoa?

— Ene berokiaren antzekoa.

— Ez horren beltz.

— Gaurko zeruaren antzekoa.

— Zergatik dago gaur zerua goibel?

— Euria ari duelako.

— Eta haren begiak zer?

— Belarra bezain berde.

— Lapitz berdea bezain.

— Ur berdea bezalakoa.

— Nun ikusi duk hik berderik?

— Itsasoan.

— Begiek bazuten urdin kutsurik ere.

— Nik neuk urdin antzeman ditut arrunt.

Eta nik erantsi: Bazuten beraz argi-hizlarik?

— Bai horixe! Zerua bezain urdin (horra hor antz ezaguna).

Baina nik ez dut uste zeruaren urdin berbera zenik.

— Lore urdinen plegukoa.

— Zein lore urdin? —Eta liliubela izendatu dute, gero amitza, basadutea (udaberriaz igaz egin genduen alun-orriak pasatuz).

Eta Dominiquek galde:

— Pollita atxeman duzue ene katutxoa?

— Bai horixe! Ezin politago.

Katuaren izena galdetu diogu Dominique-ri: «Minet».

Haren izenaz deitu dugu guk, eta gero leun-leun laz-tandu dugu».

Andrès andereak

* * *

H. Robic-ek St. Cado-n gidari hartu dituen jarraipide ximple eta zaintsu batzuk eman ditu (2/5 urtetako haurren talde batekin erabiliak).

«Albunei buruz errazena hauxe da: ikastaldearen arnasari lotzea. Ezen alunak arnasa hartzen den bezala egiten bait dira: ximpleki, mamiari, ideiei eta itxurari dagokienez hantusterik gabe. Elkar-lanaren lehen-dabiziko frutua da».

Albun-sortak:

Zuhaitzez mintzo. Nork bere zuhaitza egiten du: arkatzez, txina-tintaz, margokiz. Denek kondatzen dute:

marrazki bat, oharketa-solas bat; hamar marrazki, hamar solasgai.

Zuhaitz-lerrokada luzea da. Oihana gogora... Alima-leak aipu, ontziak, panpinak, arrainak, ezagutzen den guztia...

Gertaera baten ondorioz, era berean; Omiasainduaren ondoren, eman dezagun, arbelean sortzen da lehenengo saioa, eta honek solaspidea ematen.

Segidan haur batzuek edertzen dute hastapenetako asmoa:

Samartin-loreak
kanposantuan,
lore-potoak
herrenka
lore-txikiak
lore handiak
eta izen asko, asko,
ama-izenak,
arriba-izenak,
aitabitxi-izenak,
kanposantuko lurra
urdina da,
eta ilargia
arratsean
oso zuri
haien guztien ondoan.

Denek

Bederazko albunak

Haur-burutazio bat, amets bat, haren marrazkiaren bidez bildua.

«Marinela izan nahi dut», zion Bernard-ek. Eta asmo hau esku-lanetan behin eta berriz mamitu.

«Blanchette», Marie Josek. Katua gaisorik, eta aitak uharte batetara eramana... Horra hor beste edergarri batentzako gaia.

Bakoitzaren pasadizuak, era berean, haur batek edo anitzek zabaldurik eta apaindurik.

Eta horrela «Bederazko albuntxo»en moda mamitu zen. Orrialdearen moldaketa haurren esku.

— kolaketa;

— orrialde-moldaketa;

— solasaren ondorioz, marrazki xingleak, karteletakoen antzekoak:

— josketa;

— eta azalaren ezarketaz, kito.

H. Robic-ek

* * *

Batzutan, haur-istorio bat, aparta eta antzerkitasunaren ekarle. Hauxe eman dezagun:

— lotu eta deslotu egin den ekintza duen drama bat;

— bihotz-ukaldia piztu;

— haurrak asma ditzaketen norriak asmatu, baita klasetik kanpoko beste haurrak ere hunkitzeko modukoak.

Brest-en egin dugu honen saiaketa, J. Rosmodruc-en ikastaldean 58-ko Abenduan egindako albularen bidez: marrazki batzuri buruzko elkar-solasaldi batetik sortua zen «Printze Txikia». Eguberri-Haroa bikaina zen horretarako.

Hain zeuden haurrak harro eta zoriontsu, istorioa panpinez antolatzea proposatu niola andereñoari; eta orduan haiek katu bat eta zaldi batzuk erantsi zituzten. Albularen eta panpinen sortzaileek, horretara, Finistèrako erakasleen ohoretan muntatutako lilitegiaren festan jokatu zuten.

Gomitaturik zeuden beste lilitegi batetako haurrak biziki hunkituta gelditu ziren. Hona hemen haserako istoria:

«Bazen halako batez basoan gaztelu bat, belarrez eta murrez inguratua. Dena gaztelu hartan, bai paretak, bai ateak, bai leihoak, bai teilatu zorrotzak eta tximeneak, dena, diogu, trebeska zegoen.

Igo gaitezen karrajotikako argiak argitutako eskaileretan gora. Dorre nagusiko atea zabalik. Sar gaitezen bertara giltza gabe.

Gela handi bat dago, eta atzekaldean Printze Txikia. Moñoñoa da, ez du hitzik egiten, haren begiak tristerik daude. Ez du amarik (inoiz erregina izana), ez aitarik (berebat errege).

Ikustera gentozen nahi luke.

Loreak eta puntila ederrak dituen soineko bat darama, eskuen estalki. Urra daitezen bildur da. Farre egiteko alderantziz jarri du bere koroa, eta gainean lumak erantsi. Halaz ere ez du farrerik egiten.

Egun batez pailaso bat etorri zaio basora bizikletan. Urrutikuskin ez bilatu du gaztelua, eta zuhaitzen inguruan ibili.

Arbola batzuk makur daude, beste batzuen orriek puntil-albenia osatzen dute inguruan: arbola urdinak dira, baita beltzak ere zenbait aldiz orri hori elarrossez. Beso asko eta soinekoaren gainean botoin anitz duen jaun bat ematen du arbolak.

Dorre nagusiko ate zabaletik sartu da pailasoa; eta Printze Txikiak hau esan du ahapeka: «Sar hadi». Eta pailasoa egunon esan dio, eta txapel kukurutzua erantsi.

Orduan harrapaketatara jostatu dira sagutxoaren atzetik (pailasoa ispilu bat hartua bait zuen bere poltsikuan).

Eta gero Siam-kalera joan dira izarrak eta pinuak, zuri ditzirantea, argi gorriak eta txori-hegoen gisako adarrak ikustera. Aita Noël aurkitu du han Printze Txikiak, eta harek honi esan: «Bil zak heure mauka, eta iku zak ene bizarra».

Eta Printze Txikiak irri egin du, bizarra leuna zelako. Ia zer nahi zuen galdetu dio Aita Noelek: «Giltza jiratzekoan kea darion trein bat nahi nuke». Baita beste hau erantsi: «Hirekin zerura ahal nindeke?» Orduan Aita Noelek berekin hartu du, eta eramane; eta ge-

roztik zoriontsu bizi da. Siam-kaleko argi ditzizari bat hartu du, eta honetaz izar bat sortu».

Hurrengo urtean filma egin dugu istorio horretaz, istorioaren egile ez ziren haurrak hautatuz hain zuzen (alegia, lehen mailako eskolakoak). Hots, atsegin berbera hartu zuten albularen irakurreran eta panpinen jokoan.

61-an, filmaren soinu-erasketan, beste jokatzaile-talde bat hartu genduen: eta ondorio berbera.

Bi urte horietan istorioak aldakuntza batzuk jasan ditu, denak ekintzaren indartzearen aldetik emanak (azalpenen ezeztara; basoko zuhaitzak eta Siam-kalearena, esate baterako); eta gertakari bitxiak erantsi (zaldiak, katua). Elkar ezagutzen ez duten haurren elkarpedea ikutzen dugu hemen, denen sendimena berehala dardaratzen bait da gertaera azkarren aipatzean.

Eskola modernoetako haurrek sortu duten albulmordo bat eskaini du CEL-ak, albul horiek haurrek berek edertuak dira, eta jatorrizko *haur-liburutegia* osatzen dute, eta idazkiarekiko gogoia piz dezakete eta haurraren asmamena bizkor.

Albul horietxek orriztatuz, begiratzuz, solastatuz eta beren buruz irakurriz, zoratu eta loriatu egiten dira haurrak. Aipa ditzagun istimatuenak: «Gri-Gri eta Simonet», «Zalditxo sorgina», «Ilargiaren haserrea», «Aita Noelen bila», «Printze Txikia», «Itsasoa ikusi nahi zuen beltz txikia», «Hesirik nahi ez zuen astotxoa».

(Eska hunat: CEL — BP 282, Cannes, AM.).

Antzerki-jokoak

Oldezko soin-agermenetik, antzerkira eta haur-jaietara

Arkaikoen lehenengo agerpidea erritmoa eta dantza izan ziren bezala, hurraren lehenengo agerpidea (bere inguruarekin harremanetan jartzekotan haurtxoak erabil dezakean lehenengoa) keinu-bidea da.

Desiratzen den gauzaren aldera luzatzen dira eskuak, espazioan moldakaitz higitzen den gorputz-keinuak, buruaren eta zarataren aldera okertzen diren buru-kinuak, beren xinpletasunean aberats eta hizkuntza-eramale dira elkartu-nahiaren izpi horiek.

Herri arkaikoen magia-liturgiak eta dantzak ez ote dute fenomenu berberaren lekukotasuna ematen? Bildu egin nahi bait da mundua, bizi eta hil direnekin mintzatu behar da, eta honetarako batzutan gorputzen eta izpirituen erritmoari hotsegiten zaio.

Halaz ere gure haurretako bakoitzak badu bere bizi-
ziera-habaila berezkoa, bere oldezko neurria, mundu-
runtz doan bere arnasa-modu berezia.

Haren keinu eta ekarpen bakoitzean aurkitzen dugu
neurri hori: bai hizkeran bai jokoetan.

Neurkera horretantxe hartuko du haurrak bere sor-
men eta irudimenaren kontzientzia, bere bihozkadak
itzuliko, inguratzen duten izakien bizia dastatuko.

Oldezko jokoak, horrela, guk erreparatu ez arren,
haurrak beren buruz beren gisara eta nagusien aldetik
ezelako loturarik uzten ditugun bakoitzean sortzen dira:
jostatu egiten da, nor bere buruz, edo zaratak asmatuz,
kotxetara, hegazkinetara, zalditara edo zakurretara.

Taldetan: treinetara, laisterketara, burrukatara, gu-
rasotara, bizargiletara edo osagiletara.

Ikasgelan, andereñoa kopeta zabalekoa baldin bada,
haurren laguntza istimatzen baldin badaki, oldezko jo-
koak zabaldu eta aberastu egiten dira.

Honek, keinuak erantsiz, bere pasadizuak kondatzen
ditu:

«Gaur goizean haizeak bultzatzen, eta orbela be-
zala iraulkatzen nintzen.

Ene zerria langa muturraz bultzatuz ihes egin du
larretik».

Keinuz eta iduriketaz, aipatzen duen norkia nortzen
du haurrak, eta bere berezko nortasunetik at egozten.

Biketa-gertakari bitxi hau, haurraren oso ezaguna, benetako esperentzia da.

Batera gorputzezko eta arimazkoa, aberastu egiten du haurra, eta bere burutik irteten laguntzen, egoera berriren sortzaile bait da.

Eskola modernuko elkarte-giroan, baita hastapeneta-ko keinu-bide zabarra ere lagunen aurkikundeen eta kritiken elkarketan hobetzen da. «Istoria» eta «pasa-dizua» elkarte-gogo sakonetan sartzen direnean, eta ikastalde osoak egiazki senditutako bizi-gune garrantzitsuen hizla izaten, benetako antzerkiak sor, molda eta hil daitezke, haurraren burua osoki bete arteraino-koak.

* * *

Eskola modernoaren Liburu-Saileko hurrengo banakorentzat utziko dugu oldezko agerpidearen frutu diren antzerkiak. Banako hori gertatzen ari gara.

Horretantxe irakur ahal izango da musika-heziketari dagokiona, baita anitz saiakuntzaren berri.

Berezko jinasia

Kaletar eskolak dira haurrak beren gisara ibil daitezkean leku bakarra, eta arrunt behar duten lasaitasun hori betetzen saiatzen gara era guztietara. Bada-go, bai, batimendu handietan igo eta jatx daitekean eskailera; baita korrika joan daitekean ezpaloia ere. Baina kalea lanjerosa da, eta bizilekua isilik behar da atxiki. Beharrik dago hor lilitegia; eta honetan «bizi» egin daitezke gorputzak eta saiaketak onar: zoru gu-droneztatuan egin daitekean laisterketa soilaz gain, haurrak jausi egin behar du, igo, zintzilikatu, arrastatu...

Jolastokia bekio egoki. Baserriko semeak bertan aurkitzen du koxkaz betetako giroa; kaletarrak ez. Horrengatik saiatu behar dugu horrentzako Izadi-giroa moldatzen, honetan hazten eta hezten bait da haren izaki fisikoa.

Denontzako ekairik merkeena eta eskuragarriena *gomatiko* zaharrak: aski dute aita batzuek eskolara eramatea. Astunak dira, baina haur guztiek nahi dituzte jaso, eta nork bere indarren arabera garreiatu: txiki-txikiek pausatu egiten dituzte xabal zoruan, erdi-koek pirritaka eramaten, eta handiek ezin asma alako modutara kurriarazten: ongi exeri daitekean txalupa-tosta bihurtzen da, eta arraun egiten da horretan gozoz; lagun batek tente atxikitzen duen ate bat izan daiteke. Gurpil-gomatiko batzuk daudelarik, tunela molda daiteke haietaz, edo batetik bestera oinak loturik jautzika ibil; baina anka bakar batetan kautxuan salto, edo ankak zabaldua eror, edo abar.

Egurrezko tramankulu batzuk aski izan daitezke jolaslekua jazteko.

Sabulurik errexena ohol luze bat da, enbor batetan finkatutako burdin-ardatzean balantzan.

Igotzeko piramidea adarrez egiten da, azala kenduz eta elkarri lotuz. Piramidea lauki izan daiteke (behe-rean 1 m²., 2 metro goratasun), eta alde bakoitzean berdinzki tarteturik bost maila.

Erraldoi-urratsak: enbor bat puska desberdinetan pikatu besterik ez da behar, denok lur-rean ongi finkatu, eta muturrean oreka-saioak egiteko.

Gauza bera utzi den *habeaz*: mutur batetik bestera kurritzen da, kontuz haseran, oso azkar gero, ausarki.

50 cm. gora *altxatako habeak*, era berean, bi edo hiru zutoinetan plantatua, koxka berri bat dakar: bildurtienek ixtaklok kurritzen dutela.

*Zalditxo*a, gorago haina motxago ere bai: 0,60 m. gora, 1,20 m. luze. Hau ere enbor puska batez egina.

Txirristra edo laprasturia: denetan garrantzitsuena. Ohol zabal bat daduka, bi zurubi bikunetan ezarria. Eskaileratik igotzen da bertara, 1,30 m. gora dago, zubitxo*a* igarotzen da gero lasai, eta bestaldean dago zai lerraketa bikaina ematen duen aldapa.


Eta, ahal delarik, utzi bedi *txalupa bat* lurrean zahartzera. Zenbat aukera eta okasio igotzeko eta lemari eutsiz abiatzeko!

Berezko ritmika

Fauvette Goldenbaum-en etsenpluari jarraikiz, eman dezagun hasera on bat ritmo-heziketan; eman dezagun abiadura berezko bat, haurrek beren buruz erritmo apalak asmatzen, ezagutzen eta berriztatzen dituztelarik.

Haurrak bilduta, kurri-araz beza andereñoak beretako bat gela osoan barrena denen aurrean, eta marka beza danbolinaz haurraren ibilera. Lagunak berehala hasiko dira: «Azkarregi dabil, polikiegi dabil». Eta egia da. Goazen denok orain bera bezala, eta danbolinari egokituz, hantxe joango dira erritmoa hartzen. Bigarren batek orduan beste gauza bat proposatuko du: horra hor jauzika, eta danbolina beti laguntzaile. Eta sclasak entzutean: «Arin egiten du jauzi batean eta bestean», abiadura emana duzu.

Ibileraren, laisterkadaren eta jauziaren erritmo errazk, andereñoaren laguntzarik gabe aurkitzen dituzte



Behatzez margotzen.

haurrek berek. Jokoa hain da azkarki onartzen, bigarren egunetik beretik Christian-ek proposatu duela: «Aitona bezala ibiliko naiz orain», danborrak ibilera mantso gelditu neketsua jotzen duelarik. Gero, danborra isilago egiten da katuaren ibilera iduritzeko. Idurikuntza-jokoak elkarri darraizkio; egunero dakarte aurkikunde berririk, eta horrela denen aukerak eta dohainak egaltzen.

Bizitza-gaiak idarokitzen dituzte: ama azokatik kargaturik datorrenetan bezala ibiltzen da. Jokoak ematen du habaila: ur-putzuak oinak batera jauzten dira, txirla-bila kukubilo joaten, txoriak bezala hegatsak zabalik aidean ibiltzen. Agortu ezina da iturria: jauzika doan unxitik lauhazka doan zaldira mundu oso bat dago, beti mugidan, eta gorputza heztera eta dantze-gitera behartzen gaitu.

Orduan datorkio andereñoari beste erritmotara igarotzeko mementoa: aski du kantu herrikoi bat oinarritzat hartzea. Haurrek gogoz jarraituko dute airea. Horrelako ariketa batzuk, eta erritmo zaharrezko aire baten bidez sar daiteke orduan diskoa: isiltasun osoan entzungo da. Eta Eguberri heldu delarik, eguneroko saiaketak prestaturik, Mozart eta Vivaldi adituko dituzte gustuan haurrek.

SAIAKETA BATZUEN BERRI

Gauza bakar bat falta zait orain: lilitegi-andereño batzuk mintzaraztea, hementxe beren ikastaldeen egunak eta biziguneak azal ditzaten.

Ttikien eta handien taldeak dituzten eskolak eta kaletar lilitegiak, jatorki zabaldutako aurpegi desberdin.

Lilitegia eta Eskola berria

(Hélène Bernard-ek)

Egun batez, erakas-kide batzuen aurrean egindako eskola-egun baten bukaeran «Freinet-en Eskola Berria»-ren pedagogi-bideari gogoz heldua niola, eta ondoko egunetan helduko ere niola esaten ari nintzelarik, erantzun hau etorri zitzaidan: «Lilitegiak aspaldi danik erabiltzen zituela erakaspide berriak, lehenengo mailako eskolek baino aisa lehenago eta eskuarkiago».

Uste dudanez, hauxe da lilitegiko andereñoen artean oso zabalduta dagoen irizkera.

Zertan du oinarria iritzi horrek? «Teknika berri edo moderno» hitzek hartu ohi dituzten barne desberdinetatik heldu da nahasketa hori, nik uste; eta horrengatik Eskola Berrian bereziki beharrezko deritzat puntu hori zehatz azaltzeari.

Bihoa hau aldez aurretik: modernakuntzaren itxurak eta axalak ez gaituztela lerrarazi behar.

Lilitegi batek leku modernoak, mainu-gelak, atsenden eta harrera-aretoak, ikasgela ederrak, loretegi, eta abar, dena moble, errediza eta tresneria egokiz horniturik ere, ez dugu halaz ere esango, hemen azaldu dugun joeran bederen, horretan «Eskola Modernoa» dugunik.

Andereño batek bere ikasleei hautsezko margokiak eta pintzel on-onak kaballetetan ibilaraziagatik; edo beste batek saskigintzan edo eltzegintzan lan ederrik eginaraziagatik; edo beste hirugarren batek inprimeria edo moldiztegia baliarazi arren, ikastaldean dagoen barne-giroa ezagutu arte, ezin esango dugu, besterik gabe, hiru lankide horiek erakaspide berriak erabiltzen dituztenik.

Zeren-eta, liluratan edo lilitegiez ideia faltsutan erori nahi ez badugu, ekai eta tresneria sentsorial horiek nola baliatzen diren begiratu behar bait da, aurrenik. Tresneria hori, hain zuzen, teknika moderno askotan erabiltzen delako.

Guk, ordea, hau diogu: tresneria sentsoriala eta heziketa-ekaiak nahi bezain ugari izan arren, teknika baten ondorioak edo frutuak nolannahikoak izanik ere, hori ez dela aski eskola bat hemen adierazten dugun sentiduan «eskola moderno» bataiatzeko.

Erabilitako erakaspideen *izpirituan* datza gakoa, eta honen segidan ikas-taldean sortzen den giroan.

Hona hemen Eskola Modernoaren ezagugarriak:

- murruen artera haurrak sartzera utzi baditu, eta horiekin batera leihoak eta ateak biziarentzako zabalik atxiki;
- egunetik egunera eskolaren eta etxearen artean sortzen den holtzartea betetzen jakitea;
- ahalean, artifizialak eta bortxazkoak oro baztertea;
- elkarrekiko konfiantza-giroa sortzea; haurra hazten, gizarterako gai egiten, aurkitzera abiatzen, eta ahalmenen eta erantzukizunen kontzientziara eramaten lagundu.

* * *

Goazen orain ideia zabaletatik etsenplu zehatzetara.

Eta eman dezagun Urriko astelehen goiz bat.

Bezperan mendira joan da andereñoa osteratxo bat egitera. Eta, urtezaroa dela-ta, hauxe hautatu du arreta-gaitzat: *udazkeneko orriak*. Orri-bilketa gaitza egin du, eta haurrei aurkeztu die. Egunean, astean, ikertu egingo da, oharketak prestatuko, orriei buruzko hizkuntza-ariketak egingo, udazkeneko orbelaz mintzatu-ko...

Hostoak marratu eta margotuko dira, izari handitako margo-tatxaz saiaturaz; mendira joan den ikasle bategi, margoihal eder bat lortuko du; beste batzuek, udazken-orriz gauza ederrik mamitu eta apainduko dute. Hitz batez, arrakastak bilduko ditugu segurki, eta *zenbait ikaslerengan* interesa piztuko.

Baina, nahiz itxuraz tekniken berrikuntza izan, zinez esan ahal daiteke pedagogia-bide horren gogoia moder-

noa denik? Ez nik uste; zeren-eta ardatzean nagusiek eta hurrek berek hautatu duten bizitza-gai interesgarri bat bait dago. Bistan da, aukerabide horri esker, andereñoak ez du arrisku handirik bere gain hartuko, baina haurren interesa ere txikiagoa da, eta ez berezkoa. Goitik behera onarrarazia eta zuzendua da; eta txikituko ez bada, abildade gaitza izan behar du andereñoak; ezen nahi-ta-ez ezarria izateak, eskolako bizia eta kanpokoa elkarretatik berezi bait ditu; eta haurrak oldezko bere interesetara jotzeko gogoia nabaituko bait du.

Alderantziz, ikastaroaren hastapenetik *hurrek* ikusi, egin edo senditu dutena konda-arazten saiatu baldin bazara (andereñoa bera kontari, edo haur-talde bat edo ikastalde osoa); eta eskolari *kanpotik ekarri zaion laguntza* (nahiz oso xumea izan) estimatu baldin bada; orduan andereñoarena ez den interes-mordo baten inguruan lanegin daiteke. Modu horretara ikasleen multzoak berak hautatuko ditu bere aztergaiak.

Udazken honetan, Sainte Baume-ra joan da neskatila bat. Hilabetez geroztik ohitura bat nagusitu da: baita aurkikunde txikiak ere eskolara eramatea, eta honetan andereñoak lehendabizi eta haur guzietan segidan oso gogoz hartzea. Horra hor, bide horretatik, udazkeneko adar sorta ederra ekarri duela Mireille F.-ek; eta bozkarioz hartua izan da ederra eta koloretsua zelako. Zergatik? Mireillek, begiak atseginez ñir-ñir eta abotsa bizi-bizi, nun eta nola aurkitu duen azaldu duelako. Hori ikusirik, beste ikasle batzuk ere bizkortu ziren: eta horra hor *hizkuntza, hizketa-modu eta hiztegirako* bidea. Eta bertatik ikusi nahi izan da sorta, orriak ikutzuz eta neurtuz: horra hor ere oharketa-saioa; *kideei* poz hura azaltzeko gogoia piztu da: alegia, *irakurgai*,

*moldiztegi, irakurrera eta apainketa. Orriak zenbatu eta taxutu egin dira, moldiztegiako saiaketak eta limografozko marrazkiak prestatu: horra hor karkulu bide bat. Eta, azkenik, batzuek adar osoa marratu eta margotu dute, beste batzuek orri bakar bat, eta geroago, halako batez, marrazki horietako xehetasun hau edo hura erabil daiteke *apaingarri* batetan: amen festa delata, eman dezagun, prestatu behar diren oparietan...*

Baina horra hor interesaren erdian dagoen neskatila horrekiko interesa moteltzen abiatua; eta horra orduan *beste ekarpen berri batzuk berriz ere arreta eta interes osoa biltzen ari*: olibondo-adar bat, eman dezagun, oliba-ale berdez eta beltzez hornitua; edo eskola honetako edo hartako intxaur-saski bat; edo gaitaina edo mizpira pilo bat, edo andeñoak bildu dituen marraskiloak...

Ze, hurrek bezalaxe, andeñoak berak ekar ditza ke bere altxorak; baina, kasu, ez eskaintza honetan bere burua gailenarazten, baizik-eta zeharo *hurren mailan eta taldean disimulatzen*.

Ikastaldearen ekintza-oinarriak taldetasuna lortu behar du; alegia, andeñoaren eta ikasleen artean benetako elkar-laguntza giroa.

Horretan datza, ene ustez, Eskola Berriaren erakats-muina: tresneriaren eta tekniken berrikuntza soila ez da helburua, bide bat baizik.

Eskola Modernoaren pedagogia-oldean, beraz, batzuek uste duten baino gehiago irabaz dezake Lilitegiak.

Hélène Bernard-ek
Marseilleko Roucas Blanc-en Lilitegia

Nivolas-Vermelle-ko Lilitegia

(Isère)

Zuri, ni behinola bezala lehenengo urrats zaila egiteko gaur bildur zaren lankide horri, neure hastapen-esperentzia kondatuko dizut hemen. «Ohituta» daudenek nik baino hobeki azalduko dizkizute teknika berriak; eta badukezu ideia bat, bestalde, Biltzarrerara joan baldin bazara, edo «L'Eduteur» delakoa irakurri. (Irakur itzazu, dena dela, behin eta berriz, BEM aldizkariaren banakoak: probetxu handia aterako duzu). Gauza bat aitortu nahi dizut segituan: ni neu ere bildurrak, oso bildurrak, egona naizela; eta oraindik ere oso maiz zalantzan ibili ohi naizela, aginpideko heziketa zaharrak zeharo markatuta bait naduka.

Urte t'erdi honetan bizi naizen herriska honetara iritxi naizenean, guztiz zoratua ninduen lilitegi bat neure eskuetan hartu beharrak (3/6 urtetako talde bat);

nik ez bait nuen inoiz egin «txiki»entzako ikastaldi be-
rezirik. Mota guztietako pedagogia-liburuak aztertuak
nituen hasi baino aisa lehenagotik; eta «neurea» izan-
go nuen ikasgelan, behin baino gehiagotan saiatua
nintzen ulertzen neure eskuetara etorriko ziren haur
haiek nola moldatuko ote ziren neurekin.

Nik bezala topatu dukezu zeuk ere armairu batetan
«irakurtzen eta idazten ikasteko hastapenak», urtetik
urtera lehenago erabiliak. Eta ni bezala ere, beharba-
da, horren seguru ematen zuen erakaspide horren au-
rrean izuti edo lotsati atxeman dukezu zeure burua.
Eta orduan, ausaz; liburuok zokoan uzten ez zara au-
sartu, eta haurrei «ch» eta «a», «cha» irakurtzen direla
erakatsi diezu, eta abar... eta piskanako «chaperon»
azaltzea lortu dukezu, eta gero bide beretik «rouge»
hitza...

Eta horra egia: zimendu gotorrik ez aurki bildu-
rrez, horrelaxe jarraitu dut nik egunero liburuska hura
ia lehenengo partearen bukaeraraino.

Aspertu egiten nintzen ni, haurrak ez... lehendabi-
ziko hamar minutuetan. Orduan urrats handia egitera
deliberatu naiz. Eta dena bidali dut pikutara: bai ka-
tci haiek, bai «b+a=ba» denak, bai koloreztatzeko tan-
poiak oro, eta abar; eta «L'Education» aldizkariak eten
gabe gomendatzen zidana gogotan hartuz, begiratzen
hasi naiz. Orduan mordoka etorri dira haien pasadizu
txikiak; eta hauen artean hautatu ditugu, denok bate-
ra, idatzi behar zirenak; eta hilero albur bat moldatu
dugu. Ikasleetatik trebeenak idazten zituen eskuz, eta
neure burua hobeki senditu nuen.

Herrialdeko E.M.-taldera sartu naiz, laguntzaile gi-

sa; eta han eta hemen eman zaizkidan aholkuak kontutan hartu ditut, eman zaidan adorea batez ere. Lankide bati azaldu dizkiot neure asmoak eta ametsak, eta piskanaka piskanaka elkarrekin lanegin dugu. Moldiztegi edo inprimeri bat lortu dut, neure lankidearekin gure bi ikastaldeentzako elkarte bat egin dut, eta elkarrekin ere moldatu dugu Egunkaria (laugarren banakoa egun hauetantxe irtengo). Ez dakizu orain noraino naizen zoriontsua!

Goizero, beren BIZIA ekartzen didate neure haurrek. Idatzi, asmatu eta edertu egiten dugu. Moldiztegirako orriak zenbatu behar dira, zein egunetan gauden jakin, materiala banatzeko bertan daudenak eta ez daudenak zenbatu... Arratsaldean esku-lanen arabera zatitzen da ikas-taldea: ebaketa-kolaketa, arte-igeltso, estilo-feldro, arkatx, margoki, panpin, moldiztegia. Eta, Danielek bere margoa mukatu beharrez, jolastera irten nahi izan ez duela ikusi dudanean, eta Caroline-k bere panpina masailaren kontra hestutzean, zoriontsu zeudela jakin dut.

Ikus dezakezunez, hasi-berria naiz: lillitegietan lortu ohi den edertasun hori ez dut oraindik lortu. Itxaporena bada, ordea. Biltzar Nagusian neure haurrentzako ki-deak aurkitu ditut. Eskolara ni bihurtuta laister idatzi diegu, eta sinets nazazu: lehenengo idazkitzaren zai egotea joranez betea da!

Zenbait egunen buruan, berinezko xaflak izango ditut, eta horrela ekintza berri bat proposatu ahalko diet neure haurrei: monotipoa. Oihala eroatera noa, bestalde, jos dezaten. Horrez gain, noski, baditut ideia bixiak ere; baina zoritxarrez oso txikia da oraingoz gure sal-erosketaren elkarte.

Aspaldidanik amets egiten dudan magnetofonoa, noiz izango ote dut? Orduan agian CEL-aren diskoetan entzun ohi ditugun kantuak bezain ederrak sortu dira gurean. Hainbeste eta hainbeste gauza eder falta dut eskolan oraindik!

Sinets nazazu, halere: haurrak maite badituzu, diren bezalakoak onartzen; eskubideak, erantzukizunak, eta zerorren konfiantza, hitz batez, ematen badizkiezu, bide zuzenetik zoazen seinala; eta orduan haurrek BIZIA ekarriko dizute.

Kemen, beraz: baduzu guk dugun hobari bikaina: haur txikiak, alegia. Berriak dira, eta eskola-keriak ez ditu oraindik ikutu. Onar zazu haien olde berezkoaren dohain aparta, eta zabal dedin bideak ere bai. Aginpi-dezko eta larderiako erakaspideek nardaturik baldin bazaduzkate, ez bildurrik izan. Lehendabiziko urratsa da zailena. Irakur zazu Freinet, eta lortu behar den izpiritua hartuko duzu teknikei buruzko kezka guztiak baino lehenago. Utz itzazu zeure haurrak bizitzera eta beren burua agertzera, eta orduan «eguzkia agertuko zaitzu argitan».

Suzanne Charbonnier Anderea

Saint Martin d'Estreaux-ko Lilitegia (Loire)

Herri koskorra da St. Martin; eta jendea bi taldetan zatitua dago. Bata, lehenago handiena izana, baina gaur urritzen ari, ongi xamar bizi diren baserritarrek osatzen dute; bestea, goraldi betean orain, langile apalek.

Herrian bertan badira oihalgintza eta txapel-ola batzuk, eta hauetan batez ere neskak eta emakumeak ari dira lanean. Jatorriz baserritarra den jendea, horretara, kaletartzen hasia da.

Haurren kopuruaren emendioa azaltzen du honek: lehen (alegia, orain dela hamartsu urte) berrogei-ta-hamar ikasle zeuden eskolan, CP-koak barne; eta orain berriz, CP-koak zenbatu gabe utziagatik ere, ia lehen hainbat.

Amek etxen atxiki ohi zituzten beren haur txikiak hauek bost urte izan artean; orain, soldata hobetzeko edo borobiltzeko, lantegira joaten dira, edo etxerako lana hartzen, eta 3 urte dutelarik ekartzen dizkigute lillitegietara (gazteenetan 2 urte 9 hilabete).

Eskola-barneak, nahiz ongi zainduak, antzinakoak dira; eta klaseak alderdi desegokiaren alde ematen du maiz (Iparraldera, alegia); edo iristeko zail gertatzen (beste ikasgeletara joateko karrajoaren muturrean esate baterako); baina lorategira ere irten daiteke bertatik, baita aisa patiotxo batera udaran.

Ez aterperik, ez atsedeen-lekurik, ez WC berezirik: laguntzazko batimendurik ez, hitz batez. Askak karrajoan daude; hots, hau isil-isilik atxiki behar da, «handiak lanean ari direlako».

Erredizeria (mobleria) ez da inundik ere oso modernoa: gaztainondoeko mahain aulkidunak aztunak dira eta jankailuak. Zabar. Orain dela gutxi bi mahain arrautzaire erosi ditugu eta dagozkien aulkiak. Alasa batek eta apal hestu batzuek osatzen dute erredizeria. Murruan betiko laukiak eta zurak daude, gure irudiak-eta zintzilikatzeko gertu.

Gehienik galerazten nauena, halere, ikasgelaren inguruan jarrita dauden arropa-gakoak dira. Ez dira haur guztientzako aski, baina hor daude, tinko. Ezin ditzaket ken; zeren-eta, nun jarriko lituzkete haurrek beren jantziak, jatzeko gelarik muntatzerik ez dagoenez gero? Moldatu egin behar, beraz. Baina, egia aitortzeko, oso nekez lortu dut neure ikasgela egokitzeko materiala, eta oraindik ere zer egin ote daitekean zalantzan ibiltzen naiz sarritan.

Horra hor zertan nagoen gaur (bostgarren urtea daradalarik). Neure mahain-bulegoaren ondoan, atzekaldean eta tauladorik gabe, hiru mahain jarri ditut: lehenengoan prentsa dago, bigarrenean limografoa eta hirugarrenean monotipoentzako xaflak; eta kajoietan tinta-hodi, zapi, gasolina, lehortailu, eta abar.

Mahain arrautzaire bat dago margoki bihurtutako panel baten ondoan, eta hantxe dago haurren xokoa. Badituzte ere, horren gain, etzateko maindireak, «al-txor-poto» bat, eta behar dituzten tresnak bilatzen badakite (koloretako estilo, arkatz-feldro, gorraize, kola, paper eta beste).

Aurrez aurre elkartutako sei mahainek osatzen dute arratsaldean txina-tinta eta arte-igeltsoak baliatzeko utzi dugun xokoa.

Badago ere, azkenekorik, «handien xokoa»: edozein ikasgelarekin antz txikikoa, arbelari buruz lerro-lerro jarritako mahainekin. Haurrek halere azkar egiten dituzte hor hiruzpalau lantoki, mahain bakar batentzako lino-xafla batzuk eta bi aulki jarriz («Bestaldera exeriko da Gérard, horrela ene lehoina josten laguntzeko», dio Jean Luc-ek).

Ikasgelaren erdian badago beti mahain arrautzaire bat. Margotzeko ez bestetarako erabil ohi da, eta beti ohi dago haurren esku.

Kendua dudan tauladoak, buztina modelatzeko mahaintzat balio du gaur, eta arbelaren aurrean dago, haurrek nahi dutenean joan ahal izateko eran.

Hitz batez: guztiz txikientzako pentsatua izan den

baserri-eskola baten plegukoa da enea: zaharskote, bainan hobetzekotan urtero zerbait eginez gero, ez bati atsekabea. Ez dira egunak erritmo aldagabe baten arabera isurtzen: batzuk beteago dira margo batengatik, edo olerki pitin batengatik.


Beste egun batzuk, aldiz, motelago gertatzen dira. Baina elkarrekin ez gara behin ere aspertzen: nik neronek eta ene haurrek famelia bat osatzen dugu, eta goizero marrazki eta istorio mordo bat jasotzen dut.

Martxoaren 10-ko eguna:

Gaur Bethy-k egin duen marrazkiak bildu ditu denen arretak. «*Horra hor udaberriko neskatila*», esan du.

Erruz hitzegin dugu udaberriaz egun hauetan. Egu-nero, baserriko seme direnek antxumeen eta xiten jaiotza gaztiazten digute; eta kaletarrek martxo-lili eta liliubelak ekartzen. Trégastel-go gure adiskidexoek udaberriko gutun bat bidali digute, benetako belar-sorta: berehala ezagutu ditugu kerbak eta ihilorak. Baita txikiak ere «neskatila polita» ikustekotan ondora dira.

«*Eguzkia aurkitu du*», esan du Domi-k; eta Bethy-k erantsi: «*Haren bihotz txikia kantari dator*»; ezen Bethy-k bere bihotza «kantatzen» entzutea maite bait du: ene ondora etorri, bere bihotzaren gainean eskuak ipini, eta honen taupadak entzuten ditu. Gauza bera orduan Gérard-ek. Eta denok gisa bera. (Egia esan, ez da gertakari hau lehenengo aldiz gertatzen). «*Hara: tiktak egiten du*». Eta hona hemen gure izkribua:



Egaziakkin jostatzen.

Udaberriko
neskatila politak
Eguzkia aurkitu du.
Haren bihotz txikia kantari:
tik-tak, tik-tak.

la haur guztiek eskatu dute pasadizu hau irakur-
tzea (baita Martine-k ere, 4 urte); baina batzuk kan-
poan gelditu dira.

Georges-ek bere aita, ama eta etxea marratu ditu;
gauza bera Monique-k. Nicolas-ek, berriz, Jupiter deri-
tzan bere txakurraren marrakia egin du, eta Corinne-k
bere kideari bere kondaira berezi bat bidaltzea nahia-
go du.

Moldiztegian izkribua Betty-k, Frédéric-ek, Gérard-
-ek eta Michèle-k izkribua osatu duten bitartean, eta
txina-tintaz, estiloz, arkatz-feldroz eta margokiz uda-
berriko neskatala marratzekotan taldeak sortzen; nes-
ka koskorrek orrialde eder batetan kopiatu dute. Egu-
naren buruan, haur guztiak —ttipiak ezik— kopiatuta du-
te: batzuek beren buruz, beste batzuek modelo baten
arabera. (Modelo hau eskatzera datoz, bestalde, eta
letra «lotuan» idatzi nahi dutela diote, letra inglesaz
alegia).

Goizaren bukaeran, eguerdi-irian, egutegia ahaztu
zaigula erreparatu du Gérard-ek, eta «martxoaren 10-an
bizi garela harro-harro gogorazi»: «asteartean», dio.
Zenba dezagun. Sail handian: 9 neska, 4 mutil, guzti-
ra 13; erdikoan: 5 neska, 3 mutil, guztira 8. Txikienean:
4 neska, mutil bat, 5 beraz. Eta denera: 26, Domini-
que-k dionez. Gaur arratsaldean datozen erdikoak eta
tikiak erantsiko ditugu.

Karkulu-kondaira bat dakar Frédéric-ek, gaur goizean marratua: «*Urtemugako neure gozokia jateko sei ginen*»: «*aita, ama, ahizpa, ene anaia zaharrena, txikia, eta ni seirok. Han zeuden ere ene panpiñak eta ene amaidina*».

Zenbat eratarata bana daitekean hori! Jean-Luc-ek martratutako lerrokada soiletik hasi, eta Andrée-k prestatu duen matematika-moldeetaraino: txanponen bidez, 6 txanpon eta 4 txanpon edo 10 (hamarrekoa, beraz); eta honi bi, gero hiru, eta oraindik ere beste bat erants; eta horra hor 16.

Ostarete batetik eguzkia ageri, eta oraindik ere bustia zegoen belarrera irten gara; eta han dantzan martxo-liliak ez zanpatzeko, bildu egin ditugu.

Gero esku-lanen arabera taldekatu dira haurrak.

Frédéric, Gérard eta Hélène beren panpinak bukatzekotan elkartu dira. Margotza-mahainean Jean-Luc, Andrée, Pascale eta Martine biak daude, txorien eta eguzkien pintaketan. Bettyk udaberriko damatxoa margotu du zutik. Corinne-k txina-tintaren tresneria apailatu du, eta Christian, Serge eta Alain-Noël-en laguntzarekin egin du lan. Estiloen eta arkatz-feldroen tresneriak Anne Marie, Catherine, Pascale, Serge eta Annick bildu ditu.

Catherine, Ariane, Dominique eta Jaun-Claudek inprimatu egiten dute; Monique, Christian eta Nicolas-ek, ebakitzen. Georges eta Christian-ek marratu egiten dute, eta beren kideentzako idazten.

Lantokitik lantokira noa ni, laguntza eskatzen dida-

ten hurrei laguntza ematen (baina eskuarki, enea baino nahiago izaten dute lagun batena).

Inprimatzaileak nekaturik daude, Arianne arbelera doa, eta Pascalek honen lekua hartu. Alain-Noël-ek bere txina-tintazkoa bukatu, eta ahuntzak ebaki ditu, eta larre batetara bildu. Miresle batzuen aurrean, berriz, bere panpina dantzarazten.

Hau guztia desordenuan egiten da, dena dela. Zarata badago, jakina; hiru-hilabeteko honen bukaeran batez ere.

Baina «erlauntza-zarata» da, tarteka gure Michèle erdi-gorraren algara zorrotzek etena (azkenean hau, bidenabar esan dezadan, tratamendutan jarria; gurasoek, azkenean, kostata benetan, etsi bait dute eta haren gortasunaz sinetsi).

Eta horra hor jolasaldiaren tenorea: konturatu gabe joan zaigu denbora, laurak laurden gutxi dira-ta. Haur batzuk, bestalde, beren lana amaitzekotan gelditu dira (Betty, Arianne eta Corinne batez ere).

Barrurakoan «Haur-Eguzkia» hartu dut (CEL-ek argitaratua), eta irakurri edo, hobeki esateko, irudiak erakutsiz azaldu egin dut ipuina; eta horra hor irteeraren tenorea heldua.

Ivette Bermone-k

Kaletar Lilitegi bat

(Brest)

Haurren adina=2/4 eta erdi urte.

Lilitegi berri honetan, gelak zabal eta argi, jolastokia eta belardiak eder, lasai ibiltzen dira haurrak; eta berehala hartzen dituzte ordenu-ohiturak, taxutu-beharak, baita koskorrenak erantzukizun batzuk ere.

Irudi asko egiten da bertan: margo, marrazki, ebaketa, kolaketa, panpin, ontzi, hegazkin, helikoptero (aideportuaren ondoan izaki), alimale, eguzki...

Haur bakoitzarentzako *dossier bana* egin dut; eta bertan taxutzen eta eguneztatzen ditut marrazkiak, margoak, ebaketak eta kolaketak.

Lau urtetako haurrek beren izen-deiturak ezartzen

dituzte marrazkien behereko aldean, eta nork bere ize-
na ezagutzen badaki.

Hitz bakar horiek inprimatzen ditugu, eta zaharrenek
pozik orritzatzen dute beren «Bizi-Liburua». Urtemugak
ospatzen ditugu, eta eguneko figurak edo puntuzkoak
lore-sorta bat, eta piztu eta itzali behar den hiruzpalau
kandelatako pastela hartzen ditu. Inauteria ospatzen
dugu, Errege-Eguna, Eguberri.

Baditugu lagunak urruti, kideak, oso urruti: Jura-
tik has, eta Dole-raino. Ez nuen nik horrelako kiderik
izateko asmorik: txikiegi atxeman uste nituen txiki
horiek; baina ene lagun batek kartak hartu nahi zituen,
postalak alegia, baita itsasoko gauzak ere, eta norbait
hari itsasoaz mintzatzea... Adin aurreragoko kiderik
ezin harek aurkiturik, neuri bidali dit Eguberritako par-
dela: marrazki, kabia batetan gozoki mordo bat, pape-
rezko bi burio, ahate bat. Eskola osoak egina zen bi-
dalketa: txikiek eta handiek batera. Eneak, beraz, oso
losintxatuak izan dira honetaz. Denek ukan dute bina
gozoki: bata eskolan bertan jana, bestea amari erama-
na. Gakoa «ulertu» egin dutela dirudi, eta biharamune-
an denek egin zituzten urrutiko «adiskideentzako» ma-
rrazkiak; baita Christian-ek ere, 2 urte t'erdi, amaren-
tzako edo andereñoentzako ezer egin nahi ez, eta «as-
kirientzako» bai, gogotik (nahiz hitzegiten hasi berria
izan). Gauza bera Marcel-ek (4 urte): bere buruz eta
oldez eskaini bait du bere ontzia (Orain moda da gu-
rean jolasaldian, lino labain batetan, egur puskak ba-
liatuz bela-ontziak prestatzea). Margotu egin du bere
ontzia, sakelan zedukan modelagintza-oreaz marinel bat
prestatu du; eta Alain-ek, papera txotxaren puntari ira-
txekiz, ikurrin bat erantsi dio. Gero, Bazko-aldean, on-

tzi-dominak bidali dituzte: txirlak, zulaturik eta pinta-
turik.

Alain-en zirriborroak baliatuz, albur bat prestatu du-
gu: «kokodriloa»; eta gero Yves-enaz beste bat: «Al-
ger-en eta Bordale-n» (helikoptero, ontzi, berebil, tren).
Cathy-k, bestalde, lore ederrak eta etxeak margotu di-
tu: albur eder bat molda daiteke, beraz; eta Bazko-ren
ondoren batez ere, neskatila harrigarri bat izan dut,
Marie-Françoise: heldu den Ekain-hondarrera arte ez
ditu 4 urteak beteko.

Haseratik beretik ohartu natzaio: zaldiak egiten di-
tu batez ere, eta beste zenbait abere ere bai. Nolako
egoeratan, ordea! Ankak laisterketa modura, bi aurre-
raka eta bi atzeraka; burua atzekaldera begira, zeru al-
dera edo ondoko lagunari so; zaltokia ere bai, eskala-
proinak, dena agiri; eta erantsi dituen solasak, inte-
resgarri. Bere albuna hasi du; eta, sinetsia nago, ede-
ria izango da. Berak ere kantatu egiten du; eta, BT bat
(«Pozak») entzun ondoren batez ere, asmatzen. Polita
da kantatzen duena (haren hitzak apuntatu ditut), eta
«Ariel»az jotzen duena ere bai: polit zaio (segituan
egin du ohar hau ikasgelako zoko batetatik). Baliaga-
rria eta atsegina litzake benetan magnetofono bat edu-
kitzea!

Juta-oihalezko bi tapakiren gainean (atseden-ohet-
koak), gorria bata eta urdina bestea, Yves-ek eta Mar-
cel-ek, launa urte, marrazkien araberako adabakiak josi
dituzte: Philippe-ren Eguberri-zuhaitza, Alain-en man-
tangorria, Daniel-en ontzia; eta Yves-ek eguzki koskor
bat erantsi du. Hirugarren tapakian (hau horia) Ca-
thyk lore handiak marratu ditu, Yves-ek eta Marcel-ek

txori batzuk, eta Martin-ek neskatxa bat. Laister egongo da gertu.

Elkar-tresneriaren taxuketari dagokionez, «erantzu-leak» ongi moldatzen dira: kolorezko arkatzak, Yvesek, Marcelek eta Cathyk banatzen, taxutzen eta zorroz-tuzten dituzte (badugu, gainera, arkatz-zorroztailu bat). Koloreka taldekatzen dituzte: hamabikoka kajatxotan; eta ezer eskas gertatuz gero, azaldu diedanez, horrela taldekatzeko eskatu diet: IIII+IIII+IIII. Horra hor karkuluaren hastapena. Horrela jokatzuz ez da behin ere arkatzik galdu.

Hondar-eremua ikasgelan: kalterik ez dakar. Josianek, Martinek eta Marcelek hondarra biltzen dute erratzaz, eta ontzira edo hondar-eremura ahalik eta ongienik eramaten. Irteerakoan ia-ia xahu da dena, garbi garbia.

Egurrezko tresneria. Hastapenean aroztegietan lortzen nituen izari guztietako zur puskak; geroago Ikastetxeko paralelepipedoak, trianguru ekilateralak, eta abar, izarrak eta antzerako gauza politak moldatzeko bikainak! Gero, berriz, Bazkotan eta Biltzar Nagusieta-koan nolana hiko zur-puska landuak lor daitezke, elkarri kokatzeko modukoak, edo gurpilak, edo... Gero mota guztietako eraikikuntza-jokotara jalkitzen da jendea; eta ontziak, hegazkinak, berebilak, misiloak, damak, eta abar, prestatzen.

Baditugu ere eraikikuntza-joko zahar batzuen hondakinak : kuboak (haur handixeagoentzako egokiago), formikazko xaflak, fotografia-mintzen xarabila hutsak... Hori guztia aztertu eta taxutu egiten da. Jokoa bukatzean dena bere lekura.

Panpinak. Ez nedukan alerik ere; baina lilittegiko eno ikasle-ohiek zahar batzuk opaldu dizkidate. Badaduzkat, beraz orain mota guztietakoak. Txukundu egin ditut eta jantzi (haurrek erazteko eran); oheak prestatu dizkiet (zapata-kajak zapi batez estaliak), koltxoia. burukoak, maindireak, tapakiak... eta xoko honetan, benetan, badago lanik!

Landareak. Jazintu-ondo bat izan dugu, zabaltzen ikusi ditugu *ihiloreak*, gomatiko batetan azaroan landatu genituen *tulipaiak*, oraintxe hain zuzen lore gorri ederrez loratuak. Bitxi-lorak bildu ditugu, baita belardietako mando-belarrak, eta amarentzako eta eskolarako lore sorta ederrik prestatu dugu.

Abereak. Hiru *igel* izan ditugu urontzi batetan. Bazutan izkutatu egiten dira; baina gainaldera azaltzen dira maiz, eta harri koskor batetan pausatzen. Belardian harrapatu ditugu.

Kanariak. Aita «titi» da, eta ama «fifi». Honek errun egin du berriki. Ongi zaintzen ditugu, janari-askatxoak garbitzen ditugu, eta gero bihiz betetzen (lan hau André-ren eta Gilbert-en eskuetan utzi dugu, hiru urte t'erd). Etxetik azukrea eta biskota ekartzen ditugu; eta kanariak horren maite duten txori-belarra kaminoaren ertzetan aurkitzen ikasi dugu: egunero ohi dakar batek edo bestek.

Kanpoaldean. Bazkoz geroztik, eta eguraldiaren aldetik zilegi zaigularik, ongi jolastutzen gara kanpoan. Kasernaren ondoan bizi gara, eta aita gehienak jendar-me izanik, tramankulu bikainak muntatu dituzte beren bakantzetan: sabulu, txirristra, piramide... benetan zorionsu izateko era badago!

Oso ohitura zuhurrak hartu dira alderdi guztietatik: jazteko eta erazteko ongi moldatzen hasiak dira beren buruz.

Bazkoz geroztik, 39 ikasle ditut apuntaturik: 2 urtetatik 4 urtetara. Zaharrena Cathy da, abenduz geroztik 4 urte osoak ditu. Baziren Urrian eta Azaroan jaiotako beste batzuk, baina hauek aurreko ikastaldera bildu dira. Negar-saio batzuk izan ziren, noski; baina laister ahantziak. Besteak lanean ikusi dituztelarik, berehala jarri dira; eta orain ez dute batere arrotz atxematen beren burua, eta ez zaie lanbidea falta. Neskatila bakar batek, halere, (3 urte t'erdi), ia bi aste oso behar izan ditu laketzeko: galerazi ez zuen galerazten, egia esan; baina ez zuen exeri nahi izaten, eta horrelako. Orain etsi egin du, eta horra hor bera ere zorientsu eta pozik.

*Menez Anderea-k
Po, tanezen Brest*

Kaletar Lilitegiko handien taldea

Liévin, Pas de Calais

Mia-leku baten inguruan ari gara gu. Hauzoa txiro da, etxeak «probisional» gisa eraiki ziren; eta oraingozko horri dagozkion merkekeriak eta zabarkeriak dira ageri oso. Baina hortxe daude beti tinko etxeok, batzuk orain dela 30 urtez geroztik; berrienak, xuxenki esateko, 1944-ko alemandar presoek gordetzeko eraikitakoak. Hor kaleak medar, maiz eguzki gabeak eta ondo-ondoan dagoen mia-munoak urrutia estaltzen duelarik, horra hor guk dugun geure lilitegiaren ingurua.

Baditu honek 10 urte. Eta, gainerako guztia bezala orduantxerako egina, ondoratu egiten da, eta nun-nahi pitzatzen eta arrailduratzen...

Hortxe bizi dira 230 ikasle, eta hauen 5 andereñoak:

hastapenetako eskolan bi, eta lilitagian hiru. Nik neuk 5/6 urtetakoen taldea daramat.

Ttikiak beren bigarren urtetik etortzen dira. «Goiztxo?» Bai, noski. Baina etxean ez dago lasai jostatzeko lekurik, ez dago ia-ia lau seme-alaba baino gutxiago duen fameliarik; ez dago amarentzako atsedeen-aldirik, honen kezka nagusia astea nola bukatuko horretan... Eta aitari dagokionez, eguneko mia-lanak hautsirik (gauetz ez bada ari!) ez du gogo bizirik gero hurrez arduratzeko.

Gure hurrek horrela, nahiz gizarte-eragozpen batzuk izan, oso giro egokia aurkitzen dute eskolan, beren nortasuna aurrera ateratzeko gizaro laguntzaile on-ona. Biziki senditzen duten guztia azaltzen dute gordin-gordin, eta beren eguneroko lanean loturarik gabeko beren zauskadak ageri dira. Hau dela-ta, zail da biziera berri hauen oparotasuna denbora-araudi hertsi batetara biltzen.

Gaur goizean denek eguzkiarekin egiten dute dantza (jinasi-aldian, dio denboraren jarraipideak: eskolak bost ikastalde ditu, eta horretara egokitu behar dugu, aterpea txandaka hartuz). «Jean Marie Eguzkia»rekin dantzatzen du udaberria «Martine loreak». Patricia-ren irribarretik, era berean, eguzkia dario; Patricia gure «dantzari izana bait da», eta gure «neskatila lore»en aurrean ditiratzen bait du René-ren ezpatak (hau «Eguzkiaren Soldadu» izaki).

Ikasgelara lagundu gaitu. Hortxe dugu geure ekin-tza guztietan. Alderdi guztietan ere aitortzen da haren dirdaitasuna. Eskolako lantegietan dago gure zai, eta esku lantsu ezin lantsuago haietan eguzkiak soitzen

dira etengabe: lumaz, monotipoz, margokiz, estiloz, lurrean bertan ere bai...

— *Eguzkiaz nahi nuke idatzi* —dio Thérèsek.

— *Zer nahi duzu idatzi?*

— *Eguzkia dir-dir ari da, haurrak dantzan eta farre egiten.*

Arbelean idatzi dut hori. Ez da Thérèse kopiatzen bakarra izan. Piskanaka piskanaka, denak jarri dira idazketaren lantegian... Chantal-ek, halere, bere gisako istorio bat idatzi nahi du, eta gero edertu: hasteko neronek idatziko diot ipuina bik-feldroaz eta gero harek erakutsiko du, eta arbelean lagunentzako irakurriko.

Nicolek: *Nik neuk, kideentzako idatziko dut Thérèse-ren ipuina.*

Beste hiru lagunek lagundu diote.

Joëllek: *Nik neuk, inprimatu egingo dut baita galesti jotzen duten glacé-paperetan.*

Uraren xokoan, René (besteen ekintzak honi bost axola) ura neurtzen ari da jo-ta-ke, litroka, botoila bat baliatuz; eta noizean behin nigana etorri ohi da, eta esaten:

— *Litro batetan lau botoila txiki daude. Poto txikia eta botoilatxoa, bestalde, berdinak dira.*

Soinekoen kutxan, berriz, Martinek gona luzea, kapelo zahar bat, saski handi bat, eta abar, jantzi ditu;

eta, dendetara joatekotan, bere erosketa-lerrokada ari da prestatzen...

Aroztegian ari Antoine, ganbioi bat prestatzen ari da.

Azkar heldu zaigu eguerdia.

Arratsaldeak eskolako lantegietara eramaten gaitu berriz, eta idaztegia bixi-bixi ari da.

Eguneztatu egin behar dira gure lanak. Etenaldi labur bat, Murielek egutegian eguna erakutsi, eta aurrerā lanak berriro hiru t'erdia arte; alegia, jolasaldiaren ordura arte.

Berriz dena txukundu, eta segidan taxutu; eta guztiak datoz ene ondora, baketan eta lasai.

Orduantxe gogoratzen eta bildumatzen da eguneko lana, uraren bidez egin diren saiaketak azaltzen, dokumentoak eramaten eta aztertzen, oldezko izkribua zabaltzen, alimale, landare edo fenomeno honetaz edo hartaz dauden ezaguerak sakontzen edo osatzen. Orduantxe hitzegin ohi da ere kideei buruz.

Ederra eguna! Azaldu egin behar, beraz. Eta hor gaituzu berirro eguzkiaren gainean lauhazka; eta berotasunean azaltzen da dena. Dena lehertzero utzi dut; eta horrela, eta ez bestela, gaizki esanak zuzentzen ditut poliki-poliki, hiztegi-xehatasunak ontzen; ez, ordea, hiztegi sasi-jakintsu bat; fameliako hizketa apalaz besterik ezer ez, baina zehazki; hauxe bait da bestela gure gizaro honetako ahulezia...

Martine, beti batera eta bestera (haren etxean 6 lagun bizi dira gela berean), karrajo aldera doa:

— *E! Andereño! Eguzkia ikusi dut. Hortxe duzu.*

Tximista bat bezala, karrajoko ilunpean zeharka ageri da «urrezko barra bat»; eta Martine gainera igotzen saiatzen da...

— *Begira zazu, andereño: bai ederra dela! Argi-printzak jauzika ageri dira begietan.*

Bapatean «urrezko barra» delakoa itzaldtu egin da. Atera joan, eta horra: eguzkia mia-munoaren atzekaldean izkutatu da...

Bagatuz berriz atzera, pitin bat lehengo argitasunak itsuturik; eta zoriontsu gaude, lasai, eta Patricia kantari dator. Bai egun ederra! Kideei azaldu beharko! Bihar-txe!

Biharamuneko eguna moldatzen hasia da: seguru aski eguzkirik gabea (hain da gauza bakana eguzkia inguru hauetan eta urte-sasoin honetan!) Baina badadukagu gudan atzokoaren diztira bederen.

Kondata egingo dugu, edertu egingo dugu, apaindu, idatzi, eta kideentzako albuna gertatu.

Eta heldu da berriz biziaren mentura. Eta egunak, aldiz bare aldiz zalapartatsu, elkarri darraizkio; baina, beti ere, denak beteak, guk guztiok osatuak. Eta aha-lean funtsezko interesen lerro bihurtunetsuari lotzen saiatzen gara.

*C. Berteloot Andereak
Vieux Calonne-ko Lilitegia. Liévin*

Neska-mutil koskorren talde bat

(5/6 urte)

(Perpignan-en)

Badira, hortaz, egun eta aste xingleak. Badira beste batzuk, alderantziz, harrigarriak; eta hain aberatsak, gure txikiekin memento apartak bizi ditugula sinesten bait dugu.

Gutziz egun xingleak badira; eta lilittegiko andereño guztietan gerta daitezke.

Eskolen arteko kidekuntzaren gakoa, sortzen dituen elkarrekiko onginahian eta jakin-minean datza. Hots, kidekuntza horri esker bizi izan ditut aurten egun zoragarriak.

Atsegin emateko pozak batetik, eta besteren lana-

rekiko mirespenak bestetik, leku zabala utzi diote kla-sean trukabide horri, eta nagusiek bezala lanegiteko aukera eman digute.

Lan hori ez da izan haseratik lan jarraikia; baina, ezari-ezarian, harekiko interesa handitu egin da. Hona hemen nola eta zergatik:

AZAROAREN 5

Pardel bat etorri da Bokaletik (Pyrénées Atlantiques Departamentuan). Neure buruarentzako, eta Bokaleko haurrek gure zirrara eta poza zehatz uxtia de-zaten, magnetofonoa piztu dut zabaltzerakoan.

Elkarrekiko gutun bat

— Esaiguzu zer dion, zuk badakizu irakurtzen —gal-degin du Clairek.

— Bokaleko ontzi-gidariaren lana azaltzen zaigu.

Badaude ontzi honen irudiak.

Badago ere Bokaleko kaiaren postal bat, ontzi gi-daria eta gutzi.

Baita Bokaleko diapositiba batzuk.

Eta haur bakoitzarentzako izkribu bana.

Ene haurren poza handia da.

— Gure Port-Vendres-en bezala ahal da? Badugu guk ere kai bat; baina ba ahal dago ontzi gidaririk?

Aitari galdetuko dio Michelek.

Bokaletik hartu den izkribuak honela dio:

Patrick delakoa
ene aitaren
ontzia da.

(Jean Luc-ek)

la osoki asmatu dute denek irakurgai hau.

Badago ikastaldean Patrick bat, eta pozik jarri da ontzi batek bere izen berbera daramala jakinda.

Hitz ez-ezagun bat: ontzi

Laister dago irakurgaia estilo-feldroz ederturik; eta anitz koloretako ontziak dantzan hasten dira orri zurietan barrena.

Talde batek *idatzi* egiten du, beste batek ontzien hizlak *ebakitzen*, beste batek ontzien gainean bilatzen ditu BT delakoak, eta beste batek azkenik «France» itsasontziaz eztabaida bat piztutzen. Eta nik entzuten:

— Ontziak eta pertsonak berdin.

— Badago handirik.

— Badago txikirik.

— Ontzi gidaria txikia izaten da.

— «France» itsasontzia, berriz, handia.

— Uste duka?

Bi egun igaro...

Perpignan-go feriak dira, eta atzo ostegunean joan dirateke haurrak. Goizeko solasak zaldiko-maldikoei buruz dira:

Azokan badago

Bokaleko ontzien

zaldikoa.

(Guy-k)

— Ferietako ontziek eta Bokalekoek elkar dirudite —Michelek—. Eta izena ere antzekoa dute: «bateau/Boucau».


— To! —dio Marcek—. Bitxi da! Nik honela idazten dut. (Eta arbelera joan, eta «o»z idatzi du).

— «Bateau» hitzean nik «eau» hori «o» gisa entzuten dut, ontziak igeri dabiltzan uraren izenean bezalaxe —Michelek.

— Badakit nik, uste dut —dio Marcek— «auto» idazten: «oto».

Sylviek: nik honela idazten dut: «eauto».

Henrik: eta nik «eautau».



Jostaketan.

Jeanek: nik berriz honetara: «otau».

Pierrek: nik «oteau».

Luc-ek: nik «auteau».

Bilatu egin dugu hiztegian: «auto» idatzita. Eta haurrek «auto» hitzaz hasten diren esaldi batzuk asmatu dituzte.

Arratsaldean, horra hor pozkariotan Roger heldu. aurpegia ditzira huts:

— Horra —dio—. Hor duzue «France» delakoa, munduan dagoen itsasontzirik handiena. Eta egia da, aitak esan bait du: koloretako kaseta batetan irakurria du.

Eta «Match»en orrialde bikoitza betesten da:

— Handi xamarra da hori (Didierrek).

— Zenbat metro? Badakizu zuk, Andereño? (Philippek).

Andereñoak ez daki. Zer egin? Geure gurasoei galdetuko diegu biharko, eta beste ontzi-irudi batzuk bilatuko dira.

Biharamunean: astelehena

Marc pozik dago: etxen hainbestez ontziei buruz hitzegin ondoren, gurasoek Port Vendres-a eraman dute. Eta ontziaz hitzalditxo bat egiteko eskatu zaio.

Ontzi mota guztiak ikusi omen ditu:

- txikiak;
- handiak;
- motoredunak;
- hagaz eta belaz hornituak;
- arrantza-ontziak;
- garraiokoak.

Orain sutsu daude denak ontziei buruz.

Bokalez mintzo gara egunero behin eta berriz; kaia-
ren ondoan ontzien artean bizi diren lagun urrunak di-
tugu beti gogotan, bokaldar haur haiek.

- Jean-Luc-en aitaren ontzia, vedette bat da.
- Hors-bord-ei buruz hitzegiten da (Didierrek).
- Itsasontzietz (Guyk).
- Itsasokoez (Marcek).
- Krutzeroez (Jean-Pierrek).

Horra hor ontzien lerrokadari erantzita, izen berri
pilo bat.

Harrak barnean beti ari, haurrek «France»ren luze-
ra jakin nahi dute zehatz:

— Kapitaniak badakike; eta esan lizaiguke —Hen-
rik.

— Egia. Eta, zergatik ez?

Elkar-gutun bat igorriko zaio «France»ko kapitainari. Havre-ko Itsas-Konpainiari. Bai gutun ederra!

— izkribuz ugari!,

— irudiz aberats!

— ontziz jori!

Ontziei buruzko gure albuna gero eta osoago.

Gaur goizean, txinatar ihi batez eta bertako piragu batez apaindu dugu.

Nolako poza gaurkoa! Havre-tikako posta-zorro handi bat iritxi da goizean, tanpoia eta guzti, eta ontzi-irudi bat azalean. Itsas-Konpainiak erantzun digu.

Azkar! Irudi-sorta ezin ederrago bat: Le Havre/New York lotura egiten duten itsasontziena. Eta segidan guk egindako galderen erantzun-ilara.

«France» delakoak 300 metrotatik gora ditu.

— Demasa da —dio Marcek.

Arbelean 300 m. idatzi dut.

— Patioa bera baino handiago date hori: hiru bat aurretik, eta atzetik bi zero (Edithek).

— Ez da lilitegian kokatzen ahal: urratu egin behar-ko genuke (M. Th-k).

— Eta kalean? (Philippek).

— Bai, bainan, noraino? (Olgak).

— Honeraino, edo Jacquie-reneraino?

Goazen neurtzera: mutikoen eskolako burua den Bonnet jaunak utziko digu neurketa-katea.

Neurtu egin dugu, gero gonbaratu, gero solas lasai.

— Kalea baino zabalago da antza.

— Baliteke «France»ren tximenea Marc-en telebis-ta-antena baino gorago iristea.

— Itsasoa Véronique-ren lorategi betean legoke.

— Itsasoa loreetan: ederra litzake.

— Ontzi baten gainean etxetxo bat dute denek, ene aitak dionez.

— Etxe asko egingo luke horrek: hiriko guztiak beharbada.

Eta haurrek «France»az mintzatu nahi dutelarik, honela diote:

— «France» itsasontzia, eskolatik irten eta Marc-en etxeraino bezain luzea da.

Oso maiz, ontzien albuna orritzatzen dugu, eta zorionsu izan ohi gara.

*O. Salvat Andereak
Cité des Salariés-ko Lilitegia, Perpignan*

Ikas-ibilaldiak

(Brest-en 5/6 urtetakoentzako)

Guk badugu kaletar ikastalde bat; eta horrengatik, nik uste, neure ikasleek eta nik neuk oso gogoko ditugu ikas-ibilaldiak. Nolako poza! Berritasun bila elkarrekin joan, baita eskola-ondoko lekutara joango bagara ere! Haurrak eskolara eramatera datozen amak (edo alderantziz, handik ateratzera) beti ibili ohi dira presaka; eta horrela ttikiek ez dituzte ezagutu ohi eskola ondoko inguruak.

Gaur ez gara oso urrutira joango: geure kalean geldituko gara, eta badugu helburu zehatz bat: Ingrid-ek esaten ez dakien etxe-lumeroa aurkitzea, harek ez bait du ategainean idatzirik atxeman. Halako batez, postariak gutun bat eramana du eskolara: bazeramazkien gurasoen deitura eta kalearen izena, zenbakirik ez ordea. Honetan nork bere zuzenbide osoa eman du, eta

oso harro agertu dira denak beren kaleko izena eta etxeke lumeroa jakinez. Ez zekitenek laister ikasi dute eguerdian, eta paper batetan apuntatu; eta bihurtzean arbelean idatzi dute, gero goraki irakurri, eta beste batzutan bestek irakur arazi ere: 17, 48, 39, 62...

Ingridek ez beste guztiek idatzi dute nork berea.

Bagoaz eskola aldeko ezpaloian behera, eta 22 irakurri dugu; gero 20, 18, 16, 14. Eta Olivier-ek oharrarazi: «Batzuk falta dira!» Eta egia da: denok ados. 2-ra iritxita, kaleaz bestaldera joan gara; eta hemen, Ingrid-en etxearen aldetik orain, joko berriz hasi: 1, 3, 5 (Elisabethen etxea hau), 7, gero Ingrid-en etxea, lumerogabea; eta gero 11, 13, 15 (David-en etxea), eta abar. «Berriz ere batzuk falta», Olivierrek.

Ingrid-en etxearen aurrean gelditurik, hau proposatu du Claudek:

— 7-aren ondoan, 8-a dator.

— Ez, ez. 8-a kaleaz bestaldera ikusi dugu — Michèlek arrapostu.

— Hortaz, 10-a da 11 baino lehenago.

10-a, ordea, aurrez-aurre dago. Eta horra hor haurrak kokaturik! Gela barrura sartu, eta eztabaida aurrera. Dena argitzea proposatu dut, eta:

— Kurri dezagun kalea berriro.

Haur batzuek, eskolaren alderdia iduritzekotan, ta-

maina handiko lumeroak hartu dituzte beren gain; eta hor ditugu zai 2, 4, 6, 8, eta abar.

Beste batzuek, aurrez aurre jarrita, gogoan hartu dituzten lumeroak hartu dituzte, baita Ingrid-ena lumerozik gabe. Eta nork bere txandan, kale horretan barrena igarota aipatzen ditu lumeroak, alderdi batekoak lehendabizi, bestaldekoak gero. Beti bat: beti batzuk eskas.

—Ez, ordea —errepikatu du Hélének—. Falta direnak aurrez aurre daude.

—Hara! Egia da! —dio pozik Olivierek, kalean gauza berbera somatu ondoren—. Hélének egia du!

Orain batere hutsegin gabe irakur dezake Gérard: 1, 2, 3, 4, 5,... txandaka kaleaz bestaldera igaroz. Eta horrela Ingrid-en lumeroa aurkitu du: bederatzia da!

Lehenengo aurkikunde honi, laister darraikio bigarren bat. Jean-Lucek honela esan bait du:

—Alde honetan denak dira zenbaki bikotxiak (zenbaki horiek gure negu-oskiak eta eskuzorroak pareka zenbatzen dakigunez geroztik, ezagunak ditugu). Eta bestaldetik, burukotxien ilara dago.

Hori poza! Egun batzutan barrena jarraituko da jokoak. Ni neu pareko edo bikotxien alderdian bizi naiz: 30-an. Ene etxeak lumero burukotxia du: 19... Ingrid-ek berriz oso pozik dago, eta paper handi batetan 9 handi bat idatziz, bere atean itsatsi du!

* * *

Merkataritzaren kaira eraman gaitun irteera ere izan zaigu interesgarria. Gure helburua, hauxe: Michèlek aipatuak zizkigun antxeten ondoratzea. Mokogoxoak omen dira! Arrantzara joandako anaiak horrela egiten zuen jolastutzeko: arraintxo txikiegiak itsasora jaurtitzeko zituen, eta segidan antxetek jaten zituzten.

— Bai, bai! Antxetak ikusi ditut nik, eta itsasora jaurtitzeko dute beren burua (Marie Noëllek).

— Noski! Arrainak jateko! (Gérardek).

— Mokoaz harrapatzen dituzte (Olivierek).

— Nik neuk, itsasertzean lerro-lerro ikusi izan ditut. Erdi lotan zeudela zirudien; baina harrapatu nahi izan ditugularik, garrasika egin dute ihes hegaz (Hélènek).

Denek farrez horretan, aldrebeskeria berbera gertatu bait zaie.

Jinasiardia iristean, noski, «antxetek bezala egin nahi» hegaz, baita arrainak harrapatzekotan uretara murgildu. Eztabaidak hextuago bilakatzen dira, eta kritikak oparo jario: «usakumeak bezala egiten du hegaz Michèlek: antxetek hego zabalagoak dituzte, eta ez horren arinki eragiten».

Hemen gaituzue merkataritzako kairako bidean aurrera; baina jolaspide zaigu estazioaren ondotik pasa, erloju eskerga hartan ordua begiratu, eta hormatxoriek bete duten lorategi publiko baten luzeran joan. Batzutan antxeta bat ageri da handik, baina beti gugandik urrutiegi. Hona hemen orain itsasoa ongi agirian, bai-

na ez hurbilegi. Kaitik atzera heldu diren ganbioitzarrek zaildu egiten dute gure irispena. Baina arrantza-leak joan ohi diren nasartean gaituzu; eta, hara: gu heldu garen garaian, hain zuzen, berak ere beren ontzi berde eta urdinetan datozela, antxetak zaindari. Eta oharrak gure artean ugaltzen dira:

— «Honelaxe» eragiten diete beren hegoei, gero gelditu egiten dira, eta «honelaxe» labantzen dira —idurikatzen ditu Gérard-ek.

— Ez dira erortzen, ezta gelditzen direnean ere; haien hegoak handiak direlako (Hélènek).

— Eta, bestalde, badute beheretik aidea, denaren euskarri (Elisabethek).

— Haizeak airatzen ditu (Gérardek).

— Pausatzeko, tente-tente atxikitzen dituzte beren hegoak, ongi altxata, gero hesteko moduan (Davidek).

— Begira, Andereño! Uraren gainetik ari dira han batzuk. Ez, ez; korrika doaz uraren gainetik hegoak zabalik. Jira zabalak egiten dituzte zeruan, gain-behera abiatuak, eta hegazkinek bezalaxe.

Zangoak pitin bat nekatu direlako, eta begi guztiak hego zabalez eta eragilez beterik daudelako, itzulerari poliki egiten da.

Dantza-egiteko akituuegi, antxetak marrastu ditugu: gorputza motz, isatsa txiki, baina hegoak oso zabal eta gakoaireak. Brikolagintzaren xokoan, Marie-Noëllek lehendabizi, eta Loulouk eta bestek berehala lagundu-

ta, paperezko antxeta hegalaria bat prestatzeari ekin diote, gero patioan botatzeko asmotan. Kaseta-papera zimurtuz, kartoizko hodia bat inguratu dute horrela, eta mokoan, lepoan eta bizkarrean sokaz lotu; gorputzean, bestalde, bi hego zuri zabal erantsiz: «Horra ene antxeta!».

Biharamunean, arrakasta osoa dago dantzarakoan: besoak oso zabalik hedatzen dira, eta gora eta behera poliki eragiten; eta gero txit poliki biltzen. Jokoari egokituko zaion musika aurkitzea falta da: Mozart-en K 285 quatuorraren Adagioa izango da aproposa. Musikak lagundurik, banan-banan hegaldatu zaizkigu gure «antxetak», gero jiratzen eta elkarren ondotik denak pausatzen. Jokoa bukatzeko, Marie-Noëllek bere paperezko txoria heganarazi du. Jean-Luc-ek ez du antxetarik prestatu, zeharka lotu du bere mokanesa, eta besterik gabe oso itxura politak lortu ditu joko honentzako. Egun batzutan barrena, jokoa aurrera joan zen. Hegoak genituen denok!

* * *

Berriz ere irteera bat, udaberrian hau. Kamelia-sorta bikainak ekarri dizkigu Joëllek behin eta berriz, eta non biltzen zituen galdetu diogu:

— Neure lorategian. Eta badago anitz eta anitz.

Amari baimena eskatuz, begi onez hartu harek bere lorategian; eta benetan oparo etorria zen hara udaberria. Bidean, etxeetako lumeroak erreparatuz jostatu gara, eta almagazetako ezagugarriak eta panelako sloganak irakurtzen saiatu:

— Letra nagusitan zailago da askoz ere!

Aldameneko kale batetan, Joëlleren etxeko lumeroa den 6-a aurkitu dugu. Sartu aurretik, halere, ez-paloi-ertzeko gerezi-ondoei so gelditu gara: *lore ederrik sortatan! denak kizkurrak! Adarrak zubi bihurtuta! Goruntz eta beheruntz ari!* Eta besoak lore-guneetan apalxeago, leunki segitzen du adarraren lerroa.

Geroxeago Joëlleren lorategiko poza izan da; eta aurren-aurrenik kameli-ondoa atxeman dugu, gaitza: «Benetako parasola da hau, dena lore eta orri». Denok babestu gara haren azpian («denda baten azpian, etxe-zuhaitz bat balitz bezala»), oinak lore-hosto arrosen gainean: laister biltzen hasiak, eta esku-ahurretan pilatuak eta leunki laztanduak. Lorategiko murruean ondoan loratu diren madariondoak ez dituzte haurrek horrenbestearaino harritu, eskolako patioan gereziendo baten lorakuntza ikusi dutelako: «Gure gereziendoak dituen lore berberak dituzte madariondoek».

Nork bere gisara bilatzen dugu: Elisabethek hostoiska larrosa eta gorriak aurkitu ditu; Ingridetik, bere aldetik, pozarren aurkitu ditu itzalgune batetan jazintu urdinak. Baina behin eta berriz itzuli gara gu kameliandora: lore-babes ederra iruditu zaio talde guztiari. Eta joaterakoan nolako poza denen begietan, eskuan lore bat edo bi amari emateko asmotan; eta nolako poza amarena ere, haurra horren harrosko ikusita. «Udaberriko lorategi» horretaraz geroztik (Elisabethek horrela bataiatu du) zuhaitzen eta loreen marrazkiak berritu egin dira: beti ere oinarritzat Eguberriko izaia zuten adarrak, kito: orain parasolaren antza hartu dute Makurgunetan gora eta behera, lerroak arinago, baina tarteka anitz lorek astundurik. Koloreak ere berritu

egin dira: orain berdeak nahi dira, baina berde argiak; baita urdinak eta arrosak, eta horiak ere bai... Margo guztiak bilduta, geure lorategia: bada honetan lerroen belarren eta loreen larregia; ez bait dago han hutsunerik batere. Dena mukurru. Eta tarteren bat gertatuz gero, laister betetzen du tatxa batek, edo eroritako hosto batek, edo marraskiloren batek. Oparo ugaltzen da hemen bizia; eta harrituta begiratzen dut pintzel horien mogida, bapatean udaberriaren suharrak hartuak dituen arkatz zalu horiek. Gainezka isurtzen den lirismo hori besteri kutsatu nahiz, hau idatzi diegu geure kideei:

Horra hor udaberriko
pardeltxo bat:
kamelia-lore eta
ezkongai-lore batzuk.

*Jane Rosmorduc-ek
Brest-eko Lilitegia, République kalean*

HIZTEGI

- ALDITASUN:** periodicidad, périodicité.
ARETO: sala, salle.
HARRERA-ARETO: sala de recepción, salle de réception.
ABIABURU: punto de salida, point de départ.
AGERMEN: facultad de expresión, expressivité.
OLDEZKO AGERMEN: expresión libre, expression libre.
AURKIKUNDE: descubrimiento, découverte.
ATALKETA: descomposición para analizar, décomposition pour l'analyse.
ARRAUTZAIRE: ovalado, ovale.
ANIZTASUN: multiplicidad, multiplicité.
ALASA: armario, armoire.
ARIKETA: deber, exercice.
ALDERAKETA: comparación, comparaison.
AZTERPIDE: vía de análisis, voie d'analyse.
AGERPIDE: medio de expresión, moyen d'expression.
ATZE-GIRO: fondo de pintura, toile de fond d'un tableau.
ARKATZ: lápiz, crayon.
APAINKETA: ilustración, illustration.
ARTELAZKI: corcho, liège.
AGERTZAPEN: manifestación, expression externe.
AHUR: palma, creux de la main.
ALBENI: orillo del paño, lisière.

BIDALKETA: envío, envoi.
BERIN: vidrio, verre.
BAIESPEN: aprobación, approbation.
BETESPEN: acto de admirar, émerveillement.
BARNAKUNTZA: hecho de profundizar, approfondissement.
BIZIGUNE: momento crítico, moment clé.
BALDIN(DU): condicionar, conditionner.
BIRSOR(TU): recrear, recréer.
BILAKA(TU): convertirse en. devenir.
BIKOTXI/BURUKOTXI: par/impar, pair/impair.
BERRIZTASUN: repetición, répétition.
BEREZKO: natural, naturel.

EDER(TU): ilustrar, illustrer.
EDERTZA: ilustración, illustration.
ELTZEGINTZA: cerámica, poterie.
EZAGUERA: conocimiento, connaissance.
ELKAR-LAN: trabajo colectivo, travail collectif.
ELKAR-LAGUNTZA: colaboración, collaboration.
ELKARREKIKO AKTIOA: acción concertada, action commune.
ERANTZULE: responsable.
ERANTZUKIZUN: responsabilidad, responsabilité.
ESKOLATZAILE: educador, éducateur.
EGO-ZALE: egocéntrico, égocentrique.
EGOKIKUNTZA: adaptación, adaptation.
ESALDI: frase, phrase.
ERAIKIERA: construcción, construction.
EGOLE: presente, présent.
EKAI: materia, matière.
EZABAGAITZ: imborrable, ineffaçable.
ERRALDOI: gigante, géant.
ESKERGA: enorme, énorme.
EGOTZ(I): arrojar, jeter.

FROGABIDE: prueba, preube.
FUNTS: fundamento, fondement.
FELDRO: fieltro, feutre.

GIZARTEKUNTZA: socialización, socialisation.
GUTUN-KIDE: colega de correspondencia, correspondant.
GUTUN: carta, lettre.
GAUZAKI: objeto, objet.
GUBI: buril, gouge.


GIZARTE-IZAKI: ente social, être social.
GAINALDE: superficie, surface.
GARRAZKIN: ácido, acide.
GESALKIN: disolvente, dissolvant.
GOMATIKO: neumático, pneu.
GAKOAIRE: en forma de gancho, courbe.

HEDAKUNTZA: extensión, développement.
HAZKUNDE: desarrollo, développement, croissance.
-LEGE: ley de crecimiento, loi de croissance.
-ALDI: período de crecimiento, periode de croissance.
HEZIKETA: formación, éducation.
HAZTAMUZKO: de tanteo, tâtonnant.
HEZIBIDE: método de formación, méthode de formation.
HOLTZARTE: abismo, fossé, abîme.
HIZLA: silueta, perfil; silhouette, profil.

IDAZKITZA: correspondencia escrita, courrier.
IKASGU: centro de estudio en general, centre d'étude en gé-
néral.
INGURAMENDU: milieu environnant.
INGURUNE: medio ambiente.
IDAROKI: sugerir, suggérer.
INGURRAZTI: cuaderno, cahier.
IZKRIBU: texto en general, texte en général.
INPRIMAKIN: máquina de imprimir, machine à imprimer.
IGAROBIDE: paso, passage.
IDAZKETA: escritura, écriture.
IFAKURKETA: lectura, lecture.
IZARI: medida, mesure.
IDURITU: imitar, imiter.
IKASTALDE: clase (conjunto de alumnos); classe (ensemble des
élèves).
IKASGELA: clase (sala de cursos); classe (pièce pour les cours).
IDURIKETA: imitación, imitation.
IMAJINA: escultura, statue.
IHILORA: flor de junco, fleur du jonc.
IZAI: abeto, sapin.
IDOROKUNDE: descubrimiento, découverte.

KIDE: colega en el intercambio, correspondant.
KIDEKUNTZA: intercambio entre dos escuelas, jumelage scolaire.
KIRIO-SISTEMA: sistema nervioso, système nerveux.

- KIRIO-FIRU: fibra nerviosa, fibre nerveuse.
 KRISIALDI: período crítico, période de crise.
 KARRAJÓ: pasillo, couloir.
 KEINU-BIDE: procedimiento mímico, procède mimique.
- LILITEGI: parvulario, maternelle.
 LAUKI: rectangular, rectangulaire.
 LANBIDE: oficio, métier.
 LUMERO: número, nombre.
 LEKOREKO: ausente, absent.
 LEHORKI: producto secante, siccatif.
 LURRINGAILU: vaporizador, vaporisateur.
 LILIUBEL: violeta, violet.
 LAUHAZKA: a galope, au galop.
- MARRA(TU): dibujar, dessiner.
 MARRAZKI: dibujo, dessin.
 MARGO(TU): pintar, peindre.
 MARGO: pintura, peinture.
 MARGOTZA: arte pictórico, art pictorique.
 MOLDAKUNTZA: moldeo, modélage.
 MIA: mina, mine.
 MIAGILE: minero, mineur.
 MARTIMUILO: rodillo, rouleau.
 MAINU-GELA: cuarto de baño, salle de bain.
 MOLDIZTEGI: imprenta, imprimerie.
- NORKI: personaje, personnage.
- OHARKETA: observación, observation, fait de remarquer attentivement.
 OLDE: impulso espontáneo, impulsion spontané.
 OLDEZKO: espontáneo, spontané.
 OLIBONDO: aceitunero, olivier.
 OSAKETA: composición, composition; opposé à «atalketa».
 OREKA: equilibrio, équilibre.
 OPARO: profuso, abundante; abondant.
- PISAKETA: pesaje, pésage.
 POSTARI: cartero, facteur.
 PUXTARRI: canica, bille.
- SAIAKUNTZA: experimentación, expérimentation.



Mendian.

SENAZKO: intuitivo, intuitif.

SORKARI: obra creada, création quelconque.

SABULU: columpio, balançoire.

SORKUNTZA: creación, fait de créer.

TAPIZGINTZA: confección de tapices, préparation de tapisseries.

TOSTA: asiento de lancha, siège de chaloupe.

TXOSTEN: informe, rapport.

XAFLA: lámina, plaqueta; lame, plaquette.

URTEZARO: estación del año, saison.

UXTIATU: aprovechar al máximo, profiter à fond.

UMODURA: maduración, mûrissement.

ZORU: suelo, sol.

-GUDRONEZTATUA: asfaltado, goudronné.

ZAPAILU: presa, presse.

ZAUSKADA: emoción súbita, émotion brusque.

ZURUBI BIKUN: escalera doble, double échelle.

ZALDIKO-MALDIKO: tiovivo, manège.

ZENBAKI: número matemático, nombre mathématique.

ZOHIDURA: maduración, mûrissement.

ZHAZTASUN: precisión, exactitud; précision, exactitude.